ASTELEHENEKO
# Goienkaria
2009ko azaroaren 23a > Astelehena > VII. urtea > 255. zenbakia > Euro 1
www.goiena.net

"Gazteok konturatu behar gara etxeko nagusiekin gehiago egon behar dugula"



**Aitziber Gine**
Psikoterapeuta > 08

**ARRASATE**
**Garagartzako ortuen jabeek hartu dituzte dagozkien lur zatiak** > 11

**HEDABIDEAK**
**Bergarako Txapa Irratiak 25. urtemuga ospatu du astean** > 13

**BERGARA**
**Milatik gora lagunek egin berri dute Bedelkar txartela** > 16

**ARAMAIO**
**Asier Agirre urtarrilaren 13an epaituko dute, AHTrengatik** > 20

**JENDARTEA** > GENEROA

# Emakumeenganako indarkeria kasuen aurrean, salaketa

**EGUAZTENA** Azaroaren 25a da Emakumeekiko Indarkeriaren aurkako Eguna eta ibarrean elkarretaratzeak egingo dituzte

**HEDABIDEAK** Hedabideetan erasoen berri gehiago eman arren, ez du esan nahi kasu gehiago dagoenik

**ARAZOAK** Tratu txarrak salatzea beharrezkoa bada ere, arazo afektibo eta ekonomikoak sor diezazkioke > 03

**AZOKA** > ERAIKUNTZA

## Ingurumena zaintzeko alternatibak

Eraikuntza jasangarriaren gaineko azoka egin dute Eskoriatzan > 05

## G2a

### Faraoiak berpizteko moduko algara eta antzezpen maila

'La corte de faraon' joan den mende hasieran idatzitako zarzuelak arrakasta itzela izan zuen Arrasateko Amaia Antzokian zapatuan eta domekan, bietan. Arrakasta Izaskun Murgia Elkarte Lirikoaren urteroko marka bada ere, aurtengoan ikuskizunari umorea egin egin diote eta, kantuari garrantzia pixka bat kendu dioten arren, partaideek erakutsi dute antzezpen maila ere nabarmen igo dutela. > 32-33



**IKUSLEAK POZARREN** Txaloaldi itzela jaso zuten Izaskun Murgia Elkarte Lirikoko partaideek emanaldi bukaeran. JOSETXO ARANTZABAL

**AURKIBIDEA**

**Debagoiena** > 04-05
**Ekonomia** > 06
**Auzoak** > 07
**Elkarrizketa** > 08
**Iritzia** > 10
**Herriak** > 11-20
**Kirola** > 21-28
**Kultura** > 29-33
**Sailkatuak** > 34-35
**Denbora-pasak** > 36
**Telebista-Irratia** > 37
**Berri-zakua** > 38-39

**POLITIKA** > OÑATI

## Omenaldia EAJko udal hautetsiei

Trantsiziotik gaur egunera arte Oñatiko Udaletxean izan diren EAJko zinegotzien aldeko ekitaldia > 04

**MUSIKA** > AURKEZPENA

## Ruper Ordorika, Gatzagan

'Haizea garizumakoa' diskoaren aurre aurkezpena egin zuen zapatuan > 30

**TXIRRINDULARIAK** > IRIZAR

## Markelen Lagunartea, bat eginda

Ospakizun egun bete-betea egin zuten Markel Irizarren lagunek zapatuan Oñatin > 21



**Umeentzako liburuak. Nahi?**

Zoaz 7. orrialdera


IRABAZI
6.000€
GORBEIAKO 8. URTEBETETZEAN
3.000€ko
Sari bat
erosketa txarteletan
2.000€ko
Sari bat
erosketa txarteletan
1.000€ko
Sari bat
erosketa txarteletan
GORBEIA
ESKORIATZA 10 minutuan
ARRASATE 13 minutuan.
BERGARA 16 minutuan.
SORALUZE 21 minutuan.
EIBAR 23 minutuan.
GORBEIA
gehien aurrezten duzun tokia
Promozio baliagarria azaroaren 20tik abenduaren 19ra.
Oinarriak gerentzian eskatu daiteke.
Etxabarri Ibiña
IRTEERA
AP - 1 EIBAR -GORBEIA
(GASTEIZ)
LUXUS SPORT CARS - ISKIA - ULANKA - ZAPARRASTRILLO - CORTEFIEL - WOMEN'SECRET - DOUGLAS - CHARO DUARTE - SPRINGFIELD - PROMOD EL BROCHE - AUTOS GP - UNITEC MOVISTAR - ATENCIÓN AL CLIENTE CARREFOUR - VEGA - PRENSA - ESPACE COIFFURE - INMOBILIARIA GORBEIA WANAKA - ORO VIVO - GODO'S – SLIDE - TRIP BISUTERIA - KAVA - SPORTWELL - REC - LOS TELARES - PACO MARTINEZ - PIMKIE - GAME - SUN PLANET SWATCH - NATURA - VODAFONE - BIJOU BRIGITTE - ORANGE - ADMINISTRACION LOTERIA – ONCE - BARCELO VIAJES - ASERPLATA - VITAL KUTXA GRECIA - AMAZONAS - LA RAPA - CEYLAN CAFÉ Y TE - LAHORE - OSCAR G - MODAS ATENEA - EOLO 23 - FARMACIA - TRIP - FOOT LOCKER - SEPHORA M2 CAFETERIA - M2 - KURRUSKO - GAMBRINUS- OKETA - KEBAB - KIOSKO GOXOA - TÚNEL DE LAVADO - CARREFOUR - DECATHLON - BRICO DEPÔT MCDONALD'S - YELMO CINES GORBEIA 3D - NORAUTO - KING JOUET – MUEBLES MAX DESCUENTO – MERKAL CALZADOS - SPLAFF! - SAMIRA - CIMER

**JENDARTEA** > GENEROA

# Salaketa emakumearenganako, indarkeria kasuen aurka

**EGUAZTENA** Azaroaren 25a da Emakumeekiko Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna eta elkarretaratzeak egingo dituzte ibarrean

**HEDABIDEAK** Komunikabideetan erasoen berri gehiago eman arren, ez du esan nahi kasu gehiago dagoenik, gehiago bistaratzen direla baizik

**ARAZOAK** Emakume batek tratu txarrak salatzea beharrezkoa bada ere, askotariko arazoak izan ditzake gero; afektiboak eta ekonomikoak kasurako

**1.** Medioetan genero indarkeria kasuak agertzeak erasoak areagotzen ditu?

**2.** Emakumeen aurkako tratu txarren arrazoia zein da?

**3.** Zein da irtenbidea?

**4.** Emakumeak tratu txarrak salatzean zein arazo izan ditzake?


**ROSA URRETA** Sorginak emakume taldeko kidea. I.A.


**A. ENCINAS** Genero Indarkeriaren aurkako plataformakoa. I.A.


**ANNE AGIRRE** Berdintasun teknikaria Aretxabaletan. GOIENKARIA


**NEKANE SAN MIGEL** Epaile arrasatearra. GOIENKARIA

## Rosa Urreta

SORGINAK EMAKUME TALDEKOA

**1.** Abiapuntua da berdintasunaren irizpidea oso urruti dagoela, genero berdintasunera iristeko tarte handia dago. Kasu asko salatzen da, baina beste asko ez. Iruñeko kasuari erreparatuta, nola da posible epaimahaian zazpi emakume eta hiru gizonezko izanik emaitza hori ateratzea? Genero indarkeria ez ezik indarkeria politikoa ere badago horren atzean. Epailearen galderak nola bideratzen diren emaitza ere halakoa izan daiteke. Kasu horretan hedabideen pisua erabakigarria izan da. Ipinitako zigorrak barregarriak da; ezin daiteke beste delitu batzuekin parekatu.

**2.** Matxismo kutsu handia dago oraindik, eta emakumeok bigarren mailan gaude.

**3.** Irtenbidea etxeko ohituretatik abiatu, eskoletan segi eta gizartean dago. Publizitatean, esaterako, emakumea objektu gisa tratatzen da. Hortaz, hezkuntzan legoke gakoa. Zigorrak ipintzea baino, prebentzioa da bidea.

**4.** Emakumeendako tratu txarrak aitortzea gogorra da. Gainera, zoritxarrez, emakumea nahiko ohituta egon da mespretxuetara, tratu txar psikologikoetara; etxeetan ere ikusi izan dugu. Emakumeak tratu txarrak salatuz gero, besteak beste, arazo ekonomikoak izan ditzake. Banatzea oso garestia da eta egoera horretan are gehiago; hortaz, hori ere emakumeon aurka dago.

## Alberto Encinas

GENERO INDARKERIAREN AURKAKO PLATAFORMAKO KIDEA

**1.** Kasuak publiko egiteak errealitatea jendearen bistan ipintzen du, ez erasoak gehitu. Eraso gogorrenak, hilketak, baino ez dira ikusten. Beste indarkeria (irainak, gutxiespenak…) ez da albiste. Horregatik, *Biolentziak hamaika aurpegi ditu* leloa aukeratu dugu aurten kartelerako.

**2.** Arrazoia aurkitzea konplexua da oso, faktore eragileak asko direlako, eta irtenbideak aurkitzeko jarduera planak, erakundeen, hezkuntzaren, justiziaren… konpromisoa behar dira. Egunero eta edozein alorretan (etxean, lanean, kalean…) ekarpenak egin daitezke.

**3.** Nahiago nuke formula magikorik balego. Gure borroka eta lana bideratu behar genuke aldarrikapenetara eta irtenbidea bilatzera. Gizarte osoaren salaketa, sentsibilitatea eta konpromisoa legoke horren atzean. Kartzela sekula ez da soluzioa, neurri bat baizik; hori bateratu beharko litzateke erasotzaileen sendatzearekin. Baina epaiketa eta epai batzuek kezkatzekoak dira. Mezua bada gizonek nahi dutelako jotzen dietela euren bikotekideei eta hil zituztela ez zekitelako zertan ziharduten, ez goaz ez bide onetik. Ulertezina eta lotsagarria da emakume bat hiltzea ze "merkea" izan daitekeen.

**4.** Emakumeek tratu txarrak salatu behar dituzte, baina bidea errazteko ardura denona da. Emakumeak dira biktimak eta erakundeek baliabideak ipini behar dituzte. Salaketa jarri eta lehenengo leku bat behar dute, ezin baitira erasotzailearen ondora itzuli. Arazoak izan daitezke afektiboak, ekonomikoak, segurtasun eta autoestimu faltarekin, beldurrarekin, erruduntasunarekin edo porrot sentipenarekin lotuak. Garrantzitsuak dira emakumeek indarra hartzera bideratutako politikak.

## Anne Agirre

BERDINTASUN TEKNIKARIA

**1.** Gaur egun hedabideetan gehiago agertzen dira eta gehiago daudela dirudi, baina beti egon da emakumea gizonen indarkeriaren menpe. Komunikabideetan emakumeen aurkako indarkeriari ematen zaion trataera ez zait batere gustatzen; ez zaio behar beste garrantzi ematen eta emakumea erabat markatzen du. Komunikabideek trataera eta hizkuntza aldatu beharko lituzkete.

**2.** Ez dago arrazoi, bakar eta absoluturik. Generoa, hainbat gizartetan, ezinbestean sexuaren gainean jartzen da. Emakumea genero bezala gizonen oso azpitik dago. Genero bakoitzari ezarri zaizkion rol, eginkizun… eta estereotipoek, arazoa areagotzen dute, bi generoen arteko aldea handitu.

**3.** Irtenbidea ez da bakarra. Arazoa konpontzeko gizarteko alor askotan eragin behar da. Emakumeen aurkako indarkeria kasuak gogor salatu behar dira, eskoletan arazo honi buruzko ideiak eta gaiak landu (generoa, feminismoa, hezkidetza…), komunikabideek behar duen garrantzia eman eta gizartea inplikatu. Genero indarkeriarekin lotutako beste ehunka gai landu behar da egunero, ez kasu bat gertatzen denean soilik. Mobilizatu, ahotsa altxa eta gizarteak arazoaren aurrean jarrera salakor eta oso gogorra izan behar du.

**4.** Inor ezin da jarri tratu txarrak jasaten dituen emakume baten lekuan, berak bakarrik daki-eta ze sufritzen den. Salaketa jartzea kosta arren, ipini behar da. Salaketa jarri aurretik debaldeko aholkularitza juridiko jarraia falta da. Emakumeei laguntza falta zaie: ekonomikoa, psikologikoa…. Kasu bakoitza ondo aztertu beharda eta dagokion trataera eman.

## Nekane San Migel

EPAILEA

**1.** Ez da erraza hori jakitea. Lehen ez zen ezer agertzen, baina horrek ez zuen esan nahi gertatzen ez zirenik. Kontua da nola ematen den berria. Horrek badu eraginik-eta.

**2.** Arrazoi asko: emakumeonganako gutxiespena oinarrietariko bat da, dudarik gabe. Horri uztar iezaiozu bortxa, indarkeria eta agintekeria harremanak eraikitzeko zutabe direla betidanik….eta, ondoren, daukaguna dator.

**3.** Oso zaila, baina agintekeriaegiturak hankaz gora botatzean, eta jenderenganako errespetoa, berdintasuna eta duintasunaren garapenean datza abiapuntu nagusia.

**4.** Tratu txar egoeran irautea baino komenigarriagoa da aurre egin, eta infernu horretatik irteteko bidean abiatu. Batzuetan salaketa penala izan daiteke, baina batek baino gehiagok dio etxebarruan tratu-txar eragilearen panpin edo objetu izatetik, emakumea prozesu penaleko objetu izatera pasatzen dela.

Ez da kontu erraza, ez horixe! Hainbeste korapilo askatu behar! Lau lerrotan, ezin.



Kultura etxeko ekitaldiaren ostean, familia argazkia egin zuten EAJko udal taldeetako kideek eta senitartekoek. IKER BARANDIARAN



Aurreskua dantzatu zieten EAJko zinegotzi izandakoei. I.BARANDIARAN



Gaur egungo udal taldeko EAJko kideak. I.B.

**Lourdes Idoiaga** > Oñatiko alkatea

## "Gobernutik kanpo ere herria berdin eraiki daiteke"

**I.B.** > OÑATI

**Lourdes Idoiaga alkatea omendu egin zuten, besteak beste, zapatuan, baina berak bere udal taldekoekin konpartitu zuen.**

**Ekitaldi berezia eta hunkigarria...**

Bai. Konturatuta nago beti alkatea agertzen dela alde guztietan. Horregatik, 30 urteotan lanean ibili direnei eta haien familiei merezitako errekonozimendua egin diegu. Horrez gain, gure artean ez daudenak gogoratzea berezia izan da. Irudikatu dugu Aloñan egongo direla guri begira lanari jarraipena egiten.

**Zelan ikusten duzu EAJ, indartsu?**

Bai. Nik uste nuen oposizioan egoteak gehiago eragingo zigula, baina ez. Jendea lanean dabil, parlamentuan proposamen asko egiten... Gobernutik bakarrik ez da lan egiten. Oposizio tinkoa, ez bakarrik kritikoa, eginda eta alternatibak emanda, herria berdin eraiki daiteke.

**Zer erronka ditu EAJk Oñatin?**

Ez dugu siglatan pentsatzen. Gure erronka nagusienak enplegua, hiriberritzea, berdintasuna eta gizarte politikak dira.

**POLITIKA** > EKITALDIA

# EAJko udal hautetsi izan diren guztiei omenaldi jendetsua

EAJren eta Oñatiren bilakaera erakutsi zuten testigantzekin eta irudiekin

**IKER BARANDIARAN** > OÑATI

Ekitaldi berezia egin zuten zapatuan kultura etxeko zinema aretoan. Trantsiziotik gaur egunera arte Oñatiko udaletxean esku hartu duten EAJko zinegotzi eta alkateak omendu zituzten.

Ekitaldian bertan horietako batzuk hitza hartu zuten, eta 1979an eta 80ko hamarkadan hartutako lehenengo erabakiak azaldu zituzten. Hala nola, kiroldegia eta industrialdea egitea, herriaren izena euskaratzea...

Horrez gain, bitxia izan zen Axun Arzuaga alargunak zinegotzi baten emaztearen ikuspuntua ematea ere.

Bestalde, EAJk eta Oñatik izan duten bilakaera azaltzeko, argazkien proiekzioa ere eman zuten. Asko eta asko hunkitu egin ziren Eli Galdos alkatea izandakoa eta beste batzuk irudietan ikusita...

**EGIBARREN BULTZADA**

Horren ostean, omendu guztiek agertokia hartu zuten eta dantzariek aurreskua eskaini zieten. Horren ostean, Lourdes Idoiagak hartu zuen hitza eta berarekin EAJko gaur egungo zinegotziak. Bukatzeko, GBBko presidente Joseba Egibarrek berbaldia egin zuen.

**INGURUMENA** > ALTERNATIBAK

# Eraikuntza jasangarriaren bigarren azoka egin dute

Oraingo edizioan urari garrantzia berezia eman dio Udalak eta ordenantza onartzeaz gain, urarekin lan egiten duten enpresak ere izan dira

**I.B.** > ESKORIATZA

Eskoriatzako Udalak gogor ekin dio aspaldian natura baliabideak aurrezteari eta gutxiago kontsumitzeko ahaleginari. Horren harira, Eraikuntza jasangarriaren bigarren azoka egin du asteburuan.

Aurreko urtekoaren alorra gehiago zabaldu, eta eraikuntza eta etxeekin lotutako produktu eta gailuak bakarrik erakusteaz gain, oraingoan jakiei ere lekua eman diete. Hala, Eko Lurrak ekarritako janari asko ikusteko, erosteko eta dastatzeko aukera egon zen. Horra hor, intxaur-saltsa egiten ikasteko aukera izan zen.

**URA AURREZTEKO ORDENANTZA**

Are gehiago, azokarekin lotuta, hainbat panelen bitartez jakitera eman dute ura aurrezteko onartutako udal ordenantza.

Pilotalekuan batutako 11 enpresei dagokionez, hainbat zerbitzu interesgarri eskaini zituzten. Eguzki plaka eta plaka termikoak ezin izan ziren falta, jakina; ezta energia aholkularitzak ere. Horrez gain, lur azpian berogailua jartzeko instalazioen gaineko informazioa eman zuten.

Urari dagokionez, berriz, euriaren ura erregadioetarako eta bestelakoetarako aprobetxatzeko aukerak; hondakin-urak edateko edo bestelako erabileretarako bihurtu (azken hori, zizareak erabilita, eta konposta ere sortuz); ur gutxiago gastatzeko bideak eta beste izan dira.



Domekan jende gehiago hurbildu zen pilotalekuan jarritako azokara. J.ARANTZABAL


A energia-kalifikazioa duten etxetresnak erosteko laguntzak daude. GOIENKARIA

**EKONOMIA** > KRISIA

# Etxetresnen salmenta bultzatu nahi dute

Jaurlaritzak +E90 plana izango du indarrean abenduaren 31ra arte, aparailu zaharrak energia kontsumo txikia dutenengatik ordezkatzeko

**M.B.** > BERGARA
Etxetresna elektrikoen arloak krisian murgilduta jarraitzen du. Espainiako etxetresna ekoizleen elkarteak egunotan jakinarazi du urrira bitartean salmentak %17,7 jaitsi zirela. Elkarte horretara 14 enpresa daude atxikita; tartean, Fagor.

Krisitik irteteko, azken hori bereziki bi arlotan ari da lan egiten: batetik, 150 milioiko finantzakostuak bere gain hartu ditu, hornitzaile eta banatzaileak laguntzeko. Bestetik, etxetresna zaharrak A energia-kalifikazioa dutenengatik ordezkatzeko beharraz kontzientziatu nahi ditu bezeroak.

**LAGUNTZAK**
Eraikuntzaren arloaren geldiuneak salmenten jaitsiera ekarri du eta orain etxetresnen parkea berritzean dago gakoa. Horren harira, Euskal Autonomia Erkidegoan energia aurrezten duten aparailuak erosteagatik laguntzak ematen ditu Energiaren Euskal Erakundeak, Etxetresna Elektrikoen Renove (+E09) planarekin.

Bakoitzari dirulaguntza zehatza dagokio. Esaterako, etxetresna zaharra A+ edo goragoko hozkailua edo izozkailua berriagatik ordezkatzen dutenek 105 euroko deskontua izango dute; A eta energia-kontsumoa 170koa edo txikiagoa duten garbigailuek ere laguntza bera dute. Plana abenduaren 31n amaituko da; edo aurrekontua bukatu arte.

**etxeko leihotik**


**Usoa Agirre** > 'uagirre@goiena.com'

## Bertako kondairak berreskura ditzagun

Joan den egubakoitzean, Antzuolan Kontxi Laskurainek liburu-denda zabaldu zuela 30 urte direla-eta, Toti Martinez de Lezea idazlea izan zen bertan. Egia esateko, harrituta geratu nintzen deialdiak izan zuen arrakastarekin; liburu-denda bete-beteta eta dozenaka lagun zeuden ilaran jarrita, idazleak liburuak sinatzeko zain. Hitzaldia ere egin zuen Martinez de Lezeak, 80 bat lagunen aurrean. Ia bi orduz jardun zuen bakarrizketa entretenigarrian.

Dena dela, hitzaldi horretan azaldutako pasarte bat ekarri nahi dut hona. Martinez de Lezeak kontatu zuen duela zenbait urte ibili zirela eskolaz eskola txotxongilo tailer moduko batzuk egiten. Tailer horietan umeak taldeka jartzen zituzten eta talde bakoitzak ipuin bat kontatu behar izaten zuen. Harritu zen Martinez de Lezea konturatu zenean umeek Euskal Herriko kondaira bat ere ez zekitela. Hansel eta Gretel, Txanogorritxu edo Loti Ederraren gorabeherak oso ondo zekizkiten, baina hemengo kondaira bat bera ere ez. Ezagutzen zituzten Tartalo eta Lamiak, baina horien gaineko ipuin bat bera ere ez.

**"Garai batean Tartalo baino hobeto ezagutzen nuen Loti ederra"**

Pentsatzen jarrita, nik ere garai batean Tartalorenak baino hobeto ezagutzen nituen Loti Ederraren nondik norakoak. Aspaldi galdu zen euskal kondairak sutondoan kontatzeko ohitura, baina hor ditugu liburuetan bilduta. Noizean behin irakur eta konta ditzagun, bada!

**> Kultura-gosea**
**Duela bi aste Antzuolako Torresoroan izan zen antzezlanean jendez lepo egon zen aretoa. Lehengoan Toti Martinez de Lezearen hitzaldian ere bete-beteta egon zen liburu-denda. Kultura-gosez gaude herrian?**

**> Zorionak!**
**Ez da erraza izango gurea moduko herri batean denda bat martxan izatea urte luzez. Are gutxiago liburuak salduta, irakurzaletasunak behera egin omen duen honetan. Sekretua Kontxik bakarrik daki. Zorionak!**

**EZBEHARRA** > AUTO ISTRIPUA

## Bergarako neska bat Zestoan hil zen zapatu goizaldean

28 urteko emakume batek auto istripua izan zuen zapatu goizaldean

**I.B.**> BERGARA
Ezbeharra zapatu goizaldean gertatu zen, 01:15 inguruan. Ertzaintzak jakinarazitakoaren arabera, ordu horretan Nissan Sunny ibilgailu bat GI-3730 errepidetik irten zen Iraeta eta Aizarna auzoen arteko bidean (Zestoa). Autoak berehala sua hartu zuen eta berau gidatzen zuen Bergarako 28 urteko emakumezkoa –autoan zihoan bakarra– horren ondorioz hil egin zen. Suhiltzaileek sua amatatu behar izan zuten, eta ordurako larrialdi zerbitzuek ezin izan zuten emakumea lagundu.

**LEKUKO BILA**
Ertzaintzak istripuaren nondiknorakoak argitzeko ikerketa zabaldu duela jakinarazi du. Hain zuzen ere, istripuaren lekukoen bila dabiltza. Horren gaineko informazioa emateko, telefonoa bideratu dute: 943 08 37 80.

> DELINKUENTZIA

### Hainbat autotan lapurretak egin zituzten zapatu gauean Aretxabaletan

Zapatu gaua eta domeka goiza bitartean Aretxabaletan hainbat autotan lapurretak egin zituzten. Gehienetan leihoa apurtu eta barruan aurkitu zutena eraman zuten. Hala jakinarazi zigun kaltetutako batek.

Horren harira, Ertzaintzak konfirmatu zigun bederatzi lapurreta eta lapurreta saiakeren denuntzia jaso zutela. Honako kaleetan izan ziren gertaerak: Iparragirre, Gorbea, Santakurtz, Errekabarren, Iralabarri, Otalora eta Loramendi, hain zuzen ere.


NORABIDE BAT
KOOPERATIBA
TALDEARENTZAT
Arizmendi Topaketak 09
azaroak 26 - 18:30
Mondragon Goi Eskola Politeknikoa
Biteri Egoitza Nagusiko aretoa
Arrasate
Bat-bateko itzulpena egingo da.
Gizabidea Fundazioa

**KRISIA** > DIAGNOSIA

# Datu hobeak eman ditu urriak, baina krisiak oraindik luze joko du

Gipuzkoaren Barne Produktu Gordina igo egin da urrian (%0,3), inguruan ez bezala; bederatzi hilabeteotan lehenengo datu positiboa izan da

**GOIENKARIA** > BERGARA
Ekonomiaren gaineko albiste eta balorazio desberdin eta, batzuetan, kontrajarriak egin dituzte egunotan adituek eta ordezkari politikoek. Horren ondorioa da, ekonomia datu positiboak egon arren, kontu handiz hartu behar direla eta krisiak oraindik gogor jotzen jarraituko duela.

Balorazio baikorrenen artean dago Ekonomia sailburu Carlos Agirrek joan den astean egin zuena, urteko hirugarren hiruhilekoan Gipuzkoaren Barne Produktu Gordina (BPG) %0,3 igo zela jakinarazita. Agirrek nabarmendu zuen bederatzi hilabetean izan den lehenengo halako datu positiboa izan dela, eta are esanguratsuagoa da kontuan hartuta Gipuzkoak izan duela igoera bakarra EAEn (Bizkaiarena %0,2 jausi da, eta Arabarena, %0,4).

Hobekuntza horren zergati nagusia da administrazio publikoek %1,9 gehiago gastatu dutela ekonomia sustatzeko; eta, bestetik, kanpo merkataritza %1,5 igo dela. Baina jausten jarraitzen dute etxeen kontsumoak (-%0,7), barne kontsumoak (-%0,3) eta inbertsioak (-%0,1). Agirrek berak industriaren jokaera hobea txalotu eta azpimarratu zuen.

**ENPRESEN %40K, ZAILTASUNAK**
Hainbat adituk ohartarazten dute, baina, krisiak oraindik luzerako bizi-iraupena duela. Horren argibide, asteak utzi dituen beste zenbait datu: esaterako, industriarekin jarraituta, Gipuzkoako enpresaburuen elkarteak, Adegik, jakinarazi du Gipuzkoako enpresen %40k oraindik "finantza zailtasunak" dituztela. Hori ikusita, egunerako, hilak 26, Gipuzkoako ehun bat enpresarekin batzarra egingo du Adegik, zorra birfinantzatzeko dituzten baliabideak eta laguntzak azaltzeko.

Enplegu Sailak jakinarazitako datuen arabera, Euskadin urtarrilaren 1a ezkero EREarekin egon diren langileen %75ek egoera horretan jarraitzen zuten urrian. Denetara, 54.086 langilerendako aldi baterako EREak onartu ditu Jaurlaritzak, eta langile horietatik 40.448k EREpean jarraitzen dute. Zentzuzkoa da aurreikustea lanpostu gehiago deuseztatuko direla datorren urtean, behin-behineko EREak bukatzen diren neurrian.



Besteak beste, energia berriztagarrien gaineko proiektuak aurkeztu ahal izango dira; irudian, Eskoriatzako xaflak. I.BARANDIARAN

**LANA** > +EUSKADI 09 PLANA

# Bihar dira onartzekoak udalek langabeak hartzeko laguntzak

Debagoieneko udalek 2010a bukatu arte eskatu ahal izango dituzte fondo publikoak, proiektu berriak egiteko langabeak kontratatzeko

**LEIRE KORTABARRIA** > BERGARA
Bihar, martitzena, onartzekoa da Eusko Jaurlaritzak Euskadiko udalek eta gizarteratze enpresek langabeak kontrata ditzaten ahalbidetzeko programa abian jarriko duen agindua. Aurreikuspenak betetzen badira, agindua Euskadiko Agerkari Ofizialean argitaratu eta aurten bertan eskatu ahal izango dituzte dirulaguntzok Debagoieneko udalek. Dirulaguntza programa hori +Euskadi 09 izeneko programaren barruan iragarri zuen Eusko Jaurlaritzak irail hasieran, eta helburua da udalek eta gizarteratze enpresek 7.000 langabe kontratatu ahal izatea. Horretarako, 63 milioi euroko fondoa sortu du Eusko Jaurlaritzak.

Abian ipintzen denean, momentu horretatik hasi eta datorren urteko edozein unetan aurkeztu ahal izango dituzte proiektuak onuradunek. Hiru hilabete eskas hauetan, udalek pentsatu ahal izan dute ze premia izango duten datorren urtean; izan ere, partidak onartutako proiektuen arabera banatuko ditu Jaurlaritzak.

**PROIEKTU BERRIAK**
Lanpostua galdu duten eta langabezia prestaziorik edo dirusarreren berme errentarik gabe dauden langabeak bakarrik kontratatu ahal izango dira. Kontratu bakoitzeko, hileko 1.500 euro jasoko dute udalek, soldata eta Gizarte Segurantza kubritzeko. Egun osoko eta, gehienez, urte erdiko kontratuak izango dira.

Udalek ezingo dute ohiko lanerako kontraturik egin; proiektu berriak izan beharko dute teknologia berriekin, energia berriztagarriekin… lotuta.

**ENPLEGUA** > LANGABEZIA

# Arrasateko INEMen bulegoak berdin jarraituko du lanean urtarrilaren 1ean

Bertan behera geratu da enplegu aktibo politikak Espainiako Gobernutik Eusko Jaurlaritzara pasatzeko prozesua

**L.K.** > ARRASATE
Luze itxoin beharko dugu oraindik Lanbide, Euskal Enplegu Zerbitzua abian ikusteko. Edozein modutan, oso zail ematen du urtarrilaren 1a izatea Lanbide jaioko den eguna, arduradunek iragarri zuten moduan. Horrek esan nahi du, oraingoz eta, seguruenik, luzaroan, Madrilek jarraituko duela enplegu eskumen pasiboak eta aktiboak, denak kudeatzen, INEMen bidez, eta Arrasateko INEMen bulegoan ohi bezala jarraituko dutela lanean. Joan den astean, Lan eta Immigrazio Ministerioak baieztatu zuen eskumenak ezin izango direla garaiz transferitu. Asmoa zen Lanbidek enplegu politika aktiboak har zitzala, eta INEMek jarrai zezala pasiboak kudeatzen. Baina dena ezerezean geratu da, oraingoz behintzat.

Arrasaten dihardutenINEMeko arduradunek diotenez, "garbi esan zuten hasieratik urtarrilaren 1a izango zela data"; eta CCOOk horri eusten dio oraindik". Data alde batera, zerbitzua zelakoa izango zen "denetarik entzun" dutela esaten dute arduradunok. Hori bai, urtarrilaren 1a ailegatzen denean, erabiltzaileak dena berdin topatuko du Arrasateko INEMen bulegoan eta, oro har, administrazioek lan eta enplegu kontuak kudeatzeko moduari dagokionez.

**ENPLEGU POLITIKA AKTIBOAK**
Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu politika guztiak Espainiako Gobernuaren esku daude. Asmoa zen urtarrilaren 1ean Eusko Jaurlaritzak har zitzala politika aktiboak –enplegua sortzeko egiten diren ekintza guztiak–, eta Madrilek jarrai zezala politika pasiboak –langabezia, baja eta baliaezintasun prestazioak ordaindu– eramaten, INEMen bidez.




*Fermin Etxegoienen lehen eleberri honetan mundu garaikidea ageri da, errealismoz erakutsia. Protagonistak lan egiten du herri bateko kooperatiban, eta zenbait tramaren erdian aurkituko du bere burua. Esperientzian oinarrituriko literatura da, egungo familia zein laneko bizipenak jasotzen dituena...*

PAMIELA
www.pamiela.com

auzorik auzo

**UNTZILLA** > Gipuzkoatik gertuen dagoen Aramaioko auzoa da Untzilla. Murugain eta Asentzio mendien magalean dago; eta Untzillatik, Anboto, Aloña, Kurtzebarri... ikusten dira. Han izan gara bertako gorabeherak ezagutzen.



Jose Luis Beitia, Untzillako plazatxoan, atzean Kurtzebarri duela. A.E.

**Jose Luis Beitia** > Untzillako auzo-alkatea

# "AHT Asentzio azpitik pasatzen da eta Untzillan ura handik jasotzen dugu"

ARANTZAZU EZKIBEL > ARAMAIO

**Untzillako Arragena baserrian jaiotakoa da Jose Luis Beitia eta azken hiru urteetan da auzo-alkate. Auzotarrak ekaineko lehenengo astean elkartzen direla azaldu digu, urteko gorabeherak azaltzeko. Auzoko egoera azaldu digu Beitiak.**

**Hainbat etxebizitza egin dira azkenaldian. Auzoa egoera onean dagoela esan daiteke?**

Suina eta Muru kontuan hartuta 24 etxebizitza daude auzoan, gutxi gorabehera 80 bizilagun. Orain arte etxeak egiteko lurrak egon dira eta itxuraz jendeak auzora etortzeko gogoa badauka. Alde horretatik ez dugu arazorik ikusten.

**Asentzio azpitik pasatuko da AHT. Hori dela-eta, urarekin zer gertatuko den kezkatuta zaudete?**

Orain dugun kezka hori da. AHT Asentzio azpitik pasatzen da; eta, hain zuzen, guk ura handik jasotzen dugu. Orduan, hura zela geratuko den kezkatuta gaude. Ura handik hartzen jarraituko dugun edo ez da kezka. Guk azaldu dugu gure kezka eta uste dut Udalak egin beharrekoak egingo zituela.

Ura faltaz gero, beste nonbaitetik hartuko genuke; baina gure ura beti hori izan da, eta ur faltan egotea arazoa izango litzateke, animalientzat, besteak beste.

**Zabola eta Azkoagako bizilagunekin batera hainbat alegazio jarri dizkiozue trenari.**

Bolinburun PAET bat egin dute. Horren gaineko alegazioa jarri genuen, zarata handia aterako duelakoan; baina dagoeneko egin dute eta ez dauka atzera bueltarik. Bestalde, eskatu dugu basoko pistak lehen zeuden moduan uztea. Gainera, lanekin dabiltzan bitartean errepidean nahiko larri ibiltzen gara.

**Urrian, Errosario jaiak ospatzen dituzue. Zer egiteko ohitura duzue?**

Urriko lehenengo domekan ospatzen ditugu jaiak. Aste bukaera guztirako ekitaldiak egiten ditugu: bertso-afaria, meza, luncha, boloak... Domekan, adibidez, meza ondoren bermut-dantza egiten dugu. Antzinako ohitura da, zerbait hartzen dugun bitartean erromerian dantzan ibiltzea.

**Garai batean auzoan eskola zegoen. Noiz utzi zion eskola izateari?**

Orain dela 35 urte eskolak emateari utzi zioten; hala, Aramaiora joaten hasi ginen. Gero-ra, eskola izandako lokalean elkartea egin dugu. Orain dela 10 urte egin genuen, auzo-lanean.

Elkarteak balio digu auzotarrak batzeko; arazoren bat dagoenean bakarrik biltzen gara, eta baita ekaineko lehen astean urteko batzarra egiteko ere.

**Inguru zoragarrian dago Untzilla. Ze ibilaldi egiteko aukera ematen du?**

Arrasate alderantz, Murugain ingurura joan daiteke. Beste aldera, Asentziotik Kurtzetara. Egia esan, jende asko ibiltzen da mendian inguru honetan.

Bestalde, Untzillatik inguru ederrak ikusten dira: Anboto, Aloña, Kurtzebarri...

PERTSONAIA

## Micaela Portillak Untzilan hasi zuen irakasle ibilbidea

Untzillako Errosario Ama Birjina elizako atarian Micaela Portillaren omenezko plaka dago. Auzoko irakaslea izan zen Portilla; eta ordutik hona alaba kuttuna da auzoan. Bada, 2005ean Portilla hil zenean haren omenezko plaka jarri zuten elizaren atarian.

1922an jaio zen Micaela Portilla, Gasteizen. Euskal Herriko historia eta antropologo garrantzitsuenetarikoa izan da. Ibilbidea irakasle moduan hasi zuen; hain zuzen, Untzillan, 1945ean. Horregatik dute gogoan Portilla irakaslea eta horregatik jarri zioten haren omenezko plaka elizaren atarian.

ASTELEHENEKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Harpidedunen txokoa
Azaroko zozketa

Sariak irabazteko
HARPIDETU!
Tel.: 943 08 10 50
*harpidetza@goiena.com*
Kuota: 20 euro

ATE JOKA ANTZEZLANERAKO SARRERAK
ELGETAKO espaloia KAFE ANTZOKIA
Bidali AG ESPALOIA
[Harpidedunaren izena]
5533 zkra.



UMEENTZAKO LIBURUAK
PAMIELA argitaletxea
Bidali AG LIBURUAK
[Harpidedunaren izena]
5533 zkra.



SASKIBALOI PARTIDURAKO SARRERAK
Bidali AG BASKET
[Harpidedunaren izena]
5533 zkra.



EUSKAL SELEKZIOKO ZIRA
EKFB
Bidali AG ZIRA
[Harpidedunaren izena]
5533 zkra.



SARI NAGUSIA
IRAILA-AZAROA
PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA

ORDENAGAILU ERAMANGARRIA



AHTEC NETBOOK LUG N011
**Sistema eragilea:** Ubuntu Linux.
**Prozesadorea:** 1.6Ghz Intel® Atom N270 Diamondville (533Mhz/512Kb).
**Memoria:** 1024MB DDR2 533Mhz (1x1GB).
**Disko gogorra:** 120GB 5400RPM SATA.
**Pantaila:** 10" pantaila TFT WSVGA LED.
**Bermea:** Hiru hilabeteko Standard3 Netbook bermea.
Backlight, Webcam, Wireless, Bluetooth.

Laskar Informatikaren eskutik
- Partikular eta enpresei laguntza teknikoa
- Harreman eta ikerketa pertsonalizatua.
- Informatika eta teknologia berrien produktuak.

Etorri eta ikusi gure eskaintza eta promozio guztiak!

SMSaren kostua: 0,60 euro + BEZa dei bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: *harpidetza@goiena.com*

Legazpiko Aitziber Gine psikologoa eta psikoterapeuta da. Alor asko lantzen ditu, baina azken aldian hirugarren eta laugarren adinekoekin lan handia egiten dabil. Laugarren adinekoak gehiago zaindu eta eurekin harreman handiagoa izatea aholkatzen du. Pertsona nagusiei duten balioa eman eta haiengandik ere ikasten ahalegintzen da Gine.

**Aitziber Gine** > Psikologa eta psikoterapeuta

# "Gazteok konturatu behar gara etxeko nagusiekin gehiago egon behar dugula"



Aitziber Gine psikologo eta psikoterapeuta Legazpin daukan kontsultan. GOIENKARIA

**IKER BARANDIARAN** > BERGARA

**Aitziber Gine psikoterapeuta Bergaran izan zen orain dela gutxi pertsona nagusiekin zelan komunikatu azaltzen. Berbaldi hori Bizikasik eta pertsona nagusiei laguntasuna ematen dien erretiratuen Nagusilan elkarteak antolatu zuten.**

**Pertsona nagusiek komunikatzeko premia handia dute?**

Bai, baina komeni da bereiztea hirugarren adina, hau da, 65 eta 80 urte bitarteko tartea; eta laugarren adina, hortik gora dagoena. Hirugarren adinekoak asko ikusten dira kalean, pasioan, ilobekin, lan boluntarioak egiten... Oso aktiboak dira eta presente daude gure gizartean. Laugarren adinekoak, berriz, galduago eta ahaztuago daude gizartearen aldetik. Gainera, mendekotasun handiagoa dute.

**Eta zeintzuk dira horien premia nagusienak?**

Batez ere entzunak izatea eta eurekin berba egitea. Horrez gain, oso garrantzitsua da galtzen dutenari baino oraindik dutenari balioa ematea. Adibidez, kalera irten ezin badira eta janaria prestatzeko gai badira, azken horri balorea ematea. Horrez gain, eurekin komunikazioa ona izateko ezinbestekoa da lehenengo eurei dituzten kezkak-eta entzutea; eta horren ostean, guk buelta eman edo dagokiguna esan. Aurretik, entzuten ez badiegu, ez dute guk esandakoa kontuan hartuko.

**Zer da gehienetan komunikatu gura izaten dutena?**

Batez ere euren sentimenduak, dituzten pentsamenduak eta izandako bizipenak. Horrekin batera, asko gustatzen zaie egunerokotasunari garrantzia eman eta hori kontatzea. Eta, baita ere, guk kontatzea egunerokotasuneko kontuak, gertuko albisteak... Horiek oso gustuko dituzte.

**Zer da pertsona nagusiek eurekin lan egiterakoan eskatzen dizutena?**

Batez ere eurei entzutea. Gura dutena da norbaitek entzutea eta pertsona horiek ondoan sentitzea. Eta, baita ere, beraiek kontuan hartzea.

**Eta zer ematen dizute zeuri trukean?**

Maitasun handia ematen dute. Bizitzan esperientzia eta bizipen asko izan dituzte, eta asko ikasi daiteke eurekin. Nik horri balorea ematen ikasi dut. Gazteek freskotasuna, inprobisazioa... dituzte alde; eta nagusiek, berriz, lasaitasuna, patxada, entzuteko gogoa...

**Nori zuzenduta daude pertsona nagusiekin zelan komunikatu ikasteko berbaldiak?**

Edozein herritarrendako dira. Hala ere, berbaldietara etortzen direnetako asko zaharrekin lan egiten duten boluntarioak dira eta baita pertsona nagusiak etxean dituztenak ere. Zailena da dementziak dituztenekin komunikatzea; hor dago arazo handiena.

**Komunikazio gabezia handia dago gizartean?**

Baietz uste dut. Norbera gure kasa ibiltzeko joera daukagu eta tarte gutxi hartzen dugu hitz egiteko; are eta gutxiago, gutaz berba egiteko. Gainera, nik uste dut gazteok hausnarketa egin behar dugula familian hartzen dugun paperaren gainean, familiako nagusiekin gehiago egoten ikasi behar dugu.

HARRERA

**"Nagusiak ez dira koitaduak ezta umeak, pertsonak moduan hartu behar dira, errespetuz"**

ENTZUTEN JAKIN

**"Nagusiei aurretik entzuten ez badiegu, ez dute gero guk esandakoa kontuan hartuko"**

BALIOAK

**"Nagusiek lasaitasuna, patxada eta beste balio garrantzitsuak dituzte, baloratu beharrekoak"**

**Askotan esaten da pertsona nagusiendako gazteez inguratuta egotea oso onuragarria dela. Hala da?**

Bai, egia da. Eurek, nagusiek, oso gustuko dute hori. Umeekin oso gustura egoten dira eta baita gazteekin ere. Horri esker, aspaldiko bizipenak gogora ekartzen dituzte eta modu berean buru barruan dituzten artxiboak mugitu eta gauza asko berriro gogoratzen dituzte. Gainera, ziurtzat har daiteke nagusiak askoz hobeto konpontzen direla ume eta gazteekin, euren seme eta alabekin baino; beste harreman mota bat da..

**Zer lortu dezakegu komunikazioa hobetuta?**

Batez ere pertsonen sentimenduak azaltzea, entzunak direla sentitzea, besteei entzutea, besteen iritziak errespetatzea, asertibo izatea... Eta hori guztia errefortzua da: horrek ekartzen du hurrengoan ere berriro kontatzea eta ondokoarekin *feed back*-a izatea. Hala, pertsona nagusiek irudimena gehiago landuko dute, eta konfidantza hartuko dute hurrengoan galdetzeko eta zerbait gustatzen ez bazaie, esateko. Horrek autoestima hobetzen du.

**Gaur egun badakigu entzuten?**

Bai, jakin badakigu, baina falta zaigu entzuten jartzea; ez diogu horri behar duen garrantzia ematen, eta horregatik ez dugu praktikan jartzen. Eta nagusiek horretan asko lagundu gaitzakete.

**Zer da ezinbestekoa kontuan hartzea pertsona nagusiekin aritzerakoan?**

Pertsona moduan ikustea; ez ume moduan eta ezta beste konnotazio batzuekin, errespetuz. Eta argi izan behar da ez direla koitaduak, bizitzaren etapa jakin baten daudenak, baizik.


Kutxa Inbertsio Irtenbideak
6+ Gordailu berria
6a maite duzuenok, ongi etorri.
Hemen duzu 6+ Gordailu berria, zenbait enpresa liderren baloreekin heineratua, zure inbertsioa bermatu eta errentagarritasun handia eskuratzea ahalbidetzen dizuna.
zer nahi duzu bihar?
www.kutxa.net
kutxa

## kale inkesta

# Zer iruditzen zaizu Espainiako Vuelta berriz ere Euskal Herriko errepideetatik pasatzea?



**Jose Luis Fernandez**
Langilea
Oñati

Erraza da esatea orain arte politikagatik ez dela Vuelta hona etorri. Baina berriz ere ekartzen badute arrazoia politikoa izango da hein batean. Kirol ikuspegitik? Kontu hau ezin da aztertu politikatik aparte.



**Mitxel Mujika**
Langilea
Oñati

Bazterrak nahasteko gogoa dute. Zergatik ez segi orain arte moduan? Bakoitzak antola ditzala bere probak. Aurten Holandan hasi dela? Bai, baina hona ekartzearen atzean PPren eta PSOEren asmoak daude.



**Eneko Gonzalez**
Langilea
Oñati

Ez da kontu erraza. Berez ez luke zalapartarik eragin beharko. Tourra pasatu da hemendik eta ez da ezer gertatu. Baina ongi iruditzen ez zaidana da erabiliko dutela adierazteko hau Espainia dela.



**Elias Mujika**
Langilea
Oñati

Ez nuke arazorik ikusiko Vuelta Euskal Herrira etortzeko. Baina baliteke batzuek bestelako erabilpena egiteko interesa edukitzea. Kirol ikuspegitik ongi irudituko litzaidake Vuelta hemendik pasatzea.

## irakurlearen txokoa

# 943 25 05 05

goienkaria@goiena.com

OÑATI
**> Udal zerbitzuei buruz egindako inkestaren berririk ez**

Apirilean Gizaker enpresak udal zerbitzuen gaineko inkesta egin zuen herritarren kexa eta aholkuekin arazoak konpontzen saiatzeko. Zenbait hilabete pasatu eta irakurle batzuk kexu dira emaitza horien berri ez delako eman momentuz, eta jakin gurako lukete ea erakunde publikoek asmorik duten inkestaren emaitzak zabaltzeko. Kontuan hartzekoa da Foru Aldundiaren ekimena izan zela eta hasierako asmoa ekainetik aurrera emaitzak ezagutzera ematea izan bazen ere, oraindik ez dela ezer jakin.

ARETXABALETA
**> Autoetan egiten dabiltzan lapurretez ohartaraziz**

Irakurle bat txoko honetaz baliatu da herritarrak jakinaren gainean jartzeko Aretxabaleta inguruan eta zehazki Urkulu urtegian geroago eta lapurreta gehiago dabiltzala egiten autoetan. Asteburuan bertan Aretxabaletan bertan hainbat autotan gertatu da hori eta dio "gauza jakina" dela Urkulun ere "behin eta berriro gertatzen" dela. Herritarrak kontuz ibiltzeko deia egin gura du irakurleak.

ARRASATE
**> Baserritarren azoka zapatutan, ekimen polita**

Irakurle batek orain arte hilean behin egin den zapatutako azoka txikiaren bultzatzaileei eskerrak eman gura dizkie astean zehar ez duen aukera, asteburuetan ematearren.

## usteak uste

**Irati Agirreazaldegi**

# Zaintzeko ala gogaitzeko?

Udaltzainen harira bada mila kezka eta beste hainbeste protesta. Baina euren lana beti kexatzeko modukoa ezta.

Garagartzako ortuak aurkitzeko alperrik dira hainbat galdera eta aitzaki, hara joan behar duenak nola iritsi aurrez badaki.

Nik ez jakin, ordea. Eskerrak, udaltzainek ireki zidaten bidea. Galduta ibiltzea edo eskoltatuta joatea ez da dakit zer den hobea.

Udaltzainei, eskerrik asko, euren lana ez izan arren hara lagundu zidatelako.

Batzuetan ipintzen dute makina bat multa eta halakoetan beti ez da gidarien errua edo kulpa.

Hortaz, onak eta txarrak pisatuz gero, maila bertsuan legoke balantza, herria zaindu beharraren aitzakian batzuetan ona dena besteetan txarra da antza.

Nik behintzat hala dut uste, udaltzainek ere on edo txar eman dezakete hamaika ezuste.

## zorroztailea



**Joxemari Muxika**

# Jabetza eta banaketa

"Imajina ezazu osasuna, ongizate-gizartearen berme eta eskubide izan beharrean, negozio bihurtua Euskal Herrian, merkatuko legeen menpe. Neoliberalismoak, jada, halako kasu ugari sustatu ditu inguruan, pribatizazioaren eskutik."

**'Gaixoak enkantea'**
Argia > 2009-11-22




Gizarteari eragiten dioten zerbitzuak publikoak behar dute izan eta gaizki ikusia dago besterik esatea. Zergatik eskatzen da jarduera bat publikoa izatea? Ongizate-gizartearentzat bermea delako? Gastu txikiagoarekin emaitza hobeak lortzen al dira? Egiteko modua eraginkorragoa al da? Ez da hain segurua.

Edozein erako antolakuntza duen zerbitzua izan arren, jardueraren emaitza kalitatezkoa izateko eskatzea ezinbestekoa da eta ez dut uste hain argi dagoenik zerbitzu publikoak pribatuak baino hobeak direnik.

Beste gauza bat da jarduera publikoa denean diru-irabaziak ere publikoarenak direla eta jarduera pribatua denean, ez. Hau bada arrazoia, hitz egin eta kontrola dezagun emaitzen banaketa nola egin, diru-emaitzen banaketak ez baitauka jabetzaren araberakoa izan behar ezinbestez. Jabetzaren eredu hegemoniko hori gainditu beharrekoa da.

Alda ditzagun gobernantza ereduak eta arau dezagun banaketa, zenbat dagokien horretan lan egiten duten pertsonei, zenbat erabili inbertsioetarako eta zenbat itzuli gizarteari zerga bidez. Arautze hau da erakunde publikoen egitekoa, eurena baita justizian oinarritutako ongizate-gizartea bideratzea pertsona guztiak kontuan izanik. Beste gizarte eredu batean erakunde publikoak ez lirateke jardueren erantzule zuzenak izango, autoeraketaren bidea lehenetsiz.

> **"Arautu dezagun banaketa, zenbat dagokien langileei, zenbat erabili inbertsioetarako eta zenbat itzuli gizarteari zerga bidez"**

Jarduera guztiak izan behar dute modu eraginkorrean kudeatuak: denporapasak, alperrikako lanak edo etorkizuna zalantzan ipintzeak erabakiak garaiz hartu ez direlako, ez dauka lekurik.

Jarduera mota guztiek eragin soziala dute eta kudeatzaileek gizarteari kontuak ematera derrigortuak beharko lukete. Erakunde publiko, merkantila edo soziala izan, gizarteak kontuak eskatu behar dizkie, ez baita bidezkoa pribatua denaren aitzakia erabiliz azaldu nahi ez diren operazioen ezkutaleku izatea. Gainera, estaturik ez duen herri bat garatu nahi dutenen aldetik zentzu gutxiago hartzen diot jarduera publikoa eskatzen aritzeari beste batzuk jarritako legepean denean. Jendarte eredu berri bat garatzeko ez dago jardueraren jabetza estatuaren eskuetan jarri beharrik.

ASTELEHENEKO Goienkaria

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Iker Barandiaran **Erredakzioa** Julen Iriondo, Jon Berezibar, Irati Agirreazaldegi **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Diseinu arduraduna** Iñaki Iturbe **Maketazioa** Kepa Martelo **Publizitate arduraduna** Mireia Larrañaga **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazio arduraduna** Agurtzane Gaintzarain

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-0088/04 • **ISSN:** 1697 3542 • **Tirada:** 5.000 ale • **Difusioa:** 4.383 ale

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

ASTELEHENEKO GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA orrialdean edo kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

# Herriak

**Arrasate** > 14 **Bergara** > 16 **Oñati**> 18 **Aretxabaleta** > 19 **Eskoriatza** > 19
**Antzuola** > 20 **Aramaio** > 20 **Elgeta** > 20 **Leintz Gatzaga** > 20




**> AED**
25. urteurreneko diskoari merezi zuen aurkezpena egin zioten **> 15**



**> ESKORIATZA**
Udalak kiroldegiko sotoan dauden 18 garaje alokairuan jarri ditu **> 19**



**> ARAMAIO**
Urtarrilaren 13an epaituko dute Asier Agirre alkatea AHTko galdeketagatik **> 20**

**ARRASATE** > NEKAZARITZA

## Garagartzako ortuen jabeek bertatik bertara ezagutu dituzte lur zatiak

**EKOLOGIKOAK**
Ortuak modu ekologikoan landu behar dituzte



Udaleko eta Landa Garapen Elkarteko ordezkariek bisitatu zituzten ortuak jabeei txartelak eman aurretik. JOSETXO ARANZABAL

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ARRASATE

Goizean goiz zabaldu zituzten zapatuan Garagartzako ortu ekologikoetako ateak. Hauek bisitatzen lehenak Ino Galparsoro alkatea, Izadi Mondragon Garapen Estrategikoko zinegotzia, Iñaki Aiastui eta Mari Karmen Iturbe Landa Garapen Elkarteko presidentea eta teknikaria, eta Udaleko ingurumen teknikari Rafa Ugarte eta Pello Garai izan ziren.

Ortuetan barrena ibilbidea egin ahala urarendako aska bat ikusi zuten; horrelako lau ipini dituzte, ortuen maila bakoitzeko bat, eta ondoan iturri bana dute.

87 baratz, 50-55 metro koadro artekoak; horietatik zazpi Udalarenak. Guztira futbol zelai erdiaren azalera.

**TARTEKIA**

Lehenengo askaren azpian gune bat ipini dute konposta, sahatsa edo aurrerago beste material batzuk edukitzeko. "Lur analisia egin eta ikusi zen zuzenketa organikoa egin behar zela; zizare humusa edo konposta erabiltzeko aukera zegoen eta Udala arduratuko da hortaz; gero, ortu jabeek sortzen duten belarra moztu, xehatu eta berrerabili beharko dute", azaldu zuen Rafa Ugartek.

Simaurra erabiltzeko aukera ere aztertu dutela esan zuen Pello Garaik: "Lortzea, manipulatzea, usaina… zaila da. Arrasate inguruan ez dago ganadutegirik eta simaurra daukatenek etxerako erabiltzen dute. Jatorriari ere erreparatu behar zaio. Izan ere, nekazaritza ekologikorako izanik purinarik… erabili duten".

Hala ere, egindako analisiek lurraren kalitate ona ziurtatu dute. "Lurra oso emankorra da. Inoiz baratzak edo soroak izan ziren; obrak egiteko lur hori guztia pilatu egin zen eta gero berriz bota zen gainean, hortaz, zorionez, lurra ganorazkoa da", dio Garaik.

Lurrak lantzeko, ordea, tresnak beharrezkoak dira eta horiek erabiltzaileen eskura ipini ditu Udalak egoki gertatutako txabola batean: Erremintendako gela, aldagelak, takilak eta komunak.

Nahi dutenean hasi ahal izango dira erabiltzen, txartela zapatuan eskuratu baitzuten ortuen jabeek. Adin askotako jendea gerturatu zen Garagartzara eta lanean hasteko gogoa suma zitekeen euren aurpegietan. Gurasoekin batzuk, seme-alabekin besteak, bakarrik… baina denak euren lur zatia ikusteko irrikaz.

**ORTUEN ARAUDIA**

Baratzak modu ekologikoan landu behar dira eta horretarako Udal teknikarien eta Biolur elkartekoen eskutik ikastaroa jaso dute ortuen jabeek. "Azaldu zaie zer den nekazaritza ekologikoa, zein produktu eta teknika erabili behar diren… Euren etxerako produktuak badira osasuntsuak izan behar dira, hortaz, eurendako ere hobe da pestizidarik ez erabiltzea", dio Garaik.

Izadi Mondragon zinegotziak esan zigunez, asmoa zen herrian barrena zeuden beste ortu batzuk kentzea, baina 80 orturekin ez da nahikoa, hortaz, lan taldeetan araudi egokia gertatzea izango da hurrengo pausoa.

Txartela eskuan belarrak eta harriak kendu eta udaberrirako gertatzea izango da gehienen asmoa, batzuek ilarrak, baba beltzak, kipulak edo berakatzak landatzeko gertu badauden arren.

ERABILTZAILEAK



**Angel Alvarez**

Lehen ortua nuen Makatzenan eta honek aldaketak ekarriko dizkit, ezin baita lehen botatzen genuenik erabili. Hala ere, txukun gertatu dute, eta ahal dela egunero etorriko naiz. Askotariko barazkiak landatuko ditut.



**Felix Martinez**

Aitaren etxean banuen ortua eta modu ekologikoan jarduten genuen, etxeko simaurrarekin; orain animatu naiz asteburuetan denbora pasatzeko eta barazki freskoak izateko. Epe motzean hasten direnak landatuko ditut.



**Eugenio Etxebarria**

Hasi berria naiz, baina ingurukoekin eta ibilian ikasiko dut. Aurrejubilatua naiz eta eguna betetzeko modu bat izango delakoan hartu dut. Arratsaldetan etorriko naiz eta sasoiko barazkiak landuko ditut etxekoekin banatzeko.



**Mari Carmen Goñi**

Baneukan ortu txiki bat Gesalibarren baina asko gustatzen zait baratzean ibiltzea eta horregatik hartu dut hemengoa. Lehenbailehen etortzeko asmoa dut, kipulak landatzera; gero tomateak, lekak… sartuko ditut.



**Nerea Altuna**

Nekazaritza ingeniaritza teknikoa ikasi dut eta nekazaritzaren gaineko ikastaroak egin ditut. Beti gustuko izan ditut kontu horiek eta aisialdirako aprobetxatuko dut. Orain, ortua gertatu eta udaberrian barazkiak landatu.

**BERGARA** > GASTRONOMIA

# Gure Ametsakoak irabazle patata eta bakailao lehiaketan

Bergarako San Antonio auzora jendea erakarri zuen zapatu eguerdian Patata Feriak



Gure Ametsa elkarteko Alfredo Mansok eta Angel Garitanok gertatu zuten lehiaketarako jateko onena; Lasai Tokikoen eta Umore Onakoen aurretik. JOSETXO ARANZABAL



Sukaldariak fin ibili ziren janaria prestatzen eta banatzen. J.A.



Patatarekin lotutako askotariko osagaiak erosteko aukera izan zen azokan. J.A.

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > BERGARA

Patatari eta bere kontsumoari buruzko ikerketak eta esperimentuak egin zituen Rafael Garitano-Aldaeta Santa Marina Parrokiako abade izanak. Haren omenez, hirugarren urtez antolatu du Gure Ametsa elkarteak Patata Feria.

Zapatu eguerdian San Antonio auzora gerturatu orduko, jateko usaina eta musika ziren jai giroaren erakusle. Patata, gazta, kontserbak, pastelak, hestebeteak jatekoen artean; eta egurrez, artilez eta larruz egindako artisau lanak beste hainbat postutan.

Batzuek begira eta erosketak egiten eta besteak lanean. Umore ona, Gure Ametsa, Lasai Toki, Zuloa, Artatse eta San Migelpe elkarteetako sukaldariek patatak gertatu zituzten bakailaoarekin lehiaketarako. Patataren kofradiako presidente Isidro Urtzelaik eta Arabako Patataren Udape elkarteko Javier Paskuarenak osatu zuten epaimahaia eta Gure Ametsa elkarteko Alfredo Manso eta Angel Garitano izan ziren irabazle. Lasai Toki izan zen bigarren eta hirugarren Umore Ona.

**NAFAR FERIA**

Azokako parte-hartzaile guztiek, 40 lagunek, Gure Ametsa elkartean Marmitakoa janez egin zuten bazkaria gero.

Patata Feriaren ostean, ordea, bada beste hitzordurik. Gure Ametsa elkartekoak Nafar Feria gertatzen hasiak dira eta abenduaren 19an izango da.

**ANTZUOLA** > LITERATURA

# Toti Martinez de Lezea idazlea, Itzar liburu dendan

Kontxi Laskurainek liburu denda zabaldu zuela aurten bete dira 30 urte

**USOA AGIRRE** > ANTZUOLA

Ez da ez nolanahikoa Toti Martinez de Lezea idazleak duen arrakasta. Antzuolako Itzar liburu dendak 30 urte bete dituela-eta, hango Kontxi Laskurainek gonbidatuta, hitzaldia egin zuen egubakoitzean dendan. Berbaldiaren aurretik eta ondoren liburuak sinatzen egon zen eta makina bat zale gerturatu zitzaion.

Gero, 80 lagunen aurrean bi orduz egin zuen berba bere idazle ibilbidearen, bere liburuen eta baita kritiken gainean ere. Amaieran jakinarazi zuen datorren astean argitaratuko dela *Nur*-en hirugarren liburua eta otsailean hurrengo eleberri historikoa.



Itzar liburu dendako Kontxi Laskurain eta Toti Martinez de Lezea. USOA AGIRRE



Adi-adi egon ziren zaleak bi orduko hitzaldia entzuten. ENEIDA ITURBE

**ANTZUOLA** > INGURUMENA

# Edukiontzi berdea erabiltzen irakatsi zieten jolasen bidez


'Zu zara gakoa' leloarekin abiarazi zuten kanpaina Zurrategin. IRATI AGIRREAZALDEGI



Umeekin jolasean, helduek argibideak jaso ahal izan zituzten. IRATI AGIRREAZALDEGI

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ANTZUOLA
Jende helduarekin, jolasen bidez, beira birziklatzearen gainean berba egiteko karpa ipini zuten egubakoitzean Antzuolako Zurrategi plazan. Bi begiralek eman zituzten azalpenak eta euretako batek esan zigunez, "jende helduak botatzen ditu normalean beirazko gauzak birziklatzera, baina askok ez dakite zer bota daitekeen eta zer ez. Askotan ez dakite bereizten zer den beira eta zer kristala. Jendeak sorpresa hartzen du esaten diegunean edalontziak, kopak, ispiluak, apaingarriak… ezin direla edukiontzi berdera bota".

Edukiontzi berdera bota ezin direnekin bakoitzaren kasuan azaldu zieten nora bota beharko liratekeen; esaterako, edalontziak eta kopak zaborretara.

**OPARIA**
Beira birziklatzeari buruz apur bat gehiago ikasteko aitzakia izan ziren jolasak. Batetik, kaleko edukiontziak irudikatuta eta fitxetako irudiak zegozkion edukiontziarekin bateratu zituzten; beste jolas batean, edukiontzi berdera bota daitezkeen ontzien artean baziren akatsak eta horiek aurkitzea zen kontua; eta hirugarrenean puzzle eran azaldu zieten birziklatze prozesua.

Parte hartu zutenek arbeltxo bana jaso zuten opari, non beira birziklatzeko argibideak dauden eta asmoa da jasotzen den beira kopurua handitzea.


Jolasak probatzen ibili ziren umeak Kulturaten IRATI AGIRREAZALDEGI


Gurasoekin joan ziren neska-mutikoak erakusketara. IRATI AGIRREAZALDEGI

**BERGARA** > OSPAKIZUNA

# Txapa Irratiak 25. urteurreneko ekintzei bukaera eman die

25 urte bete ostean, hamar irratsaio propio eta Arrosaren saioak ematen dituzte


Txapa Irratiko kide eta lagunek baba-jana egin zuten gaztetxean. JON BEREZIBAR

**IKER BARANDIARAN** > BERGARA
Txapa Irratiak 25. urteurrena ospatzeko ekitaldi ugari egin ditu: irratsaio bereziak; aspaldiko irratsaioak eta grabatutako kontzertuak berreskuratu…

Eta herenegun, zapatua, ospakizun handia egin zuten. Hala, iraganeko eta gaur egungo Txapako kideak eta lagunak gonbidatu zituzten jaira.

**TXARANGA ETA GUZTI**
Lehenik eta behin, txaranga batek girotutako txikiteoa egin zuten. Musika Eskolako kide batzuek inprobisatu zuten txaranga eta izugarrizko giroa piztu zuten herrian. Herritarrek hasieran pentsatu zuten Santa Zeziliaren gaineko ekimena zela, baina gero konturatu ziren Txapako kamisetak zeramatzatela. Horren ostean, 50 bat lagun batu ziren gaztetxean antolatutako babajanean; eta Senegalgo Kataia taldeak emanaldia egin zuen.

Gaur egun 10 irratsaio propio daude Txapa Irratian, eta gazte batzarrak saio bat egingo du.

**ARRASATE** > AISIALDIA

# Txikiek Olentzerori eskatzeko jostailuak aukeratu zituzten

Txatxilipurdi elkarteak askotariko jolasak ipini zituen ikusgai zapatuan umeendako

**I.A.** > ARRASATE
Txatxilipurdi Euskara eta Aisialdi Elkarteak antolatuta Euskarazko jostailuen erakusketa izan zen zapatu goizean barrena Kulturateko Jokin Zaitegi aretoan.

Erakusketaren helburua izan zen jostailuak erakustea eta jolas bakoitzarekin zein alderdi landu daitezkeen azaltzea. Horrela, besteak beste, Gabonei begira umeek euren gustuko jolasak aukeratu ahal izan zituzten.

Begiraleak izan ziren erakusketan eta jende askorik joan ez bazen ere, gurasoekin gerturatu ziren umeek jostailuak probatzeko aukera izan zuten eta baita begirale horien gomendioak jasotzeko ere.

**TXOKO DIGITALA**
Jolasak adin tarteen arabera banatu zituzten, bakoitza azalpen orriarekin. Begiraleen esanetan, ordenagailuko jolasak probatzeko aukera ematen zuen txoko digitalak txikien arreta deitu zuen, baina denek irabazten duten jolasak zituen mahaira ere gerturatu ziren umeak.

Jostailuak probatu, katalogoak eskuratu eta umeek eta gurasoek elkarrekin begiratu ostean, Gabonetarako jolasak eskatzeko aukera izango dute.

**OBRAK** > URBANIZAZIOA

# Obrak egingo dituzte Kanpatorpe kalean

## Gabonen ostean, lurra altxatu eta aldatu, argiteria jarri eta saneamendu lanak egingo dituzte

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE

Gabonen ostean, Arrasateko alde zaharrean obra garrantzitsua egingo dute: Kanpatorpea kalean egingo dira obrak.

Lanak alde zaharraren urbanizazio planeamenduaren barruan daude kokatuta eta, esandako moduan, datorren urtean hasiko dira, Gabonak amaitu eta berehala. Hala, Udaleko Obra Sailak jakinarazi duenez, kalea moztuta egongo da oinezkoendako lanek irauten duten bitartean.

**BI HILABETE OBRAK AMAITZEKO**

Lanon helburua da Kanpatorpea kaleko zorua urbanizatzea. Hala, lurra altxatu eta aldatu, argiteria berria jarri eta saneamendu lanak egin behar dituzte Kanpatorpea kalean. Udalak aditzera eman duenez, lanek bi hilabete iraungo dute. Herriko kale jendetsuenetarikoen artean dago Kanpatorpea kalea. Herriko kale estrategikoetako bat da, zalantza barik. Eta ziur obrek zenbait kexu eragingo dituztela hainbat herritarren artean. Bereziki, bertako bizilagunen artean. Obra, baina, Udaleko Obra Sailak adierazi duenez, "beharrezkoa" da.

**AURREKONTUAREN MURRIZKETA**

Excavaciones Arrasate enpresa izango da obra egitearen arduraduna. Obrak urri amaieran esleitu zituzten.

Bestalde, hasieran 100.000 euro inguruko aurrekontua aurreikusi zuen Udalak. Hala ere, Udalaren egoera ekonomikoak baldintzatuta, aurrekontua murriztu egin behar izan dute. Azkenean, beraz, 93.224 euro inbertituko ditu Udalak Kanpatorpea kalearen irisgarritasuna hobetzeko.

**EROSKIKO BIRIBILGUNEKO OBRAK**

Obra kontuekin jarraituz, amaitu dituzte Eroski pareko biribilgune ondoko obrak. Autobidearen lanak zirela-eta kamioiak gora eta behera ibili izan dira, eta lekua egoera txarrean utzi zuten. Hori horrela, Udalak eremu hori txukuntzeko eskatu zion Gipuzkoako Foru Aldundiari eta hala egin dute; zuhaixka eta eserleku batzuk jarri dituzte, besteak beste.

Izan ere, hainbat dira paseoa bertatik egiteko ohitura duten arrasatearrak; dagoeneko eskertuko zuten ingurua txukundu izana...

DATUA

**93**

**MILA EURO PASATXO**

Kanpatorpea kaleko obren aurrekontua 93.224 euro da. Hasieran, 100.000 euro inguru aurreikusi zituzten kantoiko lanetarako. Hala ere, aurrekontua murriztu egin behar izan dute.



Herriko kale estrategikoetako bat da Kanpatorpea kalea. J.B.

**GAZTE BULEGOA** > TEKNOLOGIA BERRIAK

# Herriko txokoak kaletik mundura, euskaraz

## Gazte bulegoak 'Arrasate mapeatzen' deritzon ekimena antolatu du eguen honetarako

## Herriko kaleen izenak 'Open street map' izeneko sareko mapa librean euskaraz sartzea da helburua



Arrasateko kale eta txokoen izenak mundura zabalduko dira Internet bidez, euskaraz. JOSETXO ARANTZABAL

**J.B.** > ARRASATE

Gazte Bulegoak aurrera segitzen du hileko azken eguenetan informatika ikastaroak antolatzen. Eta eguen honetan ere ekimen ezin interesgarriagoa planteatzen dute: *Arrasate mapeatzen* ikastaroa, hain zuzen.

Tailerraren helburua da Arrasateko kaleak, eraikinak eta, oro har, edozein txoko jaso eta munduari erakustea. Nola? Bada, kale eta txokoen izenak euskaraz jaso eta Internetera igoaz, *Open street map* izeneko mundu mailako mapa librearen bitartez. Izan ere, egun, Arrasaten Herriko Plaza eta Mondragon Unibertsitatea bakarrik daude jasota bertan.

**GAZTE BULEGOTIK, KALERA**

Hitzordua eguen honetan izango da, azaroak 26, 18:00etan. Lehendabizi, ikastaro txiki bat egingo dute erabiliko duten aplikazioaren gainean. Gero, baina, kalera irtengo dira datuak paperean jasotzeko. Huheziko, Mondragon Unibertsitateko eta gazte txokoetako kideen parte-hartzea espero da eta ikastaroaren irakasle Patxi Gaztelumendik aurreratu duenez, "ikustekoa" izango da.

Bizikletak hartu eta herriko auzo ezberdinetara joateko asmoa ere badago.

**GPS-AREKIN ERABILGARRIA**

Behin datuak jasota, sarera igoko dituzte. Hau da, *Open street map*-era igoko dira. Aplikazio horretan datuak GPSra sar daitezke, eta, beraz, oso erabilgarria izan daiteke gidari euskaldunendako.

Ekimen parte-hartzailea da *Arrasate mapeatzen*, gura duenarendako irekia.

**AISIALDIA**

# Begirale bila dabil aurten ere Txikilandia

## Abenduaren 10a baino lehen eman behar da izena, Txatxilipurdin

**J.B.** > ARRASATE

Gurasolandia atzean utzi, eta gainean dugu ia Txikilandia. Eta, urtero moduan, Txatxilipurdik antolatzen duen Gabonetako jolasparkeak begiraleak behar ditu. Aurten ere urtarrilaren 2an, 3an, 4an eta 5ean –goizez– egingo da, Musakolako kiroldegian.

**AZKEN EGUNA: ABENDUAK 10**

Begirale lan egin gura duenak abenduaren 10a baino lehen eman behar du izena. Interesatuek Txatxilipurdira jo behar dute, eta hiru aukera dituzte: Pablo Urangako egoitzara joatea, 943 79 54 46 telefonora deitu eta Irunegatik galdetzea edo *idazkaritza@txatxilipurdi.com* helbidera posta elektronikoa bidaltzea.

**KULTURA** > AED

# 25. urteurreneko diskoari merezi zuen aurkezpena egin zion AEDk

Egubakoitzean aurkeztu zuten AEDren diskoa, gaztetxean

Jatekoa eta edatekoa doan, eta 60 bat lagun

Azkaiter Peloxek jarri zuen zuzeneko musika; diskoan jo dutenetako batzuk ere jo zuten




Aurkezpen ekitaldia hasi aurretik, talde argazkia egin zuten antolatzaile eta protagonistek. JOSETXO ARANTZABAL

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE
AEDren 25. urteurreneko diskoak behar den moduko aurkezpena izan zuen egubakoitzean. Euskara elkarte aitzindariak betebetean asmatu zuen diskoaren aurkezpen ekitaldiarekin. Lekua aukeratzen bete-betean asmatu zuten. Izan ere, ez luke zentzu handirik izango gazteengana heldu gura duen ekimena Kulturaten aurkezteak, adibidez. Ez litzateke hain gertukoa izango, hots, ez litzateke AEDren estiloko aurkezpena izango. AEDk kalean egotea gura duelako, herriarekin harreman zuzenean.

Gazte Txokoetako gaztetxoak ere gonbidatu zituzten aurkezpen ekitaldira; primeran ibili ziren. Jatekorik zein edatekorik ez zen falta izan eta jende larregi gerturatu ez bazen ere, giro ederra izan zen ekitaldi osoan zehar.

**IAZ EREINDAKO HAZIAREN FRUITUA**
60 bat lagun izan ziren gaztetxean. AEDk Unai Azkarate, Azkaiter Pelox musikagile eta *showman* bergararra –gonbidatua aukeratzen ere bete-betean asmatu zuen AEDk– gonbidatu zuen aurkezpenaren alde musikala gidatzeko.

Zuzeneko musika hasi aurretik, baina, Itxaro Artola AEDko dinamizatzaileak hartu zuen hitza. Hasteko, diskoaren nondik norakoak laburbildu zituen. Hala, diskoa 25. urteurreneko ospakizun giroan ereindako haziaren fruitu izan da. Herriko zortzi talde, bederatzi kantu –Gosek urteurrenerako egindako abestia gehituta–, askotariko estiloak eta euskara bultzatzea helburu. Aurkezpenean jarri zituzten salgai eta bertan egoteko aukerarik izan ez zuenak herriko tabernetan, hainbat dendetan eta AEDren Pablo Uranga kaleko egoitzan izango du diskoa erosteko aukera. Prezioa, sinbolikoa: bost euro.

**ESKER ON HITZAK**
Diskoaz berba egin ostean, esker on hitzak izan zituen Artolak: "Eskerrik asko diskoan parte hartu duten taldeei, aurkezpenera gerturatu zaretenoi, gaztetxeari, Shot! estudioari, diskoaren banaketan lagundu duten taberna eta dendei, eta eskerrik asko Azkaiter Peloxi, gonbidatu eta unean bertan baiezkoa emateagatik". Honek unean bertan hartu zuen hitza: "Niretako plazerra da hemen egotea, bergararra izanda AEDren eskaintza jasotzea; etxean moduan sentitzen naiz". Diskoaren ideia "borobila" dela deritzo gitarra jotzaile bergararrak: "Aitzindaria den euskara elkartearen diskoaren ekimen aitzindaria gure bailaran aintzakotzat hartzea" gurako luke. Hala, ibarreko beste euskara elkarteei deia egin zien halako ekimenak bultzatzeko; dioenez, "musikariok beti egoten gara-eta gertu halako aurkezpen ekitaldietan parte hartzeko". Gero, musikaren txanda.

ZUZENEKOA

## Diskoaren antzera, zuzeneko emanaldian ere estilo aniztasuna izan zen nagusi

Ordubete pasatxo iraun zuen emanaldian, Azkaiter Pelox, Haitzama eta Muskaria –Azkaiter Peloxekin– igo ziren taula gainera. Diskoaren antzera, zuzenekoan ere askotariko estiloak izan ziren nagusi. Azkaiter Pelox izan zen lehena. Emanaldi borobila eskaini zuen bergararrak: gitarra maisuki joaz eta musika barruan daroala erakutsiz. Besteak beste, Ruper Ordorikaren *Zaindu maite duzun hori* abestia jo zuen. Gero Haitzama taldeak dantzatzeko musika eskaini zuen. Eta azkenik, Muskaria taldeko bateria jotzaile eta baxu jotzaile igo ziren Azkaiter Peloxekin batera, aurrez prestatuta zituzten abesti batzuk jotzeko. Amaieran inprobisaziorako tartetxo bat ere hartu zuten.



GOIENKARIA

## 'Ospakizun giro aparta' izan zuten 1957an jaiotakoen bazkarian

Joan den azaroaren 14an 1957an jaiotako Arrasateko lagun taldeak ospakizun berezia egin zuen. Goizean Arrasaten Kajoi tabernan gelditu eta behar den moduko *poteoa* egin ostean, Aretxabaletako Basterralde jatetxera joan ziren bazkaltzera. Aretxabaletara, noski, autobusean joan ziren eta bertan egin zuten goiko argazkia. Guztira 36 lagun bildu ziren eta jakinarazi duten "ospakizun giro ezin hobean" egin zuten bazkaria. Adierazi dutenez, ezkontza batean egon ohi den giroa izan zuten jatetxean: "Ezkontza baten moduko jaia izan zen".

Eta bapo bazkaldu ostean, nola ez, ohiko dantzaldiaren txanda heldu zen. Dantzaldia ere arrakasta borobila izan zen; izan ere, bazkarian izan ziren guztiak altxatu ziren dantza egitera. Egun borobila amaitzeko, iluntzean beste poteoa bat egin zuten; orduan ere ez zen jatekorik falta izan.

JENDARTEA > MERKATARITZA

# Milatik gora lagunek egin dute Bedelkar txartela deskontu-kanpainan

Azken hiru hilabeteetan egin du kanpaina hori dendarien elkarteak; ordainketetarako txartela erabiltzeagatik puntuak ematen ere hasi dira

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Pozik daude Bedelkarko ordezkariak irail, urri eta azaroan barrena egin duten deskontu kanpainak izan duen erantzunarekin. "Oso balorazio ona egiten dugu", esan du Maria Eugenia Igartzak, elkarteko lehendakariak. Hiru hilabeteetan barrena egubakoitz eta zapatuan egindako erosketak Bedelkar txartelarekin eginez gero, %5eko deskontuak aplikatu dituzte. Hori horrela, "herritar askok aukera aprobetxatu nahi izan dute eta milatik gora lagunek egin dute txartela", gehitu du.

Hain justu ere, datorren zapatuan, azaroaren 28an, bukatuko da %5eko deskontuen kanpaina.

**PUNTUAK ESKURA DAITEZKE**

Deskontu kanpaina bukatzear bada ere, txartela egin duten herritarrek abantaila gehiago ere izango dute. Hain justu, hasi dira dagoeneko puntuak ematen txartelarekin ordainduz gero.

Emango duten puntu kopurua ordaindutako prezioaren araberakoa izango da, eta, 200 puntu eginda, 10 euroko txekea jasoko du erosleak.

**GABONETARAKO ESKAINTZAK**

Abendurako eskaintza berezi gehiago ere prestatu dituztela azaldu du Maria Eugenia Igartza Bedelkar elkarteko lehendakariak: "Gabonen atarian gaudela kontuan izanda". Hain zuzen ere, sariak jaso ahal izango dira, baldin eta Bedelkar txartelarekin ordainduz gero. Lehenengoz egingo duten ekimena da eta sariok izango dira 5, 10, 20 edo 50 eurokoak.

Maria Eugenia Igartzak honela azaldu du sariok irabazteko modua: "Erosleak txartelarekin ordaintzen duen momentuan bertan jakingo dugu saria egokitu zaiola, eta baita zenbateko saria izan den ere. Gainera, automatikoki bezeroaren kontu korrontean sartuko da diru hori". Igartzak gehitu du "halako sari asko" banatuko dituztela, zenbakirik zehaztu ez duen arren.

Bedelkarren zozketa-txartelak klasiko bihurtu dira Gabonetan eta aurten ere banatuko dituztela aurreratu du Bedelkarko lehendakariak: "Beste ekimen batzuk egin ditugun arren, Gabonetako zozketa-txartelak ateratzea ere pentsatu dugu. Izan ere, txartelarekin ordaintzen duten bezeroen fideltasuna saritzeaz gain, eskuz ordaintzen dutenena ere saritu behar dela uste dugu".

Datorren urtean eskaintza bereziak egiten jarraituko dutela gehitu du.

ESANAK

**"Bedelkar txartelarekin ordainduta, 5, 10, 20 eta 50 euroko saria jaso ahal izango dute erosleek, abenduan"**

**Maria Eugenia Igartza** > Bedelkarko lehendakaria

DATUA

**200**
**PUNTU**

Bedelkar txartelarekin ordainduz gero puntuak eskuratzeko eskaintza abiarazi dute. 200 puntu batuz gero, 10 euroko txekea jasoko du erosleak.



GOIENKARIA

## Musikarekin eta txokolatearekin ospatu dute Santa Zezilia

Eguen arratsaldean Santa Zezilia musikarien zaindariaren eguna ospatu zuten Musika Eskolako ikasle, irakasle eta gurasoek. Bergarako Musika Eskolaren martxa jotzen zutela, kalejira egin zuten San Martin plazaraino. Han, beste hiru pieza jo eta abestu zituzten akordeoi taldeak, gazteen bandak eta eskolako abesbatzek. Ekitaldia bukatu eta gero, eta ospakizuna ondo bukatzeko, txokolatea hartu zuten, eta baita hurbildutako entzuleen artean banatu ere.

## oharrak

KINTADA

**> 1957an jaiotakoek afaria egingo dute Zumelaga jatetxean**

Hilaren 28an egingo dute. Izena eman behar da Intxorta tabernan eta aurreratu behar dira 10 euro.

LUNTXA

**> Erretiratuendako luncha emango du Lasai Tokik**

Abenduaren 8an izango da, 12:00-14:00 ordutegian, eta, urtero bezala, herriko erretiratu guztiak daude gonbidatuta.

DEIALDIA

**> Aritzetak gonbita egiten die herritarrei taldean parte hartzeko**

Entseguak egiten dituzte astelehen eta eguaztenetan, 21:00etan, Mizpirualde egoitzako elizan, eta abesbatzan parte hartzeko interesa duenak bertaratu baino ez du. Informazio gehiagorako deitu 660 98 32 78 zenbakira edo idatzi *aritzetaabesbatza@gmail.com* helbidera.

MUSIKA ESKOLA

**> 'Miserableak' ikuskizunaren DVDa eta CDa Musika Eskolan daude**

Dagoeneko iritsi dira *Miserableak* ikuskizunaren DVDak eta CDak Musika Eskolara. DVDaren prezioa da 15 euro eta CDarena, 7. Jasotzeko jo idazkaritzara, astelehenetik egubakoitzera, 15:30-19:30 ordutegian.

UDALA

**> Autolaguntza taldea osatu nahi dute ezinduen zaintzaileendako**

Mendekoak zein ezinduak euren kargu dituzten pertsonendako autolaguntza taldea sortu nahi du Udalak. Halako gaixoak dituztenendako elkargune izatea da asmoa. Autolaguntza taldean parte hartzeko interesa dutenek Ongizate Zerbitzura jo dezakete edo 943 77 91 65 telefono zenbakira deitu.

KINTADA

**> 1947an jaiotakoek afaria egingo dute Tartufon**

Abenduaren 5ean egingo dute, 21:00etan. Izenematea da azaroaren 30a baino lehen, Fraiskozuri kaleko Euskadiko Kutxan ireki duten zenbakian: 009.1.09901.9. Sartu behar dira 60 euro. Joan-etorrirako autobusa egongo da; 20:30ean abiatuko da joanekoa Santa Marina parrokia ostetik.



Erabiltzaileetako batzuk entsegu lokalaren aurrean. GOIENKARIA

**UDALA** > ZERBITZUAK

# Goiko trenbideko entsegu lokalean izena emateko epea zabaldu du Udalak

Gaur, astelehena, hasi eta abenduaren 23ra arteko epea dago izena emateko; herriko musika taldeei egindako deialdia da

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA
Udalak goiko trenbideko entsegu lokala erabiltzeko dei egiten die musika taldeei. Gaur, astelehena, zabalduko dute izenemate epea eta abenduaren 23an bukatuko da.

Entseatzeko lokalik ez duten herriko musika taldeei egindako deialdia da eta eskariak Udaleko Erregistro nagusian aurkeztu behar dira. Udaleko iturrien arabera, gaur egun 22 musika taldek entseatzen dute goiko trenbideko lokalean, guztira, 92 gaztek.

**ENTSEGUETARAKO EGOKITUTA**

Herriko rock taldeek entseguak egiteko Udalak eraberritutako goiko trenbideko etxea uztailean inauguratu zuten. Eraberritzelanen premia aspalditik zuen eraikinak. Izan ere, ez zuen segurtasuna bermatzen eta, gainera, ez zuen inolako intsonorizaziorik. Hainbat rock talderen laguntzarekin, Goiko Rocken dinamika adostu zuten; hala, bertan entseatu nahi duten taldeak elkarteko kide egin beharko dira.

Bi pisu eta zazpi entsegu-gela ditu. Gela bakoitzean hiru talde sartzen dira eta entsegu-orduak beraien artean adosten dituzte, baina lokala erabiltzeko ordutegia eta horren mugak arautegian ezarrita daude. Mantenu, argi, ur eta lokalaren garbiketa gastuak elkartearen kontura doaz.

**UDALA** > INKESTA

## Ematen dituen zerbitzuen gaineko inkesta egingo du Udalak herritarren artean

**M.B.** > BERGARA
Ematen dituen zerbitzuen gainean herritarrek duten iritzia jaso nahi du Udalak, zerbitzuotan hobekuntzak egiteko asmoz. Horretarako, datozen egunetan, herritarrek betetzeko galdera-sorta jasoko dute etxean. Galdera sorta hori frankeatutako kartazal batez lagunduta joango da eta kartazal hori erabilita posta arruntez erantzun beharko da –doan–.

Udaletik herritarrak animatu nahi dituzte galdera-sorta betetzera eta bidaltzera; izan ere, Udal Gobernuko ordezkariek uste dute, Udalaren kudeaketa hobetzeko biderik onena eta bakarrenetakoa herritarren iritziak jaso eta euren iradokizunak aintzat hartzea dela.

Udalak aurrez eskertu nahi diete herritarrei galdera-sorta betetzeko ahalegina.

**KULTURA** > ERAKUSKETA

## Marilu Unzurrunzagaren margolanak, Nahikarin

**M.B.** > BERGARA
Marilu Unzurrunzaga artista bergarararrak margo erakusketa jarri du Nahikari tabernan.

Tamaina txikiko 23 margolanek osatzen duten Unzurrunzaga bergarararraren erakusketa, eta hilaren 30era arte egongo dira zintzilikatuta tabernako paretetan.

Margo figuratiboa da lanen oinarria eta jorratzen duen gaien artean nabarmentzen da ingurune hurbilean duen landa-paisaia; hala nola, herri txikiak, basoak, baserriak, arkitektura tradizionala...

Tabernako ordutegian egongo da ikusgai Unzurrunzagaren erakusketa.



Unzurrunzagaren lanetako bat. NAHIKARI

## Plazatik Irala kalerako bidea itxi egingo dute gaur, astelehena

San Martin plaza eta Domingo Irala kalea lotzen dituen pasabidea itxi egingo dute gaur, astelehena, oinezkoendako.

Pasabide hori eta Domingo Irala kalea egokitzeko egiten diharduten lanak dira ixteko arrazoia. Udaletik jakinarazi dutenez, saiatuko dira ahalik eta azkarren zabaltzen, oso erabilia da-eta.



MONIKA BELASTEGI

> JENDARTEA

### Norbere burua zaintzen ikasteko ikastaroa egingo dute

*Cuidarse para cuidar* delako ikastaroa egingo dute Mizpirualde egoitzan, Lahar elkargoak antolatuta. Azaroaren 3an eta abenduaren 1ean, 2an, 3an eta 4an izango da ikastaroa, 16:00-19:00 ordutegian. Lorea Errekalde terapeutak gidatuko du eta 20 ordukoa izango da, doan. Besteak beste landuko dituzte Burnout sindromea, erlaxazioa eta giza harremanak.

Gehienez 20 lagunendako lekua dago. Izena emateko deitu 663 05 72 23 telefono zenbakira edo idatzi *formakuntza@laharelkargoa.org* helbidera.

**Oskar Carrascal** > Kirol teknikaria

# "Erronka handia da guretako 4.500 bazkide izatea kiroldegian"

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

**Oskar Carrascal (Arrasate, 1971) Oñatiko Kirol teknikaria da. Zubikoa kiroldegiak 25. urte bete ditu, eta askotariko ekitaldiak antolatu dituzte orain arte. Urtea bukatu aurretik beste hiru ekintza egingo dituzte. 25. urteurrena aitzakia hartuta harekin egin dugu berba.**

**Zubikoa kiroldegian hainbat berrikuntza egin dituzue azken asteotan. Zergatik?**

Bai, hala da. Bazkide eta erabiltzaile asko ditugu, eta, ondorioz, instalazioak hondatu egiten dira. Azken hilabeteotan egin ditugun berritze lan nagusiak bi izan dira: alde batetik, kantxa urdineko intsonorizazio lanak egin ditugu; eta, beste alde batetik, sauna eraberritu dugu. Besteak beste, zorua eta sabaia aldatu, paretak margotu eta jarleku berriak ipini ditugu. Bestalde, azken asteotan kiroldegia margotzen ibili dira. Sarrera, pasilloak, tenis pistak eta gimnasioa margotu dituzte, besteak beste. Itxura aldatu diogu kiroldegiari.

**Zenbat bazkide dituzue kiroldegian?**

Krisiarengatik, bazkide kopurua apur bat jaitsi da, baina egun 4.500 bazkide ditugu. Kopuru handia da, eta kiroldegiko langileok erronka handia dugu egunero. Gainera, badaude erabiltzaile asko bazkideak ez direnak; besteak beste, ikastaroetara datozenetako batzuk.

**Batez beste, zenbat erabiltzaile dituzue egunero?**

Bazkide diren edo ez diren zehaztu barik, batez beste, 900 bat lagunek erabiltzen dute kiroldegia egunero.



Oskar Carrascal, kiroldegiko gimnasioan. MIREIA BIKUÑA

**Nolako erantzuna izan du txartel mankomunatuak oñatiarren artean?**

Debagoieneko kirol instalazio guztiak erabiltzeko aukera ematen duen txartel mankomunatua aukera paregabea da etxetik kanpo lan egiten dutenendako. Oñatin 370 bat lagunek dute txartela. Agian ez da kopuru handia, baina jakin badakigu erabiltzaile fidelak direla. Era berean, gurera etortzen dira txartel mankomunatua dutenak.

**"370 oñatiarrek erabiltzen dute txartel mankomunatua"**

**"Turismoa eta kirola lankidetzan ipintzeko asmoz jardunaldia egingo dugu abenduan"**

**Ikastetxeetako umeak, Aloña Mendi kirol elkarteko taldeen hitzorduak, eskola kirola... Nola koordinatzen duzue guztia?**

Irailean erabilera plana egiten dugu, norberak kantxa urdina eta berdea noiz erabili ahal dituen zehazteko. Egun, kantxa urdinarekin errazagoa da hitzordu guztiak antolatzea. Oñatik duen kirol aktibitate maila ikusita ezinezkoa izango litzateke guztia antolatzea kantxa bakarrarekin.

**Denbora laburra daroazu Oñatin. Gustura zaude?**

Bai, denbora laburra daroat; baina dagoeneko hemengo errealitatea ezagutu dut eta kirol mailan oso aberatsa dela esango nuke.

**25. urteurreneko ekitaldien barruan, turismoari eta kirolari buruzko jardunaldia antolatu duzue.**

*Turismoa eta kirola: lankidetzan hasteko aukerak* delako jardunaldia egingo dugu abenduaren 3an. Gai horren gainean berba egiteko eragile ezberdinek parte hartuko dute; hain zuzen ere, Foru Aldundiko Kirol Zerbitzuko programaburu Julian Gomezek; Basquetour Turismoaren Euskal Agentziako ordezkari Iker Urtzelaik; Euskal Mendi Federazioko kide Txema Urrutiak; eta Mendiak eta Herriak SL enpresako kide Felipe Uriartek parte hartuko dute. Bukaeran mahai ingurua egingo dugu.

Herritar guztiak gonbidatu gura nituzke. Izenematea azaroren 27an itxiko dugu.

**JENDARTEA** > JAIAK

# Deialdia egin dute 2010eko Aratusteak prestatzen hasteko

## Oñatzekoek eguaztenetan eta zapatuetan egingo dituzte entseguak azaroaren 25etik aurrera

**M.B.** > OÑATI

Oñatz Dantza Taldekoek datorren urteko Aratusteak prestatzen hasteko deialdia egin dute. Oraindik ez dute pentsatu ze dantza egin, aurretik zenbat herritarrek parte hartuko duten jakin gura dute-eta. Entseguak azaroaren 25ean hasiko dituzte Oñatzek Errekalde auzoan duen lokalean. Ondoren, eguaztenero eta zapaturo bilduko dira, 20:00etan eta 12:00etan, hurrenez hurren.

Datozen asteetan entseatuko dituzten koreografiak otsailaren 13an aterako dituzte kalera.

**140 LAGUN**

2009ko Aratuste-zapatuan 140 lagun irten ziren kalera Lantzeko aratusteetako dantzekin eta polkekin. Kalerik kale ibili ziren, herritarren txalo artean. Aratuste-domekan, aldiz, Oñatzeko kideek bakarrik Luzaideko dantzak eskaini zituzten plazan.



Lantzeko Aratusteetako dantza, plazan. GOIENKARIA

**GAZTEAK**

# Musika saio didaktikoa egingo dute gaztelekuan

**M.B.** > OÑATI

Munduko instrumentu ezberdinekin saio didaktikoa egingo dute gaztelekuan egubakoitzean, 18:00etan. Pablo Mezzelani argentinarrak emango ditu eskolak. Saioaren helburu nagusia da gaur egungo kultura aniztasuna musikaren esparruan islatzea.

**INSTRUMENTU ETNIKOAK**

Pablo Mezzelanik Buenos Aires utzi, eta bidaian abiatu zen munduko herri eta kultura ezberdinen sustrai musikalen bila. Hasteko, Latinoamerikako folklorea ezagutu zuen eta ondoren, Europakoa. Bidaian, askotariko musika eta instrumentuak ezagutu zituen. Era berean, instrumentu etnikoen maisuekin egin zuen topo, eta haiengandik ikasitakoa saio didaktikoen bidez transmititzen du orain.

## oharrak

DEIALDIA

**> Plastiko bilketa egingo dute bihar**

Lau lekutan utz daiteke plastikoa: Zañartu auzoan, Zuazola zubiaren ondoan; Murgia auzoan, Asentzio ermitan; Olabarrietako autobus geltokian; eta ETEOko eraikinaren atzealdean. Plastikoak ondo lotuta gaur 17:00etarako utz daitezke leku horietan.

MENDIA

**> Sergi Ricarten ikus-entzunezkoa bihar kultura etxean**

Aloña Mendi elkarteko mendi taldeak antolatuta *Himalaia bat...* delako ikus-entzunezkoa eskainiko du Sergi Ricartek kultura etxeko zinema-aretoan, 19:30ean.

DEIALDIA

**> 'La caja de Pandora' pelikula zineklubean**

Yesim Ustaoglu zuzendariaren pelikula eskainiko dute eguenean zineklubean, 20:00etan. 2008ko Donostiako Zinemaldian pelikula onenaren Urrezko Maskorra eta aktore onenaren Zilarrezko Maskorra irabazi zituen.

ERAKUSKETA

**> Teresa Diazen margolanak ikusteko azken egunak**

Egubakoitzera arte ikus daitezke margoak kultura etxeko erakusketa gelan, 18:00etatik 20:00etara; besteak beste, natura hilak eta erretratuak.


Intxaurtxueta kiroldegiko sotoan dauden garajeak alokairuan jarriko dituzte. M.B.

Azaroaren 30a baino lehen aurkeztu behar dira eskaerak udaletxeko sarrera erregistroan; 13:00etan amaituko da honen epea

**ESKORIATZA** > GIZARTEA

# Udalak kiroldegiko sotoan dauden 18 garaje alokairuan jarri ditu

**M.B.** > ESKORIATZA

Eskoriatzako Udalak Intxaurtxuetako kiroldegiaren azpialdean dauden garajeak alokairuan jarri ditu eta horretarako baldintza juridiko eta administratiboen plegua onartu du. Interesa duten eskoriatzarrek azaroaren 30eko 13:00ak arte izango dute eskaria aurkezteko aukera, udaletxeko sarrera erregistroan.

Guztira, 18 plaza itxi jarriko dituzte alokairuan. Tamaina aldetik nahiko antzekoak dira guztiak; txikienak 14,87 metro karratu ditu eta zabalenak, 16,37 metro karratu. Preziori dagokionez, hilero 42 euro ordaindu beharko dira. Errenta hiru hilean behin ordainduko da aldez aurretik, hiruhilekoaren lehen hamabost egunetan. Bestalde, gehienez ere lau urterako alokairuan emango dira.

**BALDINTZAK**

Eskaera aurkezteko asmoa dutenek, besteak beste, honako baldintzak bete beharko dituzte: Eskoriatzan erroldatuta egotea aurtengo irailaren 30a baino lehen, trakzio mekanikodun ibilgailu baten jabe izatea, trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zergadun izatea udalerrian eta Udalari ordaindu beharreko zergak ordainduta izatea.

Eskariak aurkezteko epea amaitu eta gehienez hamar eguneko epean, alkatearen erabakiz erabakiko da onartutako interesdunen zerrenda; eta baita onartu ez direnena ere. Jarraian, udaletxeko iragarki taulan jarriko da.

## oharrak

NAGUSIAK

**> Aldi baterako egonaldietako izenematea, gaur arte**

Gaur, astelehena, amaitzen da Gipuzkoako Foru Aldundiak Gabonei begira gertatutako lehen hamabostaldirako edo hilabeterako egonaldiak egiteko eskaera epea. Interesatuek Eskoriatzako Gizarte Zerbitzuetara jo behar dute. Bigarren hamabostaldirako eskaerak azaroaren 30a arte aurkeztu ahalko dira.

KZGUNEA

**> Dinamizatzailea egongo da etzi, ikastaroak ematen**

Eskoriatzako KZguneko dinamizatzailea etzi, eguaztena, egongo da honako ordutegian: 16:30etik 20:00etara. Eskainiko diren ikastaroen gaineko informazioa gura dutenek Eskoriatzako Udalaren webgunean dagoen KZgunearen atalean dute ikusgai.

UMEAK

**> Ipuin kontalaria eguenean**

Hilero bezala, ipuin kontalaria egongo da Udal Bibliotekan, azken eguenean. Pello Añorga kontalaria egongo da eguenean, 18:00etan.

UMEAK

**> Karaoke festa egingo dute egunenean ludotekan**

Eguenean, 18:00etan, karaoke festa egingo dute Tortolis ludotekan 7 eta 12 urte bitartekoendako.

IRAKURMENA

**> 2010eko orri-puntua aukeratzeko lehiaketa deitu dute**

Dagoeneko deitu dute datorren urtean Eskoriatzako Udal Bibliotekan erabiliko den orripuntua aukeratzeko lehiaketa. Lanak bibliotekara eraman beharko dira abenduaren 14a baino lehen. Irabazleak 250 euroko saria jasoko du.

## Ederto ibili ziren Urbian Arizmendikoak

Mendizaletasuna eta ikasleen arteko harremana bultzatzeko, azaroaren 15ean Urbiara mendi irteera egin zuten Arizmendiko 100 guraso eta ikasle inguruk, Arizmendiko Kulturgunearen eskutik. Giro aparta egon zen ibilbide osoan zehar; baita hamarretakoan ere. Ekimenak izandako harrera ikusita, datorren ikasturtea amaitu bitartean beste lau irteera egingo dituzte; besteak beste, Atxorrotzera eta Kurtzebarrira joango dira Arizmendi ikastolakoak.


ARIZMENDI IKASTOLA



2008ko apirilaren 21ean Gasteizko Justizia jauregian deklarazioa hartu zioten Aramaioko alkateari. ARTXIBOA

**ARAMAIO** > AHT

# Urtarrilaren 13an Asier Agirre alkatea epaitua izango da Gasteizen

## Epaia "aurretik" idatzita dagoela eta 9 urtez gaitasunik gabe utziko dutela uste du Aramaioko alkateak

**M.BITERI-A.BARRUSO** > ARAMAIO

Dagoeneko data jarri diote Abiadura Handiko Trenaren gaineko galdeketa egitearren Asier Agirre Aramaioko alkatearen kontrako epaiketari. Urtarrilaren 13an izango da hori, Gasteizko Justizia jauregian. Eguenean Goiena Telebistako *Goiena magazinea*-n iragarri zuen Agirrek berak epaiketaren data.

2008ko apirilean Estatuko Fiskaltzak Aramaioko alkatearen aurkako salaketa ipini zuen. Fiskaltzaren arabera, 2007ko irailaren 28an, 29an eta 30ean legez kanpoko galdeketa egin zuen horretarako udal baliabideak erabilita. Agirrek jakirarazi zuen epaiketara joateko eta "zirkuan" parte hartzeko asmoa baldin badu ere, epaia aurretik "idatzita" dagoela eta hortaz, "hitza" herritarrei ematearren bederatzi urtez gaitasunik gabe utziko dutela.

**AGINTALDIA AMAITU EZIN**

Horren harira, esan zuen gerta litekeela agintaldia alkate moduan ezin amaitzea. Berretsi zuen "tokiz kanpo" dagoen azpiegitura erraldoia dela eta bera epaituko duten arren, helburua ez dutela lortu, "herriak garbi esan zuen-eta azpiegitura ez duela nahi".

**PLAN OROKORRA**

Bestalde, lantzen dihardúten Plan Orokorrari dagokionez, Agirrek nabarmendu zuen gaia "serioa" dela eta; hortaz, ezin dela "egun batetik bestera" egin. Horren harira, alkatearendako garrantzitsuena ez da agintaldia amaitu aurretik onartzea: "Ez diot horrenbesteko garrantzirik ematen agintaldia bukatzeari. Herriak nahi duen lana egin behar da. Hurrengo agintaldian gu ez bagaude, sartzen den alderdiak egin beharko luke herriak nahi duena".

**GAZTEEN LOKALA**

Urtebete itxita daraman gazte lokalaz ere hitz egin zuen. Eguen arratsaldean gazteekin eta gurasoekin egindako bileran, 40 lagun batu ziren udaletxeko osoko bilkuren aretoan. Alkatea pozik irten zen handik: "Adostasunera heltzen garenean lokala zabalduko da, alde guztiek nahi dutelako irekitzea. Baina baldintzak bete behar dira".

**ELGETA** > OSPAKIZUNA

# Gaztaina-erre jana egin zuten barikuan

## Urtero legez, Maala guraso elkarteak gaztainak erre zituen plazan eskolaumeen artean banatzeko

**LARRAITZ ZEBERIO** > ELGETA

Zuhaitzak ostoak galtzen hasten direnean eta neguko lehenengo elurrak agertu aurretik, Maala guraso elkarteak gaztaina-erre jana egin ohi du Elgetan. Eta barikua egun berezia izan zen eskolako umeendako. Ohi baino lehenago kendu zituzten amantalak, 15:00ak aldera, hain justu ere.

Irakasleekin batera plazara jaitsi eta paperezko kukurutxo banarekin ilara egin zuten udaletxe aurrean. Jose Monterroso izan da aurten gaztainak danbolinean erretzeko arduraduna, guraso elkarteko gainerakoak inguruan laguntzaile zituelarik. Gustuko dituztenek adierazi zuten onak zeudela gaztainak.



Barikuan eskolako umeak gaztainen zain, plazan. ZIORTZA MARTIN

**LEINTZ GATZAGA**

# Antenaren kontratua bukatzear, Euskaltelek

## Abenduaren 31n bukatuko da Gatzagaingo antenaren kontratua

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA

Gatzagainetik aurrera joanda dagoen telefono antenaren kontratua hamar urterako sinatu zuten Udalak eta Euskaltel enpresak. Hamar urteok bukatzear daude orain, abenduaren 31n hain zuzen, eta Udalak jakin gura du Euskaltelek jarraitzeko interesik duen edo ez. Eusebio Villar alkateak jakinarazi zuen azaroko osoko bilkuran saiatu direla Euskalteleko arduradunekin egoten, baina ez dutela inolako erantzunik jaso.

Bestalde, Orange telefono konpainiak interesa agertu du antenarengan. Hala ere, oraingoz itxaron egingo du Udalak erabakirik hartu barik, eta jakinaraziko dio Euskalteli beste konpainia batzuekin negoziatzen hasiko dela interesik agertu ezean.

**ANTZUOLA**

# ONA txartela KZgunean egin daiteke

## Martitzenetan eta eguenetan egongo da aukera, azaroan eta abenduan

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ANTZUOLA

Besteak beste, tramiteak sare bidez egitea ahalbidetzen duen txartela da ONA; herriérabilera askotariko osasun txartel elektronikoa.

Osakidetzaren gaur egungo txartela ordezkatuko du, baina, ONA txartel berriaren erabilera finkatu bitartean, orain artekoa erabili ahal izango da eta 16 urtetik beherakoek gero ere txartel hori erabili beharko dute. Izan ere, ONA txartela 16 urtetik gorako edozeinek eska dezake eta doanekoa izango da.

Antzuolan martitzenetan eta eguenetan eskatu ahal izango da txartela liburutegian dagoen KZgunean; azaroan, 16:00etatik 20:00etara bitartean; eta abenduan, 09:00etatik 13:00etara.



**> MONDRA**
Laugarren astez jarraian atea hutsean, nahiz eta ezin irabazi **> 23**



**> FORD MUGARRI**
Erasoan asmatu ez eta bigarren porrota jaso dute Arrasatekoek **> 24**



**> ESKORIATZA**
Saskibaloian txukun jokatu eta ia bikoiztu egin dute Alde Zaharra **> 25**

**TXIRRINDULARITZA** > MARKELEN LAGUNARTEAREN OSPAKIZUNA

# Taldea berria, baina Markel eta lagunartea lehengoak dira

**ALDAKETA**
Euskalteleko kide gisa, azken ospakizuna izan zen zapatukoa

**JULEN IRIONDO** > OÑATI

Ospakizun egun bete-betea izan zen zapatukoa Oñatin. Markelen Lagunarteak denboraldi amaierako urteroko festa egin zuen: spinning egin zuten 80 lagun inguruk frontoian; beste hainbeste elkartu ziren Zotz jatetxean bazkaritarako; eta bi hitzorduon artean, aurten aurrenekoz, mahaingurua egin zuten Santa Ana antzokian.

Spinning saioan, Markel Irizarrekin batera, Amets Txurruka, Aitor Galdos eta Ivan Velasco Euskaltel-Euskadiko taldekideak eta hurrengo urtean lagun izango duen Haimar Zubeldia izan ziren oholtza gainean; hauen aldamenean e-goitek etxeko monitoreak, eta behean frontoia bete jende: guztiak musika biziaren erritmora pedalei eragiten, ordu eta erdiz.

Ospakizun eguneko aurtengo nobedadea izan da mahaingurua. Haimar Zubeldia eta Mikel Astarloza izan zituen aldamenean txirrindulari oñatiarrak. Bizikleta kontuak izan zituzten hizpide, baina baita bestelakoak ere; hainbat bitxikeria kontatu zituzten: adibidez, Markel Irizarrek azaldu zuen nolakoa izan den Pirinioak zeharkatuz Haimar berarekin eta beste bi lagunekin, alportxa eta guzti, egin berri duten bidaia; jakin genuen Haimar Zubeldia nahiko ondo moldatzen dela erremintekin lanean eta baita sukaldean ere; eta Mikel Astarlozak azaldu zuen Donostiako maratoia egiteko asmoa duela, hiru orduz azpitik ahal badu.

Ondoren etorri zen Zotz jatetxeko bazkaria, hainbat sorpresarekin. Ohi bezala, urtearen errepasoa egin zuten argazki bidez; muntaia horiek egiten dituen Aitor Casado *Kaxkarinho* omendu zuten, eta lagun talde batek *Bizitzaren gurpila*, Markeli egin dion kantua, jo zuen zuzenean.



**SPINNING** 80 lagun inguru batu ziren frontoian bazkaldu aurretik kirola egiteko. JULEN IRIONDO



**BAZKARIA** Zotz jatetxea bete egin zen bazkalorduan. J.I.



**MAHAINGURUA** Zubeldia, Irizar eta Astarloza. J.I.

**Markel Irizar** > Txirrindularia

## "Txirrindularitzak egin didan oparia da; talde berrian gozatu egin gura dut"

**J.I.** > OÑATI

**Markel Irizarrek eskerrak eman nahi izan zituen mahainguru amaieran: "Haimarri eta Mikeli, gaur hona etorri izanagatik; eta baita hau guztia antolatu dutenei ere. Gaurko eguna da zaleak normalean errepidean ikusten dituzten txirrindulariekin batu daitezen; eta guk, ematen dizkiguten animuengatik, eskerrak emateko". Umore onean, elkarri galderak egiten amaitu zuten saioa hiru txirrindulariek.**

**Markel Irizar: Pentsatzen dut zure bizitzako poza izango zela Tourrean lortutako garaipena, hainbeste denboraz saiatu eta gero.**

**Mikel Astarloza:** Nere bizitzako garaipenik handiena eta egunik zoriontsuena izan zen. Pena hamar egunetan dena zapuztu izana. Baina taldeak helegitea jarri du eta erantzunaren zain gaude. Eta bitartean entrenatzen eta datorren urteari begira ari naiz, sasoi onean mantentzeko.

**M.I.: Zuk, berriz, taldekako erlojupekoa irabazi zenuen, baita taldekako azken sailkapena ere; eta, besteak beste, zuk egindako lanari esker podiumeko lehen eta hirugarren postuak eskuratu zenituzten. Oñati aldean diote zuk egindako lanari esker lortu duzula zure lagun bat taldean *entxufatzea*. Eta azkenean ia zu geratu zara taldetik kanpo.**

**Haimar Zubeldia:** Ematen du ni ere zure taldean egongo naizela. Gauzak konpontzeko bidean daude, eta hori da nire nahia. Iazko aldaketa ongi etorri zitzaidan, ilusioa berreskuratzeko. Aurten egin ditut harremanak, eta haiekin eta zurekin egotea polita izango da. Ondo ibiliko gara: txirrindularitza berri bat ezagutu, lasterketei aurre egiteko beste modu bat...



J.I.

**M.A.: Etxetik Ameriketara; Euskalteletik RadioShack-era. Eta orain zer?**

**M.I.:** Ez dut espero bizimodua askorik aldatzea. Ameriketara baino, Ameriketako talde batera noa. Igarri dudan aldaketa da beste itxaropen eta ilusio bat dudala. Nik uste onerako izango dela. Txirrindularitzak egin didan opari bat moduan hartzen dut. Batez ere gozatzea nahi dut.

**M.I.: Hurrengo urtean ere etorriko zarete lagunartearen ospakizunera?**

**M.A. eta H.Z.:** Urruti dago, baina bai, zin egiten dizugu.


AURREZTE BIKOITZA
Plastikozko poltsak erabiltzeari utziz gero
ZUK IRABAZTEN DUZU
INGURUMENAK IRABAZTEN DU
Laguntzaileak
WWF
FOCO
EROSKI
40 urte zurekin
www.eroski.es

**OHOREZKO MAILA** > 11. JARDUNALDIA

# Irabaztetik gertu egondakoa ez zuten galdu behintzat

Bi baloi zutoinera bidali zituen Mondrak, eta epaileak ez zuen ikusi Muruari egindako penaltia



Iker Lopez, Trintxerpeko bi atzelari gainean dituela. JOSETXO ARANTZABAL

MONDRA
**0-0**
TRINTXERPE

**Mondra** > Ander, Azpeitia, Illart (Losada, 57. min.), Ekain (Oier, 67. min.), Merkader, Mutilba, Zabaleta, Pavon (Loiti, 65. min.), Murua, Keixi (Laspiur, 69. min.) eta Lopez (Loiti 62. min.).

**Trintxerpe** > Urrutia, Kheirredine (Uranga, 58. min.), Zugarramurdi, Arregi, Etxauri, Jimenez, Cachafeiro (Urretabizkaia, 77. min.), Oruezabala (Sanchez, 58. min.), Madariaga, Muñoz eta Gomez.

**Bestelakoak** > Ez zen jende gehiegi batu Mojategiko futbol zelaian.

**JULEN IRIONDO** > ARRASATE

Etxean jokatu eta garaipenik lortu ez arren badago Trintxerperen aurkako partiduari alde onak topatzerik: laugarren astez jarraian Mondrak hutsean utzi zuen bere atea; galdu ere ez zuten egin, eta hori ere gerta zitekeen; eta ordubete inguruz txukun jokatu zuen etxeko taldeak. Hau da jarraitu beharreko bidea.

Talde biak sailkapenaren erdi inguruan iritsi ziren zapatuko lehiara, nahiz eta kanpokoak goitik gertuago eta etxekoak behetik, elkarrekiko bost puntuko aldearekin. Partiduko lehenengo ordu erdian izan ziren ia aukera guztiak. Mondrakoek atzean elkar ulertu ez eta Trintxerpeko jokalariak ate dena beretako zuela zutoin ondotik kanpora bidalitakoaren ostean, Lopezek, area kanpotik egindako jaurtiketa ederrean, eta Keixik, korner ondotik zuzenean jotako faltan, gertu izan zuten gola; zutoinak eragotzi zuen bietan.

Atsedenaldia bitartean bi taldeek izan zituzten aukerak, kontraerasoan eta estrategia jokaldietan batez ere. Azken minutuan barneraldi bikaina egin zuen Iker Lopezek ezker hegaletik, baina erdiraketara ez zen lagunik iritsi.

Bigarren zatian behera egin zuen jokoak, eta aukerak ere gutxi izan ziren. Onena Mondrak izan zuen: eskuinetik egindako jokaldian Muruari iritsi zitzaion baloia arean; atzelariari izkin egin eta eskuinez jaurtitzera zihoala ezkerreko oinean ostikoa jo zion defentsak. Epaileak ez zuen penaltia ikusi. Egia da, baita ere, Murua ez zela ohartu ezkerrean hobeto kokatuta zegoela Lopez.

**Ekain Garin** > Mondrako jokalaria

## "Lortutako puntua ona da; Trintxerpek talde polita dauka"

**J.I.** > ARRASATE

**Etxeko partiduak irabazi beharrekotzat jotzen dira beti; ez galtzeak ere balioa du ordea.**



J.I.

**Bi puntuk ihes egin dute gaur ere Mojategitik.**

Pare bat baloi bota ditugu zutoinera, baina eurak ere onak ziren kontraerasoan eta eduki dituzte aukerak. Lehia orekatua izan da. Dinamika onean gaude; lehen gol asko egiten zizkiguten, eta ari gara hori hobetzen. Trintxerpe talde ona da, bi hegalak oso onak ditu, eta ez nuke esango bi puntu galdu ditugunik. Puntua ona da.

**Iazkoa oso gogoan duzue oraindik.**

Hasierako partiduetan askotan gertatu zaigu. Bi partidu galduaz hasi ginen eta iazko mamuen itzala ikusi genuen; baina jendea ari da errekuperatzen eta espero dut hemendik aurrera neurketa politagoak jokatzea.

**Eta orain Euskalduna.**

Gure inguruan daude eta irabazi egin behar dugu.

**3. MAILA**

## Epailearen erabakiak baldintzatu zuen lehia

ZAMUDIO
**2-1**
ARETXABALETA

**J.I.** > BERGARA

Ondo hasi zuen Aretxabaletak Zamudioren aurkako partidua. Aukera garbia izan zuen Oinatzek, baina ez zuen asmatu. Etxekoek hartu zuten jokoaren kontrola, eta atsedenaldia baino lehen gola egin zuten.

Bigarren zatiko lehenengo minutuan epaileak egotzi egin zuen Oinatz, erabaki eztabaidagarrian. UDAkoek aurrera jo zuten, hala ere, berdinketaren bila, baina gola etxekoek egin zuten berriro kontraerasoan. Partidua amaitzeko bost minutu falta zirenean, Imanolek egin zuen 2 eta 1ekoa. Gordobilen eta Arenazaren mutilak saiatu ziren berdintzeko gola egiten, baina ezin izan zuten.

**OHOREZKO MAILA**

## Irabazi, nahiz eta talde erdi aldatu

BETI GAZTE
**0-2**
BERGARA

**J.I.** > BERGARA

Parekatuak izan ziren Beti Gazte eta Bergararen arteko aurreneko 30 minutuak. Handik aurrera, ordea, mahoneroak izan ziren nagusi. Bigarren zatian Manu Diazen mutilek izan zuten jokoaren kontrola, nahiz eta aukera gehiegi ez sortu. Estrategia jokaldiak izan ziren gehien.

Amaierarako 25 minutu falta zirenean, Diazek bi aldaketa egin zituen garaipenaren bila joateko. Cabanillasek 90. minutuan eta Eloik lau geroago egin zituzten golak. Aloñaren kontrako hamaikakotik bost lagunek bakarrik errepikatu zuten Lesakan; eta hala ere, irabazi.

**OHOREZKO MAILA**

## Sendotasun apur bat eta punteria falta

TOLOSA
**2-0**
ALOÑA MENDI

**J.I.** > BERGARA

Joko eta aukera aldetik partidu parekatua izan zen Tolosa eta Aloña Mendiren artekoa. Lehenengo 20 minutuetan etxekoak gehiago izan ziren, eta orduan egin zuten lehen gola.

Atsedenaldiaren ostean hainbat aukera izan zituen Aloña Mendik berdinketa egiteko. Baina berdinketa barik 2 eta 0ekoa iritsi zen. Oñatiarrek atzean sendotasun gehiago behar dute; eta aurrean, berriz, punteria. Asko kostatzen ari zaie gorriei golak egitea. Aukerak sortzen dituzte, baina ezin sartu. Jokalarien jarrera ona da, baina puntuak behar dira.

**PREFERENTEA**

## Bi penalti eta txartel gorri bat kontra

AMAIKAK BAT
**2-1**
ANTZUOLA

**J.I.** > BERGARA

Partidu hasieran aurretik jartzeko hainbat aukera izan zituen Antzuolak, baina Iban Unanueren mutilek ez zuten asmatu. Atsedenaldira hutsean iritsi zen partidua.

Bigarren zatiko kontraeraso batean Antzuolako atezaina atera eta penaltia adierazi zuen epaileak. Zubikaraik egin zuen berdinketa, baina antzuolarren areako jokaldi nahasi batean berriz ere eskua ikusi zuen epaileak. Antzuola hamar jokalarirekin geratu zen gainera. Bigarrena ere penaltiz egin zuten etxekoek. Ahaleginak egin arren, antzuolarrek ezin izan zuten berdindu.

**EMAKUMEEN LIGA**

## Aurkariari aukera apurrik eman gabe

AMAIKAK BAT
**0-5**
MONDRA

**J.I.** > BERGARA

Sendo jarraitzen du Mondrak Emakumeen Ligako lidertzan. Jokatutako zortzi partiduak irabazi dituzte arrasatearrek, eta adierazgarria da egindako eta jasotako gol kopurua ere: zazpi bakarrik jaso eta 47 egin. Amaikak Bati bost egin zizkioten.

Ondo jokatu zuen Mondrak Deban. Ederto ukitu zuten baloia, eta jokaldien ondorio izan ziren golak: Maitane Roak bi egin zituen, eta bana Alaine Roak, Ainhoa Alonsok eta Iraitz Etxabek. Aukera gehiago ere izan zituzten. Debakoek, ordea, ez zuten batere arriskurik sortu Arrasatekoen ate inguruan.

**EUSKADIKO TXAPELKETA** > 10. JARDUNALDIA

# Etxekoak erasoan gaizki, besteak ondo defentsan

## Hiruzpalau goleko aldearekin ibili ziren kanpokoak, eta etxekoak gerturatu arren ezin punturik urratu

FORD MUGARRI
**27-29**
SUCESORES DE AGIRRE

**Ford Mugarri** > Igor Egaña, Valle, Altzelai, Aitor Eskibel, Jonan Eskibel (3), Iker Zubiaurre (4), Masip (3), Santos (1), Guruzeta, Aldanondo, Nestor (6), Isasmendi (4), Herrero (6) eta Arrese-Igor.

**Sucesores de Agirre** > Arkaitz Palacios, Aitor Suso, Larrea (3), Ruiz de Luzuriaga (11), Gomez, Hierro, Moreno (2), Gonzalez, Ugarte (5), Barrio, Martinez (1), Rodriguez, Jon Azkoitia (4) eta Unai Rubio (3).

**Atsedenaldiko emaitza** > 13 eta 13.

**JULEN IRIONDO** > ARRASATE
Aurreko jardunaldian, Egiaren kantxan, denboraldiko aurreneko porrota jaso ostean, garaipenaren bidera itzuli nahi zuen Ford Mugarrik Sucesores de Agirre taldearen kontra. Ezin, ordea.

Denbora askoan ibili ziren kanpokoak hiruzpalau goleko aldearekin. Bigarren zatian lortu zuten etxekoek markagailuan gerturatzea, baina ezin berdintzera iritsi. Erritmo desberdina maite duten taldeak dira, eta kanpokoen motela nagusitu zitzaion bizi jokatzeko etxekoek zuten asmoari.

Lehenengoa 13na amaitu ostean, bigarren zatian erritmo bizia inposatu eta partidua irabazteko itxaropenarekin atera ziren kantxara Ford Mugarriko jokalariak. Baina erasoan gaizki ibili ziren Edu Orgazen mutilak, eta defentsan ondo gasteiztarrak. Arrasatekoek ez zuten baloia mugitzen asmatu, kanpotik ez zuten apenas golik sartu, eta ezta bigarren jokaldietan ere. Honez gain, euren atezainak arrasatearren hainbat penalti eta jaurtiketa garbi gelditu zituen azken minututan.

**BI PORROT JARRAIAN**
Aurreneko zortzi partiduetan porrotik jaso ez ostean, azken bi partiduak galdu egin dituzte Ford Mugarrikoek. Dena dela, ez lehengo bolada onak, ez oraingo txarrak, ez dute arrasatearren asmoa aldatzen: "Gure asmoa da ahalik eta goren izatea, eta aurrekoren batek huts egiten badu hor egotea", zioen atzoko partidu amaieran Edu Orgazek.

Datorren jardunaldian El Pilarren kantxan, Gasteizen, jokatuko du Ford Mugarrik. Sailkapenean behean dagoen taldea da arabarra, eta arrasatearrek nahi dute garaipena lortzea: "Batez ere berriro morala hartzeko", adierazi zuen Orgazek.


Defentsa ona egin zuten gasteiztarrek, eta traba asko jarri. JOSETXO ARANTZABAL

**Kepa Isasmendi** > Ford Mugarriko jokalaria

### "Erritmo bizian jokatzen saiatu gara, baina euren motelak itzali gaitu"

**J.I.** > ARRASATE
**Taldetik taldera aldea egoten da. Bizkor jokatzea maite dute batzuek; joko motela beste batzuek.**


J.I.

**Euren erritmoa nagusitzea lortu dute.**
Gu saiatu gara erritmo bizian jokatzen, baina euren erritmo motelak zailtasun asko jarri dizkigu. Horrelako taldeekin gu ere itzali egiten gara.

**Bigarren porrota jarraian.**
Lanean jarraitu behar dugu, hau luzea da. Ondo hasi ginen, eta orain bi partidu galdu ditugu. Gure asmoa ez zen goi-goian egotea. Jokatzen gozatzea da gure asmoa. Eduki dugun egutegiarekin, aurrez esan baligute bakarrik bi partidu galdu behar genituela... Kantxa zailetan jokatu eta irabazi dugu. Oraindik gerra asko emango dugu.

**Baina horrela hasita aurrean egon gurako duzue...**
Bai, baina guk ez dugu aurrean egoteko presiorik, Barakaldok, Egiak eta azken bizpairu urteetan igoera fasea jokatu dutenek duten bezala.

## Bergarako kadeteek 26 eta 34 galdu zuten etxean Usurbilen kontra

Kadete mailako Gipuzkoako Txapelketako liderra izan zen zapatuan Labegaraietan bisitan, eta azkenean bete egin ziren aurreikuspenak. Bergara sailkapenaren atzealdean dago bost punturekin, eta bien arteko partiduan markagailuan islatu zen sailkapeneko aldea.

Usurbilgoek orain arte jokatutako zortzi partiduak irabazi dituzte; bergararrek, ostera, bi baino ez dituzte irabazi, eta beste bat berdindu. Datorren jardunaldian Pulporen kantxan jokatuko dute mahoneroek.


J.I.

> EUSKADIKO TXAPELKETA
### Aurreneko garaipena lortu dute Aloñako senior neskek

Denboraldi hasiera txarra ari zen egiten senior mailako nesken taldea. Orain arteko partiduetan hiru zituen alde handiekin galduak, eta bakarra berdindua. Asteburuan iritsi da lehen garaipena, eurekin batera atzeko postuetan dabilen Zarautzen kantxan: 23 eta 33 irabazi dute gorriek.

> EUSKADIKO TXAPELKETA
### Ezustekorik ezin izan zuten eman Aloñako gazte mailako neskek

Verkol Aloña Mendiko gazte mailako neskek kontrario txarra zuten jardunaldi honetan denboraldiko lehenengo garaipena lortzeko. Zarautz da kategoriako liderra partidu bakarra galduta, eta oraingoan ere ez zien oñatiarrei aukerarik eman: 19 eta 27 irabazi zuten kostaldekoek.

> GIPUZKOAKO TXAPELK.
### Bergarak ezin irabazi Elgoibarren kantxan, gol askoko lehian

Erasoko jokoa nagusitu egin zitzaion defentsari Elgoibar eta Bergararen arteko Gipuzkoako Txapelketako partiduan. Bi taldeek erraz aurkitu zuten aterako bidea, eta markagailua estua izan zen arren mahoneroek esku hutsik bueltatu behar izan zuten Elgoibartik: 34 eta 33.

> GIPUZKOAKO TXAPELK.
### Denboraldiko lehenengo puntua Aloña Mendirentzat

Zortzigarren jardunaldia zuen oraingoa Gipuzkoako Txapelketak, eta orain arteko partidu guztiak galduak zituen Aloña Mendik. Oñatiarrek Legazpin lortu dute sasoi honetako lehenengo puntua. 29na berdindu zuten Hegialderen kantxan. Elgoibar izango da hurrengo aurkaria.

> 2. TERRITORIALA
### Punturik gabe zegoen Legazpik bat eraman zuen Arrasatetik

Teorian aurkari erraza zuen 2. Territorial mailako Arrasatek asteburu honetan: orain arteko partidu guztiak galduak zituen Legazpi, hain justu ere. Hara non, legazpiarrek Arrasaten lortu dute denboraldiko lehen puntua. 26na berdindu zuten. Iñausti izango da Arrasatekoen hurrengo kontrarioa.



Epailearen lana eragozpen izan zen Ointxekoentzat. JOSETXO ARANTZABAL

**SASKIBALOIA** > MU - E.H.U. ARABA

# Epailea kontra izanda, ia ezer ezin izan zuten egin jokalariek

Puntu gutxigatik galdu zuten Ointxeko mutilek, baina epailearen aurkako jarreraren kontra ezin izan zuten ezer egin, eragotzi egin; zien hark

**JON BEREZIBAR** > ARRASATE

Ointxeko mutilek eutsi bazioten ere, ez zen egon larregi egiterik eta egoera horrek erantzule bakarra izan zuen: epailea. Puntu gutxigatik galduta ere, epailearen lana oztopo eta eragozpen izan zen Arrasateko taldeak aurrera egiteko, nahiz eta jokalariek une oro goiari eusten saiatu. Epailea aurka izanda, gutxi zegoen euren esku azkenean.

**GAINDITU EZINEKOA**

Makina bat falta adierazi eta gero, hirugarren atalean jokalari bat kanporatu zuen epaileak eta lehen ilun zegoena, guztiz belztu zuen horrek. Epailearen gogortasunak eragin atzeraezina izan zuen EHU Araba taldearen aurkako partiduan eta Arrasatekoek garesti ordaindu zuten zapatuan etxean jokatutako partidua. Erresignatu, besterik ez.

**GIPUZKOAKO TXAPELKETA** > 5. JARDUNALDIA

# Zonakako defentsa hautsi eta erraz irabazi zuten

Kanpokoen hiruko jaurtiketak eragoztea izan zen norgehiagokako beste gako garrantzitsua

ESKORIATZA
**66-35**
ALDE ZAHARRA

**JULEN IRIONDO** > ESKORIATZA

Nahikoa garaipen erosoa lortu zuen Eskoriatzak zapatuan Alde Zaharraren kontra. Gipuzkoako Txapelketako 5. jardunaldia zen, eta eskoriatzarrek goigoian jarraitzea zuten jokoan.

Alde Zaharrak zonakako defentsa egin zuen hasieratik, eta erasoan hainbat hiruko lortu zituen.

**JOKALARI GARAIAK**

Etxekoek argi ikusi zuten egin beharrekoa: saskiratzeak lortzeko euren jokalari garaiak baliatu, eta atzealdean kanpokoek 6'25ko marratik jaurti zezaten eragotzi. Atsedenaldirako bideratu zuten partidua, eta azkenerako alde handia lortu zuten.



Zonakako defentsa egin zuten Alde Zaharrako neskek. JOSETXO ARANTZABAL



**ARETO FUTBOLA** > EUSKAL LIGA

# Aurkari serioari tinko eutsi arren, etxekoek ezin izan zuten aurrera egin

Petronor aurkari serio eta tematia dela jakinda, gogor eutsi zioten Eskoriatzakoek

ESKORIATZA
**2-3**
PETRONOR

**JON BEREZIBAR** > ESKORIATZA

Partidua espero baino parekatuagoa joan bazen ere –bizkaitarrak lehen postuetan daude mailaz igotzeko–, aurkari atzeko ibiltzea egokitu zitzaien eskoriatzarrei atzo arratsaldekoan. Talde serioaren fama daukate Petronorkoek eta egia da hori. Hala ere, emaitza iraultzeko aukera izan zuten azken zatian etxekoek baina nahi ere ezin; defentsan egindako akatsak ondo aprobetxatu zituzten-eta aurkariek hirugarren golarekin garaipena bermatzeko, igoerako helburuarekin. Etxekoek serio jardun bazuten ere, lanean jarraitu beharko dute.



Defentsako hutsak garesti irten zitzaizkien etxekoei. JOSETXO ARANTZABAL



Aurkari gogorraren aurrean, eskoriatzarrek tinko eustea lortu zuten. J.A.

## Futbola

### 3. MAILA

**Sailkapena**

| | Punt. | Jokat. |
|---|---|---|
| 1. **Real Sociedad B** | **31** | 15 |
| 2. **Amorebieta** | **30** | 15 |
| 3. **Beasain** | **26** | 15 |
| 4. **Zamudio** | **24** | 15 |
| 5. **Durango** | **24** | 15 |
| 6. **Elgoibar** | **23** | 15 |
| 7. **Amurrio** | **23** | 15 |
| 8. **Basconia** | **23** | 15 |
| 9. **Zalla** | **22** | 15 |
| 10. **Gernika** | **22** | 15 |
| 11. **Aretxabaleta** | **21** | 15 |
| 12. **Arenas Getxo** | **20** | 15 |
| 13. **Santurtzi** | **18** | 15 |
| 14. **Portugalete** | **18** | 15 |
| 15. **Leioa** | **18** | 15 |
| 16. **Laudio** | **17** | 15 |
| 17. **Lagun Onak** | **15** | 15 |
| 18. **Eibar B** | **14** | 15 |
| 19. **Retuerto Sport** | **13** | 15 |
| 20. **Salvatierra** | **6** | 15 |

**Emaitzak**

| | |
|---|---|
| Gernika - Real Sociedad B | 1-0 |
| Zalla - Eibar | 0-1 |
| Laudio - Arenas Getxo | 1-1 |
| Lagun Onak - Santurtzi | 0-2 |
| Beasain - Amorebieta | 0-0 |
| Durango- Retuerto | 4-1 |
| Basconia - Leioa | 4-1 |
| Zamudio - **Aretxabaleta** | 2-1 |
| Elgoibar - Salvatierra | 3-1 |
| Portugalete-Amurrio | 4-0 |

**Hurrengoak**

**Aretxabaleta** - Elgoibar

### OHOREZKO ERREGIONAL MAILA

**Sailkapena**

| | Punt. | Jokat. |
|---|---|---|
| 1. **Ondarroako Aurrera** | **27** | 11 |
| 2. **Pasajes** | **25** | 11 |
| 3. **Zarautz** | **19** | 11 |
| 4. **Ordizia** | **19** | 11 |
| 5. **Idiazabal** | **18** | 11 |
| 6. **Berio** | **18** | 11 |
| 7. **Oiartzun** | **18** | 11 |
| 8. **Bergara** | **17** | 11 |
| 9. **Trintxerpe** | **17** | 11 |
| 10. **Tolosa** | **15** | 11 |
| 11. **Hondarribia** | **15** | 11 |
| 12. **Hernani** | **12** | 11 |
| 13. **Mondra** | **12** | 11 |
| 14. **Aloña Mendi** | **11** | 11 |
| 15. **Euskalduna** | **10** | 11 |
| 16. **Real Union** | **9** | 11 |
| 17. **Beti Gazte** | **8** | 11 |
| 18. **EHU Vasconia** | **7** | 11 |

**Emaitzak**

| | |
|---|---|
| Beti Gazte-**Bergara** | 0-2 |
| Tolosa - **Aloña Mendi** | 2-0 |
| Hondarribia - Berio | 0-3 |
| Pasajes-Ondarroa | 4-2 |
| Real Union - Euskalduna | 3-1 |
| **Mondra** - Trintxerpe | 0-0 |
| Oiartzun - E.H.U. Vasconia | 1-6 |
| Hernani - Idiazabal | 0-0 |
| Ordizia-Zarautz | 0-1 |

**Hurrengoak**

**Bergara -** Tolosa
**Aloña Mendi-**Hondarribia
Euskalduna-**Mondra**

### BESTELAKOAK

| **GAZTEEN LIGA NAZIONALA** | |
|---|---|
| Aretxabaleta - Hernani | 4-1 |
| **GAZTEEN EUSKAL LIGA** | |
| Bergara - Laudio | 2-3 |
| **ERREGIONAL PREFERENTEA** | |
| Amaikak Bat - Antzuola | 2-1 |
| Aretxabaleta - Lagun Onak | 2-3 |
| **LEHEN ERREGIONALA** | |
| Gazteak - Mondra B | 3-2 |
| UDA Arizmendi - Mutrikuarrak | 0-1 |
| **GAZTEEN OHOREZKO MAILA** | |
| Zumaia - Mondra | 2-3 |
| Aloña Mendi-Urola | 1-1 |
| **GAZTEEN LEHEN MAILA** | |
| Bergara - Urola | 1-2 |
| Eibartarrak - Arizmendi | 6-0 |
| Soraluze - Aretxabaleta B Arizmendi | 3-5 |
| **OHOREZKO KADETEAK** | |
| Aloña Mendi - Aretxabaleta Arizmendi | 0-2 |
| Ordizia - Bergara | 2-1 |
| **KADETEEN 1. MAILA** | |
| Arizmendi - Urki | 3-0 |
| Elgoibar - Bergara | 6-0 |
| Aloña Mendi - Arrasate - | 2-2 |
| Eibartarrak- Aretxabaleta | 1-2 |
| **EMAKUMEZKOEN LIGA** | |
| Arizmendi - Elgoibar- | 1-1 |
| Eibar - Bergara | 3-1 |
| Amaikak Bat - Mondra | 0-5 |

## saskibaloia

### MAILAZ MAILA

| **SENIORRAK AUTONOMIKOA** | |
|---|---|
| Diocesanas - Aloña Mendi | 81 - 77 |
| **SENIOR MUTILAK** | |
| Aloña Mendi-Gabi Jatetxea | 72-39 |
| MU-Ruibal- | 78-41 |
| Kostkas-Soraluce BKE | 67-58 |
| Katu Kale-Aloña Mendi | 64-66 |
| **SENIOR NESKAK** | |
| Eskoriatza-Alde Zaharra | 66-35 |
| **GAZTE MUTILAK** | |
| Zarautz-MU B | 59-39 |
| BKL-Aloña Mendi | 87-81 |
| MU-Atl. SS | 64-50 |
| Billabona-Soraluce BKE | 44-28 |
| **GAZTE NESKAK** | |
| Eskoriatza-Añorga | 34-26 |
| **KADETE MUTILAK** | |
| Goierri-Aloña Mendi | 68-41 |
| Bide Bide Take-MU | 30-71 |
| Zarautz-Soraluce BKE | 47-57 |

## eskubaloia

### MAILAZ MAILA

| **EUSKADIKO SENIORRAK, GIZONEZKOAK** | |
|---|---|
| Ford Mugarri-Sucesores | 27-29 |
| **EUSKADIKO SENIOR T. EMAKUMEZKOAK** | |
| Zarautz-Verkol Aloña | 23-33 |
| **GAZT. EUSKADIKO T. EMAKUMEZKOAK** | |
| Verko Aloña-Zarautz | 19-27 |
| **GIPUZKOAKO LEHEN TERRITORIALA** | |
| Elgoibar-Soraluze BKE | 34-33 |
| Hegialde-Izarraitz Aloña Mendi | 29-29 |
| **GIPUZKOAKO BIGARREN TERRITORIALA** | |
| Arrasate-Legazpi | 26-26 |
| **GAZTE MAILA, GIZONEZKOAK** | |
| Aloña Mendi-Amenabar | 25-25 |

## errugbia

### MAILAZ MAILA

| **EUSKAL LIGA** | |
|---|---|
| Durango Arrasate | - |

Harmailatik

**Debagoieneko kirola GOITBn**

Astelehenero 22:15ean.

Goitb Goiena Telebista
*Ikustekoa!*



**Juan Vallejo** > Mendigoizalea

# "Azkeneko 10 urteetan asko aldatu da Himalaia; estilo aldetik okerrera goaz"

ARANTZAZU EZKIBEL > OÑATI

**Juan Vallejo mendigoizale ospetsua Oñatin izan zen joan den astean. Aloña Mendiko mendi sailak antolatuta *Beste Gasherbrunak* ikus-entzunezkoa eskaini zuen, eta kultura etxeko aretoa bete egin zen. Vallejorekin izan ginen, eta aurten egindako bi saiakerez ere galdetu genion.**

**G-II eta G-IV mendietara egindako saiakerak izango zenituen berbagai Oñatin.**

Azkeneko urte hauetan egin ditudan espedizioko irudiak ekarri ditut. G-IIko iparraldeko aldean 2006. urtean egindako saiakera batekin hasi nuen ikus-entzunezkoa; bigarren partean, iazko udan G-IVra egindako saiakera azaldu nuen.

**Zaletasuna ofizio bihurtu duzula esan daiteke. Mendi irteerez gain, mendian bizi izandakoak kontatzea ere ofizio bihurtu da?**

Bai, azkeneko urteetan mendiaz bizi naiz. Urtero egiten ditugu espedizioak eta saiatzen gara hortik bizi izaten; ikus-entzunezko hauek horien lekuko dira.

**Aurten beste bi irteera egin dituzue: Makalura eta Everestera, Hornbein ibilbidetik. Nola baloratzen duzu aurten egindako lana?**

Oso urte polita izan da. Aipatutako bi irteeretan, ez udaberrian ezta udazkenean ere ez ditugu gailurrak egin. Baina esan behar da erronka oso zailak zirela. Nik uste dut saiakera politak egin ditugula gailurrik ez egin arren.

**Gailurrari berari baino garrantzi handiagoa eman diozue estiloari?**

Bai, hala da. Estiloari eman diogu garrantzia, zelan eskalatu. Horrekin nahiko konforme etorri garela esan behar da.




Vallejo, Oñatiko kultura etxeko aretoan; atzean, haren irteeretako irudi bat. ARANTZAZU EZKIBEL

**Helburua ez zen nola-nahikoa izan: Everestera igotzea sherpa, soka eta oxigeno barik.**

Orain arte behin bakarrik igo dute estilo horretan, eta guk gura genuen bigarrenak izan. Baina ez da posible izan.

Irteera bat modu horretan planteatzeak zailtasunak dakar. Bideak konpromiso handiagoa eskatzen du. Kontuan hartu behar da soka barik egin gura genuela; hortaz, ezbeharren bat gertatuz gero, arazoak izan genitzakeen. Konpromisoa handiagoa da, eta, gainera, zailagoa. Gauza guztiak motxilan eraman behar dira eta ezin duzu goiko kanpalekua prestatu. Horrek dena zailtzen du.

**Aurrera begira estilo berean jarraitu gura duzue?**

Bai, bai... hori da asmoa. Beste mendi batzuk egiten saiatuko gara, baina estilo berean: estilo alpinoan edo, bestela, bide zailetatik.

**Zer ematen dizu saiakerak estilo horretan egiteak?**

Asko! Azken finean, bide arruntak edo samurrak pila bat egin ditugu. Orain, motibatzen gaituena da bide zailak egitea.

**Azkenaldian oso kritikoa izan zara espedizio batzuekin. Sokak jartzearen alde ez zaude zu. Zer gertatu da?**

Ez dakit kritiko den berba egokia, beharbada bai. Behin eskutitz bat idatzi nuen soken gainean nire iritzia ematen. Behin betiko gero eta soka gehiago jartzen dabiltza Himalaian. Shisha Pangmako hegoaldeko bidean, adibidez, ez da inoiz sokarik jarri, baina azkenaldian jendea sokak jartzen dabil. Ni ez nago sokak jartzearen kontra, baina leku berezi horretan bai. Historia daukan bidea dela uste dut, bide guztiak era alpinoan ireki izan dira eta horrela jarrai dezan gurako nuke.

**Asko aldatu da zuek garai batean ezagutu zenuten Himalaia eta gaur egungoa?**

Bai, asko aldatu da azkeneko 10 urteetan. Gero eta jende gehiago joaten da, behin betiko soka asko erabiltzen da, eta baita sherpa asko ere. Agian, estilo aldetik okerrera goazela uste dut. Horregatik, gu saiatzen gara estilo hori mantentzen.

**Aurrera zenezake proiekturen bat?**

Zehazki ez, ideia mordoa daukagu buruan, baina oraindik zehaztu barik. Egin ez ditugunak egiten saiatuko gara berriro, baina ez datorren urtean.

**Mendian egoera gogorrak bizi izan dituzu. Zer sentitzen da horren aurrean?**

Ez dakit nola espresatu. Horrelako gauza baten aurrean, onik irtetean bakarrik pentsatzen da. Gero, kanpalekuan egonda, buelta gehiago ematen zaizkio buruari. Baina estilo honetan ibiltzeak dakarrena da arrisku hori. Azken finean, badakigu nora goazen.

**"Everest igotzeko orduan, gailurrari baino gehiago, estiloari eman diogu garrantzia"**

**"Hornbein bidetik behin bakarrik igo dute Everest; bigarrenak izan gura genuen"**

**"Ez nago sokak jartzearen kontra, baina bai bide berezi batzuetan"**

**"Ezbeharren aurrean, menditik onik, irtetean bakarrik pentsatzen da"**

IKUS-ENTZUNEZKOA

## Sergi Ricart kataluniarrak 'Himalaia bat' dokumentala eskainiko du bihar Oñatin

Aloña Mendiren eskutik, Sergi Ricart-en *Himalaia bat* dokumentala ikusteko aukera egongo da bihar kultura etxean, 19:30ean. Ricart mendizaleak bide pertsonal bat erakutsi gura du ikus-entzunezkoaren bitartez. Begirada intimo eta grinatsua izango da; hain zuzen, Himalaiari buruz mendizaleak duen begirada subjektiboa.

10.000 argazkiren artean kontu handiz aukeratu ditu irudiak Ricartek ikus-entzunezkoa egiteko. Gainera, irudi berezi horiek musikarekin lagundu ditu, pertzepzio berezi horri zentzu artistikoa emanez.

Giza harreman biziak alde batera utzita, alpinismoari dagokionez bidaia horrek hainbat jarduera egiteko aukera eman zion mendizale kataluniarrari. Besteak beste, 5.000 eta 6.000 metrotik gorako zazpi gailur eskalatu zituen, eta bost bide berri ireki zituen, gehienak bakarka. Ricartek berak adierazi bezala, poz handien eman ziona izan zen gailur horietatik hiru inoiz zapaldu gabeak zirela. Lorpen horregatik, hain zuzen ere, 2008ko FEEC sarietan maila handiko alpinismo jarduerarik onenaren saria jaso zuen Sergi Ricartek.



Ume jaioberri bat negarrez. AVODROCC

**HIZKUNTZA** > HAURRAREN NEGARRA

# Amaren ahotsaren araberakoa da jaioberriaren negarra

Guraso frantsesak eta guraso alemaniarrak dituzten bi jaioberriren negarrak ikertu ditu Alemaniako zientzialari talde batek

**OIHANA ELORTZA** > ARRASATE
Ondorio horixe atera dute Alemaniako Wurzburg unibertsitateko zientzialariek. Hiru egun dituen jaioberri frantses baten eta denbora bera duen ume alemaniar baten negarrak aztertu dituzte Alemaniako ikerlari horiek, eta, azterketaren amaieran gauza ziren esateko nongoa zen umea, negar egiteko moduagatik. Ikerketa horrek dio adin horretako ume frantsesen negarraren tonua behetik gora doala eta ume alemaniarrena, aldiz, alderantzizkoa dela.

**AMAREN AHOTSA**
Alemaniako zientzialari horien esanetan, beraz, amak erabiltzen duen ahotsak, tonuak, zerikusia du umearen negarrarekin. Aditu batzuek diote umeek gozatu egiten dutela amak berba egin edo abestu egiten dienean, baina haurdun dauden emakumeek ez dutela hori egin beharrik uste dute ikerlari horiek, amak esaten duena, hitz egiten duena, entzuten duelako umekiak. Agian, arrazoi horregatik jaioberriak bereiztu egiten ditu amaren eta gainerakoen ahotsak.

**EUSKARA** > FILMAK

## Euskarazko filmak Gabonetan zine aretoetan

Mota guztietako filmak izango dira, baina haurrei zuzendutakoek dute lehentasuna

**O.E.** > ARRASATE
Eusko Jaurlaritzak eta Euskadiko Filmategiak *Zinema bultzatuz* ekimena jarri dute martxan. Egitasmo horren barruan, euskaraz egindako eta euskarara bikoiztutako filmak emango dituzte Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako 19 udalerritako zinema aretoetan abenduaren 2tik urtarrilaren 6ra.

Programan parte hartuko duten hiru lurralde historikoetako 19 udalerri horiek erabakiko dute zein film emango duten. Guztira ekimen honen baitan 150 emanaldi izan daitezkela aurreikusten du Eusko Jaurlaritzak, gehienak Gabonetako egunetan pilatuko diren arren.

**HAURRENDAKO FILMAK**
Mota guztietako filmak emango dituzte, baina umeei zuzendutakoek izango dute lehentasuna, behinik behin. Oraingoz, *Zorion perfektua* eta *Pluk eta bere garabia* filmek izan dute eskaera handien.



*Pluk eta bere garabia* filmeko irudia. GOIENKARIA

> ERAKUSKETA

### Jostailuen erakusketa egingo dute Oñatiko Txaloka ludotekan zapatuan eta domekan

Oñatiko Udaleko Euskara eta Hezkuntza Sailak antolatuta, jostailuen erakusketa egingo dute azaroaren 28an eta 29an. Txaloka ludotekan egongo da jostailuen erakusketa hori eta jostailuen gaineko aholkuak ere emango dizkiete hezitzaileek gurasoei.

Erakusketa bi zatitan banatuta egongo da: ludotekaren gela handian, ukitu egin daitezkeen jostailuak jarriko dituzte eta gela txikian, berriz, euskarri informatikoan dagoen materiala egongo da ikusgai. Jostailu guztiak sailkatuta egongo dira adinaren arabera (9 urte artekoendako) eta motaren arabera (sinbolikoak, arau-jolasak, jolas kooperatiboak...).



Bi nerabe barrezka. BLOCO

**GAZTEAK** > EMANTZIPAZIOA

## Emantzipatutako gazteen kopuruak, gora

Tamaina handiagoan emantzipatzen direnak emakumeak eta gazte helduak dira

**O.E.** > ARRASATE
Gazteen Euskal Behatokiak egin duen Euskadiko Gazteak 2008 azterlanaren arabera, 15 eta 29 urte bitarteko gazteen %19,1ek diote gurasoen etxetik kanpo bizi direla eta %78,5ek gurasoenean. Datu horiek 2004koekin alderatuta, gurasoekin bizi diren gazteen proportzioak behera egin du eta gurasoen etxetik kanpo beren kabuz bizi direnenak, aldiz, gora. Azterlan horrek bildu dituen datuok sexuaren arabera aztertuz gero, antzeman daiteke 15 eta 29 urte bitarteko nesken %75,2 jatorrizko familiaren etxean bizi direla. Mutilen artean ehuneko hori % 81,9 da. Adin-taldeei dagokienez, gazteenetatik (15 eta 19 urte bitartekoen artetik) ia guztiak familiaren etxean bizi dira. Adinez nagusiagoen taldeetan (20 eta 24 urte bitartekoen eta 25 eta 29 urte bitartekoen artean) gora egiten du jatorrizko familiaren etxetik kanpo bizi diren gazteen proportzioak.

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko,
**zatoz gure webgunera**
guraso.com



**> SAINT ALVIA**
Kanadatik The Clashen oihartzunak, ska, reggaea eta entzuleekiko hartu-eman paregabea **> 30**



**> RUPER ORDORIKA**
'Haizea garizumakoa' diskoaren aurre-aurkezpena egin zuen Leintz Gatzagan **> 30**



**> ZARZUELA**
Esperotako arrakasta itzela izan zuen 'La corte del faraon' ikuskizunak Arrasaten **> 32-33**



Goikobalu, nagusiak. J.A.



*Tutira Mai* dibertigarriarekin entretenitu zituzten azken zatian entzuleak, belaunaldi guztiek bat eginda. JOSETXO ARANTZABAL



4-6 urte bitarteko umeen taldea ere igo zen aldarera. JOSETXO ARANTZABAL



Gazte taldekoek ere maila ona erakutsi zuten . JOSETXO ARANTZABAL

# Beste hogei ere aise bete ditzaketela erakutsiz, agurra

**20 URTE KANTUAN**
Urrian hasita, egubakoitzean amaitu zituzten ospakizunak

**UME ZEIN NAGUSI**
Haurren ahotsetatik zailduenetara, talde guztiek kantatu zuten

**JON BEREZIBAR** > ARRASATE

Hogei urte egin eta beste hainbeste betetzeko bermea badaukatela erakutsita, amaitu zituzten ospakizunak parrokian. 5 urteko haurretatik hasi eta ilea ondo urdindutako beteranoen ahotsik zailduenetaraino, hainbat belaunaldi aldarera igota egin zuten agur ekitaldia. Esan barik doa herriko ahotsik politenen deiari jarraituta, Arrasateko parrokia bete egin zutela senide, lagun eta jarraitzaileek. Haiei ere eskerrak eman zizkieten abesbatzako arduradunek lehenik eta behin ekitaldiarekin hasteko.

Emanaldia zabaltzeaz etxeko txikienak arduratu ziren, 4 eta 6 urte bitartekoak, guraso eta senideak txoratuz. Taldea orain gutxi osatu dute; eta antza, gogotsu dihardute txikienek. Beste 20 urteko osasuna, gutxienez, izango du beraz Goikobaluk. Beste modu baten ezin eta Pirritx eta Porrotx pailazoek ezagun egindako kantuarekin amaitu zuten batzuk urduri, gehienak despistatuta eta senide guztiak adurra ezpainetan. Nagusiagoak, Goikobalu Txikoak, irten ziren jarraian pianoan lagun Rakel Murgiondo zutela. Hauek ere txikiek utzitako giro politari eutsi guran, eskujoko eta dantzatxoekin osatu zuten bi abestiko emanaldia Euskal Herriko zein Afrikako kantuekin.

**SOLEMNITATEA ETA JAIA**

Goikobalu Gazte eta nagusiek, baina, solemnitatea eman zioten ekitaldiari, abesti hain ezagun ez, agian, baina ezin ederragoekin. Bukaerarako tonu serio hori alde batera utzi eta ospakizuna dela gogorarazteko, *Arroz con leche* abesti alaia kantatu zuten jai giroa parrokiako txoko guztietara zabalduz.

Agurrerako garaia iristerakoan txiki geratu zitzaien, baina, aldarea. Ezin bestela, talde guztietako partaideak batu zitzaizkien nagusiei eta ikuskizun polit eta dibertigarria egin zuten guztiek elkarrekin *Tutira Mai* dibertigarria abestu eta dantzatuta. Txaloak eta barreak eta azkenean: agur borobila. Txirula, perkusio eta pianoarekin urteurreneko abestia kantatu zuten guztiek ahots bizi eta eztiz: *Bi begirada, zeru bat*. Abeslariak hunkituta eta entzuleak zutik, txalo zaparradarekin amaitu zuten ospakizun ekitaldi ederra.

**MUSIKA** > RUPER ORDORIKA

# Gertutasuna eta kontrastea



Arkaitz Miner biolinarekin, Asier Oleaga adi eta Ruper abesten. IKER BARANDIARAN



Mota guztietako ikusleek arreta osoa jarri zuten. I.B.

**NON:** Gatzagako Soran hotelean.
**EGUNA:** Zapatua, azaroak 21.
**ZENBAT JENDE:** 100 lagun inguru.
**IRAUPENA:** Ordu eta erdi.

**IKER BARANDIARAN** > LEINTZ GATZAGA

Ruper Ordorikak diskoaren aurkezpen biraren aurretik emanaldia egin zuen Leintz Gatzagan, Korrikaren aldeko batzordeak antolatuta. Eta, jakina, halako areto txikian entzutea luxua izan zen: intimitatea, gertutasuna eta gainera, soinu ederra Xabi Labaienen eskutik.

Estreinatutako diskoarekin eta musikari berriekin etorri zen Ruper, kantuei bestelako barniza eman zietenak: batetik, kantu berri goxo eta gardenak ñabardurez eta giroez ederto jantziz; eta bestetik, aurreragoko pieza ezagunei ukitu askoz rockeroagoa gehituz. Alboan izan zituen Lutxo Neira baxu jotzailea, Asier Oleaga bateria eta Arkaitz Miner aspaldiko ezaguna, gitarra, mandolina eta biolinaren kargu.

**TENPO LASAIAGOA ETA GIROAK**

Aurrean familiak eta umeak, eta atzerago inguruetako zaleak adi zituela, oñatiarrak leinztarrak poltsikoan sartu zituen hasieratik, bere xamurtasunak eta kantuek eurek lagunduta.

Tenpo lasaiagoa, baina ñabardura gehiago duten *Zorioneko moilan* kutsu ilunekoa Gatzagara itsasoaren soinua ekartzeko ahaleginetan, *Jakin nahi nuke* poperoagoa, *Zure etxera noa* xamurra eta *Zuhaitz alferra* ia errezitatutakoa izan ziren lan berritik interpretatzen lehenak.

Halako baten, tenpo kontrolatu horretatik irtenda, *Nor da?, Martin Larralde* eta *Herdoilarena* ezagunak inoiz baino biziago eta gitarreroago landu zituzten.

Handik Mikel Laboaren omenezko *Sekulabelardiko kantaria* pieza eder eta folkyra salto egin zuten; eta jarraian *Egunkariaren* auzia gogora ekarri zuen *Zaindu maite duzun hori* Neil Youngen arimarekin eta biolin eta guzti, txalo artean eskainiz.

**ROCK PIZTIAK ERE BADIRA**

Disko pausatuago eta detailetan aberatsagoa den honetan murgildu gintuen berriro: *Urrun, urrun* ia xuxurlatua, euskarazko rock baikorraren ispilu *Haizea garizumakoa* eta *Errekazola* apur bat malenkoniatsuagoa.

Horren ostean, geldiune bat egin zuten Gatzagari Ruperren alegiazko *Hiriak*-en multzoan sartuta ere badagoela jakinarazi eta aretoa kantuan jartzeko.

Hain maitatua eta partekatua den kantu horri estreinako *Ohabideko bordan* piezak jarraitu zion. Folk eta rock pausatuaren oihartzunak ekarri zituen. Emanaldia bukatutzat ematen saiatu arren, ezinezkoa zen. Horregatik, *Ene begiek* entzuleekin batera abestu eta kantu hilezkorrari bizitasuna eman zioten, kontrasteek eta barrenak eskatuta.

Jakina da Ruperrek kantuak borobildu eta mimatu egiten dituela eta, beti ere, puntako musikariak ibiltzen dituela ondoan. Hala ere, txundituta gelditu ginen gaur egungo bidailagunek kantuak marrazteko ematen dioten kolore guztiekin; eta, tarteka, erakusten duten rock animali ezaugarriekin, pizti bihurtzen dira. Itzelak guztiak, baina nabarmentzekoak Arkaitz Miner, eta bateria laztantzerakoan Joe Henry irakasle izan duela dirudien Asier Oleaga, batez ere.

**MUSIKA** > DIRTY BROTHERS & JUL ETA THE SAINT ALVIA CARTEL

# Clash ildoari erritmo eta berotasun propioa

**NON:** Arrasateko Hiru aretoan.
**EGUNA:** Zapatua, azaroak 21.
**ZENBAT JENDE:** 80 lagun inguru.
**IRAUPENA:** Bi ordu eta erdi.

**I.B.** > ARRASATE

Ezagun da Arrasate aldean 77ko Ingalaterrako taldeak oso maitatuak direla; eta, are gehiago, ez da lehenengo aldia The Clashen kantuak gogora ekartzen direla. Horretan, aditua da Dirty Brothers izenak batzen duen lagun multzoa. Honakoan, baina, berrikuntza batzuk izan zituzten: bata, Jul Bolinaga izan zutela gitarra jotzen eta tarteka abesten (!!); eta bestea, oraingoan, Stiff Little Fingers taldearen kantuak ere interpretatu zituztela.

Gustura aritu ziren eta hori, gura edo ez gura, igarri egiten da eta jendartean ere zabaltzen da gainera. Are gehiago, Strummerren kantuak ia antzera eskaini zituzten arren, Irlandakoenak moldatzera ere ausartu ziren; eta emaitza ona izan zen.

Horien ostean, Arrasaten ezohikoa den musika eskaintza ezagutzeko aukera izan genuen: Kanadako Saint Alvia Cartel.

**TARTEKIA**

Talde bitxia da; oso melodikoa eta aldi berean oso indartsua. Argi dago The Clash izugarri gustuko dutela, baina ez hain justu haien lehenengo garai punkyena; horren ostekoa, baizik.

Ska, reggae eta, nik esango nuke, 70eko hamarkada bukaerako new-wave ildoko ukitu nabarmena dute kantuek; hori bai, beti ere, Strummer-en taldeko lelo, melodia eta ukitu saihestezin horrekin.

Gainera, abeslariarengatik hasita, hartueman ederra izan zuten entzuleekin eta igarri zen izugarri ondo pasa zutela. Hainbeste, *bis*-ak birritan egin behar izan zituztela, eta bukaeran Dirty Brothers-eko familia osoa agertokira gonbidatu zutela *I fought the law* interpretatzeko. Sala eta Agina ere etorriko ziren gero, baina gaua luzeegia da...




The Saint Alvia Cartelen emanaldia jaia izan zen; taldeekideek bat eginda, agertokia erabat bete zuten. JOSETXO ARANTZABAL


Aurrera egin
Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
+
kutxa
+
ADEGI
+
CAMARA DE GIPUZKOA
GIPUZKOAKO BAZKUNDEA
+
MONDRAGON
+
Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
=
gipuzkoa aurrera
Aurrera egin, elkarrekin.
Gipuzkoa Aurrera aliantza publiko-pribatutik elkarlanean ari gara,
indarrak eta ahaleginak batuz.
Gipuzkoa guztiaren gainetik dagoelako.

**ZARZUELA** > ANTZEZLE ETA IKUSLEEN ESPEKTATIBA GUZTIAK GAINDITUTA

# Eszena gainekoak hunkituta eta aurrekoak algaraka

'La Corte de Faraon' obra estreinatu du Izaskun Murgia elkarte lirikoak

Umorea, dantza, sexua... obra konplexua, baina entretenigarria da


Argazki oinaaaaaaaaaa.

**JON BEREZIBAR** > ARRASATE

Egiptora bidaia egin dute elkarte lirikokoek hamargarren zarzuelarako. Joandako mende hasierako obra bat hartu, eszenografia urre kolorez eta detailez osatu eta barre eta dantzaz jositako obra entretenigarria da *La Corte de Faraón*. Joandako asteburu honetan zapatuan eta domekan izan ziren saioak eta datorren asteburuan azkenak: egubakoitzean (20:00) eta zapatuan (19:30). Asteburuko bi saioak, jendez lepo.

Berezia da zarzuela hau. Ez bakarrik, hamargarrena delako edo istorioa kokatzeko aukeratutako leku exotikoarengatik; baita ere, zati komiko ugari dituelako eta ikusi delako ahalegin berezia egin dutela aktoreek antzezpenean; sekulako maila erakutsi dute. Aurretik ere bagenekien zarzuela taldean abesle bikainak daudela, baina taxuzko aktoreak ere badirela frogatu dute faraoiak eta gortekoek. Eta umorez ospatu gura izan dute Izaskun Murgia elkarte lirikokoek hamargarren zarzuela; eta horretarako, lehen unetik ikusleak poltsikoratu gura izan zituzten barrez eta sorpresekin. Dekoratuaren ikusgarritasuna bera, aktoreak agertokian beharrean antzoki barrutik ateratzea, zarzuelako zuzendaria bera aktoreei errieta egiten, dantza... Oholtza gainean zein aurrean ezin hobeto pasatzeko prestatu duten obra dela igarri zen zapatuan.

**MUSIKA BEHARREAN BARREAK**

Musika gutxiago du *La Corte de Faraon* lanak, aurreko zarzuelekin konparatuz gero. Halere, elkarrizketa arin eta txiste errazekoek betetzen dute lana eta baita ere dantza saio laburrek, ballet eta flamenkoarekin. Umorea eta ikuskizuna, aurreko zarzuelak baino apur bat konplikatuagoa izan den obra osatzeko orain dela 10 urte ia ezinezkoa izango zitzaiena. Noski, 1910ean estreinatu zen obra izateko txisteak desfasatu xamarrak dira, baina entretenigarria izan zen, finean. Sexuaz eta intsinuazioaz hitz egiten da obran, baina orain 100 urteko ikuspegiarekin; beraz, atera kontuak.

Baina horren guztiaren gainetik, aktoreen lana ezin hobea da, guztiek menderatzen dute- eta komedia modu paregabean eta kantatzea bakarrik lana bada, frogatu zuten talentu handia daukatela antzezteko ere. Asko zaindu dute azken lan honetan aktoreen lana eta hori azpimarratzekoa da. Batzuk aipatzearren benetan lan polita egin zuten hiru alargunek (Susana Vazquez, Guren Gonzalez eta Lore Aranburu) eta baita ere Casto Jose protagonista (Mikel Izurrategi). Gainontzekoek ere ahots garbiz eta antzez-


Ballet saiotxoa. J.A.


Hiru alagurnen antzezpena txalogaria izan zen. J.A.


Tere Gonzalez ikusleen txaloak eskertuz.. J.A.


Parodiarako tartea ere badu zarzuela honek. J.A.


Abesbatza taldea. J.A.


Faraoi jauna. J.A.


Soineko ikusgarriak. J.A.


JOSETXO ARANTZABAL

pen bikainez bete zuten euren lana. Ezin aipatu barik utzi, jantzi eta dekoratuetan egindako ahalegina, detailez josia.

Ikusleak zutik eta antzezleak txalotuz amaitu zuten lehen funtzioa, baina amaieran bakarrik ez; ikusleek zati bakoitza txaloka eta barrez amaitzen zuten. Arrakasta estreinatu aurretik zeukaten bermatuta –sarrerak ia agortu dituzte-eta– baina ikusleak hain pozik irteten ikustean arrakasta bikoitzaz ere hitz egin daiteke. 10 urte eutsi diote Izaskun Murgia elkarte lirikokoek eta ematen duenez, ez eurak ezta ikusleak ere, ez dira aspertu. Dagoeneko, gainera, datorren urtekoa prestatzen hasita daude. Atsedenik ez, beraz.

Tere Gonzalez > Zuzendaria

## "Erantzun bero honek niri beste 57 zarzuela egiteko gogoa eragiten dit"

**J.B.** > ARRASATE

**Domekan, asteburuko bigarren saioarekin hasi baino ordu batzuk lehenago harrapatu genuen zuzendaria, artean ere, bezperan jasotako txalo eta laudoek hunkituta. Esker hitzak baino ez ditu ezpainetan Tere Gonzalezek.**


J.A.

**Estreinaldiaren ostean, nola geratu zaizue gorputza?**

Ezin hobeto, nik uste estreinaldia izateko gauzak bikain atera zirela. Dena oso ondo.

**Eta ikusleak barre eta barre. Ez da seinale txarra.**

Oso obra barregarria da-eta! Aurreko urtean ikus-min handia eragin zuen obrak, baina uste dut aurtengoak gainditu duela, gehiegi esango nuke. Ezingo nuke azaldu arrazoia, baina hala da.

**10 urte bete dituzue, beste hamarri eusteko moduan zaudete?**

Baietz esango nuke. Datorren urtekoa egingo dugu eta gero gerokoak, baina aurrera egiteko gogo betearekin gaude. Ezin bestela, antzokia jendez beteta ikusita gu hunkituta gaude. Horrek niri beste 57 zarzuela egiteko gogoa ematen dit. Publikoak erantzuten jarraitzen duen artean, guk honekin jarraituko dugu.

**Kantatzeaz gain, aktoreen antzezpena azpimarragarria da, ezta?**

Oso obra espresiboa da eta nabari da aktoreek esperientzia hartu dutela. Orain dela 10 urte, ezinezkoa litzateke halako erronka planteatzea. Talentu izugarria daukate guztiek. Uste dut asmatu dugula erabakitzerakoan nork egingo zuen pertsonaje bakoitza. Sekulako maila daukagu taldean, ze *La Corte de Faraon* musikalki eta eszenari dagokionez oso konplikatua da.

**Datorren urterako zer zabiltzate prestatzen?**

Ez noa xehetasun larregi aurreratzera baina esango dut lan oso *castizoa* eta *madrileñoa* izango dela.


Antzezleak eta dantzariak, amaieran, publikoa agurtzen. J.A.


Protagonista nagusietako bi: ezkonberriak. J.A.


**Begoña**
Arrasate

"Bigarren zatia lehena baino gehiago gustatu zait, barre asko egin dut. Gehien gustatu zaidana; hori bai, eszenografia izan da, dekoratuak eta koloreak, ikusgarriak. Aurreko zarzuelekin konparatuta, horixe nabarmenduko nuke".


**Arrate**
Arrasate

"Oso-oso polita da eta lan bikaina egiten dute guztiek abesten eta antzezten, ahots ezin hobeak dauzkate. Pertsonaia bat asko gustatu zait: Arikon. Umore asko dauka obrak, ezberdina da. Hala ere egindako zarzuela guztiak izan dira oso onak".


**Juan Luis**
Arrasate

"Dibertigarria eta entretenigarria izan da. Agian aurrekoek baino musika eta kantu gutxiago dauzka honek eta obra ere nahiko bitxia da. Lagunak eta senideak izan ditut oholtza gainean eta oso polita da. Meritu eta lan asko dago atzean".


**Juan Mari**
Arrasate

"Nik andrea neukan abesbatzan eta bera eta gainontzekoak ere ikustera etorri naiz. Orain arte egindako ia zarzuela guztiak ikusi ditut eta hau denetatik ezberdinena izan da. Hala ere, oso polita, kontuan hartuta orain 100 urtekoa dela".

# iragarkilaburrak.com

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Aizarnazabal.** Oso egoera onean dagoen etxebizitza salgai Aizarnazabalen. Prezio oso interesgarria (180.000 euro). Behe solairua izan arren, argitsua da. 2 logela ditu, komuna, sukalde amerikanoa eta egongela-jangela. Komuna izan ezik, beste guztia kanpora begira. Altzari eta guzti dago salgai. Ingurune lasaian dago. 637 51 33 04.

**Aramaio.** Baserria salgai. Guztiz berriztatua. 180 metro koadro, 2.000 metro koadroko lursailean. Prezio interesgarria. 648 56 41 38

**Aramaio.** Herri erdi-erdian 91 metro koadroko etxebizitza. 32 metro koadroko ganbararekin. Bizitzeko moduan dago baina berriztu beharra dauka. Aukera ona. Premiazkoa da. 110.000 euro. 615 73 85 77

**Arrasate.** Etxebizitza salgai Jose Luis Iñarran. Eguzkitsua. Bi komun, hiru logela, jantzigela, sukaldea eta egongela handia. Trastelekua. Guztiz berritua. Aukera ezin hobea. Deitu 658 72 09 87 zenbakira.

**Azpeitia.** Aukerako pisua 42,9 milioi pezetan. Berogailua gas bitartez. 3 logela bikoitz (bere armairuekin), sukaldea (guztiz osatua), sala eta komuna. 94,30 $m^2$. Gela guztiak kanpoaldera ematen dute. Igogailua ipini berria. Pisu eguzkitsua, bidegorri aldera bistak. PVCko leihoak, arotz lanak haritzean (zorua, ateak, armarioak). Informazio gehiago: 656 31 60 31

**Beasain.** Pisu oso zentrikoa Beasainen. 105 $m^2$, 4 logela, 2 bainugela, balkoi eta terraza. Ia berria, material eta eraikuntza kalitate handikoa. La Salle ikastetxetik oso gertu. Armairu eta altzariak, berogailua, parketa, sukaldeko elektragailu guztiak, garbigailua. Garaje itxia aukeran. Argazki eta informazio gehiago: *http://www.ttiki.com/6609* webgunean edo 656 73 11 43 zenbakian.

**Bergara.** 80 metro koadroko etxebizitza salgai erdigunean, Justo Garate plazan. Sukaldea eta bi komun jantziak, hiru logela, egongela, balkoia, despentsa eta garaje itxia. Jantzita utziko genuke. Ia berria eta oso egoera onean. 650 79 28 63 edo 626 11 55 14.

**Bergara.** Etxebizitza salgai Bolun. Egongela, hiru logela, sukaldea, bi komun, trastelekua eta garajearekin. aukera ona. 688 67 10 31

**Berriatua.** Etxebizitza salgai Berriatuan. 72 metro koadro. Bi logela, komuna eta sukalde-egongela. Berriztua eta guztiz jantzia hartzeko aukera. Prezio negoziagarria. 94 616 64 19 edo 94 613 90 56.

**Eibar.** Legarren pisua salgai. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Berriztuta. 26.900.000 pezeta. Telefonoa: 659 68 77 36.

**Eibar.** Eibar erdialdean, txokoa berriztua, sukalde eta bainuarekin, saltzen edo alokatzen da. 90 metro koadro. Egoera ezin hobea. Interesatuek, deitu:669 29 34 27 (Sandra).

**Eibar.** Txaltxa-Zelai ondoan pisua salgai. 68 $m^2$. Bizitzera sartzeko moduan. 675 70 08 64.

**Marieta.** Etxe bakarra saltzen da. 200 meto koadro eta nahiko berria: 7 urte. 5 logela, 3 komun, 2 autorentzako garajea eta 40 $m^2$ko egongela, beheko suarekin. 900 metro koadroko lorategia, eginda. 628 45 09 62

**Oñati.** Bidebarrieta auzoan etxebizitza salgai. Hiru logela, egongela, bi bainugela, sukaldea eta ganbara. Garajea aukeran. 620 02 51 95

### 102. EROSI

**Oñati.** Lau logelako etxebizitza erosiko nuke. 677 42 52 05.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Erdialdean guztiz berriztutako 60 metro koadroko etxebizitza. Bi logela. 635 71 79 57

Egueneko 18:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

**943 25 05 05**

**sailkatuak@goiena.com**

**www.goiena.net-en**

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK:**
- ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU.
- LOKALA SALDU/ALOKATU.
- GARAJEA SALDU/ALOKATU.
- MOTORRA SALDU/ALOKATU.

**GOIENKARIA-N + ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 18 € (BEZ BARNE).**

**PROFESIONALEN IRAGARKIAK (MODULOA)**
**MODULU 1: GOIENKARIA-N EDO ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 23 € (BEZ BARNE).**
**GOIENKARIA-N + ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 31 € (BEZ BARNE).**

Iragarki partikularretan astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**Arrasate.** Gela bateko apartamentua ematen da errentan. Deitu arratsaldez. 619 34 88 52

**Arrasate.** 40 metro koadroko apartamentu kapritxosoa ematen da errentan herri erdialdean. Aproposa pertsona batentzat zein bikotearentzat. 650 euro hilean. Deitu 639 17 49 52 telefonora

**Barañain.** Barañainen pisua alokatzen dut. Guztiz jantzia, bizitzera sartzeko prest. Telefonoa: 647 50 35 69 (arratsaldeko 15:30etikaurrera).

**Uharte Arakil.** 165 metro koadroko adosatua alokatzen da Uharte Arakilen. 3 logela, 2 komun, sukaldea, tximinia duen egongela eta 50 $m^2$ko garajea. 550 €. 615 74 34 90.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Aretxabaleta.** Etxebizitza errentan hartuko nuke. Deitu 679 09 33 34 telefonora.

**Arrasate.** Arrasateko hiru gazte langilek etxebizitza errentan hartuko lukete. 665 75 40 36

**Arrasate.** Bikotea urtarrilaren 1etik aurrera bi gela edo gehiagoko etxebizitza alokatzeko prest. Deitu 665 72 79 38 edo 635 70 96 43 telefonora

**Bergara.** Etxebizitza hartuko nuke errentan. Deitu 600 25 98 54 edo 687 61 63 00 telefono zenbakietara.

**Bergara.** Etxebizitza errentan hartuko nuke, bi edo hiru logelarekin. 636 80 87 68

**Bergara.** Errentan hartzeko etxebizitza bila nabil. 697 88 35 62Bergarako neska batek etxebizitza hartuko luke errentan, merke. 649 40 72 49

**Bergarako** neska batek etxebizitza hartuko luke errentan, merke. 649 40 72 49

**Eibar.** Eibarren edo inguruan logela edo ganbara hartuko nuke alokairuan. 666 78 45 26.

**Gernika-Lumo.** Errentan hartzeko etxe bila nabil, Gernika-Lumon edo inguruetan. Premiazkoa da. Kontakturako: *tarixe69@hotmail.com*

**Igantzi.** Nafarroa iparraldea, Iruñetik 60 kilometrora, Irundik 15 minutura. Etxea, herrian bertan, hiru logela, bi komun, egongela, sukaldea eta patio txiki bat. Asteburua 200 euro, astea 450, parkearen ondoan, denda jatetxea, frontoi estalia, igerilekua. Telefonoak: 948 51 07 37 eta 617 80 88 48. Posta: *txillarenea@hotmail.es.*

**Lekeitio.** Lekeition urte osorako errentan hartzeko pisu txiki baten bila nabil, 1 edo 2 logela. Telefonoa: 658 70 19 53

**Zarautz.** Bikote batentzako pisu bila gabiltza alokairuan, Zarautzen. 647 23 57 84.

### 105. ETXEAK OSATU

**Antzuola.** Sagasti auzoan, pertsona bat behar da etxea osatzeko. Beheko solairua eta terrazaduna da. 618 12 08 01

**Arrasate.** Erdigunean logela ematen da errentan. Deitu 619 78 63 41 telefonora.

**Arrasate.** Gela bila nabil. Mutil arduratsua naiz eta lan finkoa daukat. Miguel Barrios. Deitu 943 79 74 13 edo 647 28 82 41 telefono zenbakietara

**Arrasate.** Unibertsitatetik oso gertu dagoen etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da. 647 41 93 34

**Arrasate.** Logela ematen da errentan. 270 euro. Deitu 618 00 08 28 telefonora.

**Arrasate.** Gelak errentan Makatzenan, sukaldea erabiltzeko eskubidearekin. Telebista, DVDa, kafe-makina... erosotasun guztiekin. Bista polit eta giro ezin hobea. Interesatuok deitu zenbaki honetara eta Alexandragatik galdetu. 690 61 08 26

**Bergara.** Gela ematen da errentan Irizar pasealekuan. Bikote batentzat edo pertsona bakarrarentzat. 943 03 62 00 edo 696 03 80 07

**Donostia.** Topo eta autobus geltokitik erdibidean, gela bat alokatzen da pisu konpartitu batean, emakume batentzat. Berdin ikasle edo langile. Telefonoa: 943 65 16 92. Hartu ezean mezua utzi erantzungailuan.

**Donostia.** Oso ondo kokatutako etxebizitza batean. Etxean pertsona bakarra bizi da. Ohe bikoitza, ikasteko mahaia eta armairua. Ekainera arte, besterik ez. Deitu 20:30etik aurrera 669 96 23 55 zenbakira.

**Donostia.** Antiguan, hondartzatik gertu, gela libre bat pixua konpartitzeko. Deitu 627 45 99 01 telefono zenbakira.

**Iruñea.** Etxeak hiru logela ditu baina bi lagunendako da. Berogailua, igogailua eta internet dago. Lekua oso lasaia da. Mutil langilea eta jatorra naiz. Berdin zait neska ala mutila bazara, beraz Anima zaitez! Pedro: 647 88 60 24

**Zarautz.** Jendea behar da pisu bat partekatzeko Zarautzen. Interesa dutenek deitu telefono honetara 625 23 84 46.

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALDU

**Arrasate.** Garaje itxia saldu edo errentan ematen da Uarkapen. Autoa eta bi motorrendako sartzeko besteko lekua. Deitu 615 73 98 30 telefonora.

### 202. EROSI

**Bergara.** Garaje itxia erosi nahi dut erdialdean. 635 20 81 22.

### 203. ERRENTAN EMAN

**Azpeitia.** Garaje bat alokatzen da Azpeitian. 943 81 27 28

### 204. ERRENTAN HARTU

**Oñati.** Garaje bat hartuko nuke errentan San Lorentzon. Deitu 665 73 51 59 telefonora.

## 3/ LOKALAK

### 304. ERRENTAN HARTU

**Debagoiena.** Taberna hartuko nuke errentan. 677 05 39 06.

**Debagoiena.** Taberna hartuko nuke errentan. Interesatuek deitu:638 10 29 63

**Oñati.** Lokal txikia, etxabea (baxua) edo garajea hartuko nuke errentan San Lorentzon. 665 73 51 59.

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Bergara.** Esperientziadun emakumea behar da pertsona nagusi bat zaindu eta etxeko lanak egiteko. Legezko paperekin eta etxean bertan bizitzeko. 636 30 09 16

**Goierri.** Bertako neska bat behar da Beasainen ume bat zaintzeko eta garbiketa egiteko. Esperientziaduna. Ondo ordaintzen da. 609 41 38 97

**Tolosa.** Arratsaldez ordu batzuetan ume bat zaintzeko pertsona eperientziaduna behar dut Tolosaldean. Deitu 692 05 58 60 zenbakira

### 402. ESKAERAK

**Altsasua.** Adin ertaineko emakume altsasuarra naiz eta haurrak edo adinduak zaindu edo etxeko lanak eginen nituzke. Deitu 654 23 08 66 telefonora.

**Altsasua.** Asteburutan tabernetan edo jatetxeetan lan egiteko prest. 676 22 20 52.

**Aretxabaleta.** Alfonbra eta moketak garbitzen ditut, lehorrean, etxez etxe. 659 62 02 49

**Aretxabaleta.** Emakume arduratsua gertu adinekoak zaindu, etxeko garbitasun lanak egin edo umeak zaintzeko. Esperientzia adinekoekin. Mari. 943 53 33 92

**Arrasate.** Ostegun eguerdietatik igandetara taberna baten lan egin nahiko nuke.Esperiantzia dut. Berehala hasteko prest nago. 630 43 26 73

**Arrasate.** Arrasateko neska gazte euskalduna arratsaldez lan egiteko gertu, umeak zaintzen edo etxeak garbitzen. Esperientzia handikoa. Deitu 618 41 24 79 edo 943 08 14 25 telefono zenbakietara.

**Arrasate.** Hemengo neska prest edozein lanerako, orduka ere bai. Deitu 659 55 27 16 telefono zenbakira.

**Arrasate.** Neska euskalduna eguerdietan etxe zein atariak garbitzeko prest. 663 04 53 99

**Arrasate.** Umeak zaindu edo garbiketak egingo nituzke. 649 30 13 60

**Azpeitia.** 20 urteko neska euskalduna, haurrekin lanean esperientzia duena bai begirale moduan, zaintzaile moduan... Arratsaldez haurrak zaintzeko prest egongo nintzateke. Interesatuek deitu zenbaki honetara: 606 42 64 14

**Bergara.** Emakume gaztea gertu garbiketa lanak egiteko. Orduka lan egingo nuke. 671 33 75 54

**Bergara.** Esperientziadun emakumea gertu orduka etxeko lanak egiteko. 622 60 84 68

**Bergara.** Esperientziadun mutila etxeko lanak egin edo pertsona nagusiak zaintzeko gertu. 650 17 74 87

**Bergara.** Esperientziadun neska nagusiak zaintzeko prest. Astebukaeretan, jai egunetan eta gauetanlan egingo nuke. 630 88 54 46

**Bergara.** Neska bergararra gertu etxeak garbitu, nagusiak zaindu edo bestelako lanetarako. 943 53 29 18

**Bergara.** Neska euskaldun arduratsua orduka etxeko garbiketak egiteko gertu. 680 99 68 94

**Bergara.** Urte askoko esperientzia duen neska gertu sukalde laguntzaile lan egin edota etxez etxe nagusiak zaintzeko. 637 18 07 23

**Bidasoaldea.** Bidasoaldea-Oarsoaldea-Lapurdi. Emakume euskaldun eta arduratsua, frantsesez eta gazteleraz dakiena. Haurrak zainduko lituzke goizez zein arratsaldez, baita etxeko lanak egin ere. Gidabaimena eta autoa baditut. Deitu (+0034)622 06 33 48 edo (+0033)559 56 05 21 telefono zenbakietara edo idatzem mezu bat: *itziar101@hotmail.com*

**Bilbo.** Sukaldaritzako ikaslea, janari manipulatzaile karnetarekin, prest nago sukalde laguntzaile, pintxoak egiteko, zerbitzari edota tabernari lanak egiteko. Asteburuetan libre nago.625 11 20 71

**Deba.** Emakume euskalduna ospitalean jendea orduka zaintzeko prest. Telefono zenbakia 665 74 18 66. Marian.

**Debagoiena.** Esperientziadun emakumea garbiketa lanak egin, nagusiak zaindu edo supermerkatuetan lan egiteko gertu. Paperak ditu. 636 01 91 12

**Debagoiena.** Esperientziadun neska euskalduna gertu nagusi zein umeak zaindu edo etxeko lanak egiteko. Baita zerbitzari jarduteko ere. Informeak ditut. 671 35 22 60

**Debagoiena.** Gazte arrasatearra muntatzaile edo zerbitzari lanak egiteko prest. Esperientziaduna. 605 76 05 59

**Debagoiena.** Gizonezkoa lanerako gertu. Deitu 645 72 92 87 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Instalazio elektrikorako eta mantenurako lanak egiteko gertu egongo nintzateke. Elektrikaria naiz, teknikari komertziala. Javi. Deitu 669 49 83 24 edo 680 30 30 52 telefono zenbakietara.


KOROSTI
INMOBILIARIA
**Ibargarai 3 • BERGARA**
**Tel. / Faxa: 943 76 97 97**
**www.inmokorosti.com**

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**Bergara:**
- Matxiategi 82 $m^2$. Eguzkitsua.
- Zubiaurre 230 $m^2$. Berritua.
- Aranerreka 85 $m^2$. Berritua.
- Elusu baserria. Berritua. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 60 $m^2$. Berritua. Gazteentzat.
- Zubiaurre 67 $m^2$. Berritua. Eguzkitsua.
- Zabalotegi 60$m^2$. Oso ondo
- Barrenkale 82 $m^2$. Berritua.
- San Antonio, 46 $m^2$. Berritua.
- Masterreka. 46 $m^2$. Eraikuntza berria. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 103 $m^2$. Duplexa. Oso ondo.
- Boni Laskurain 90 $m^2$. Oso ondo.
- Azkarruntz 69 $m^2$. Prezio ona.
- San Pedro 65 $m^2$. Ganbararekin.
- Osintxu 64 $m^2$. Berritua. 114.192 €.
- Aranerreka 80 $m^2$. Terrazarekin.
- Zubiaurre 58 $m^2$. Eguzkitsua.
- Aranerreka 90 $m^2$. Oso ondo.
- Osintxu 62 $m^2$. Prezio ona.
- San Lorentzo 68 $m^2$. Berritua.
- Zubiaurre 52 $m^2$. Berritua.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza San Pedron, Zubiaurren eta Bidekurutzetan.**
- **San Lorentzon etxe berriak.**

**Antzuola:**
- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa Etxe onak.
- Errekalde 70 $m^2$. Garajearekin.
- Beheko auzoa. Berritua. 135. 000 €.

**Elgeta:**
- San Roke 72 $m^2$. Berritua.
- San Roke 80 $m^2$. 80 $m^2$-ko ganbara eta lokalarekin.
- Salbador 90 $m^2$. Berritua.

**Soraluze:**
- Atxuri 49 m2. 117.618 €.



DEBA
**GARAIA**
**INMOBILIARIA**
**Telesforo Aranzadi 2**
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA**
- Arrizuri, 97 $m^2$, garajearekin.
- Aranerreka, 80 $m^2$, oso ondo.
- Matxiategi, 88 $m^2$, eguzkitsua, oso ondo.
- Zabalotegi, 54 $m^2$, eguzkitsua, oso ondo.
- Bolu, 103 $m^2$, oso eguzkitsua.
- Zubieta 65 $m^2$, ondo, hortuarekin.
- Ibargarai, apartamentua, 40 $m^2$, berria, garajea aukeran.
- Bidekurutzeta, duplexa, oso ondo.
- Iparragirre, apartamentua, 40 $m^2$, berria, garajea eta trastelekua.
- Martoko, 87 $m^2$, ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 $m^2$, ondo.
- Ibargarai, 80 $m^2$ oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 $m^2$ oso ondo.
- Urdangarin pasealekua,132 $m^2$, berritzeko.
- Zabalotegi 80 $m^2$, eguzkitsua, berritua.
- Elorregi 70 $m^2$, terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Matxiategi, 73 $m^2$, berritzeko.
- Simon Arrieta, 57 $m^2$, terrazarekin.
- Zurradero, 81 $m^2$, oso ondo.
- Zubieta, 125 $m^2$, terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 $m^2$, berritua. Oso eguzkitsua.
- Bidekurutzeta, 111 $m^2$, oso ondo.
- San Antonio, 65 $m^2$, eguzkitsua.
- **Etxebizitza berrien erainkuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren, Bidekurutzetan, Zubietan, Martokon eta San Lorentzon.**
- Jatetxea erdialdean bezeroekin. Salgai edo errentan ematen da.

**SORALUZE**
- Baltegieta, 83 $m^2$, berria.
- Sagarerreka, 58 $m^2$, aukera ona.

**ANTZUOLA**
- Eguzki auzoa, Antigua auzoa eta Sagasti auzoa.

**ELGETA**
- San Roke, 75 $m^2$, ia berria.
- Adosatuak eta bifamiliarrak. Eraikuntza berriak.

**DEBA**
- Txalet bateko etxebizitza, hondartzako lehenengo ilaran



Ikolanlanaldi
ALDIBATEKO LANA • TRABAJO TEMPORAL
**Fundizio baterako LABE ARDURADUN bat behar da.**
Esperientzia eta formazioa ezinbestekoak dira.
Ikusi lan eskaintzak: **943-16 20 48**
www.ikolanlanaldi.com

**Debagoiena.** Esperientziadun neska gertu sukalde laguntzaile edo zerbitzari lanetarako. 610 82 02 17

**Debagoiena.** Iturgin laguntzaile lanak egingo nituzke. Magno Alberto. Deitu 600 76 43 14 telefonora.

**Debagoiena.** Jantzi-dendan saltzaile lan egingo nuke. Urte askotan dendan ibilitakoa. 627 96 19 22

**Debagoiena.** Gazte arrasatearra edozein lan egiteko prest. Esperientziaduna zerbitzari lanetan eta makina muntaketa lanetan. 605 76 05 59

**Debagoiena.** Garbiketa lanak egin edota pertsona edadetuak zainduko nituzke, egun osoz. 697 88 35 62

**Debagoiena.** Garbiketa lanak edo nagusiak zaintzeko gertu nago. Eli Cerezo. 630 20 12 03

**Debagoiena.** Gertu nago pertsona edadetuen zein haurren zainketa lanak egiteko. Garbiketa lanak ere egingo nituzke, egunez zein gauez, eta orduka. Deitu 638 54 75 93 zenbaira.

**Debagoiena.** Gertu nago tabernari edo zerbitzari jarduteko, garbiketa lanak egiteko eta pertsona edadetuak zaintzeko. Deitu 671 71 90 03 telefonora.

**Debagoiena.** Emakumea gertu pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko, edota garbiketa lanak egiteko. Orduka edo gauez. 678 23 54 93

**Debagoiena.** Emakumea gertu pertsona edadetuen zein haurren zainketa lanak egiteko. Etxean bizi izateko prest. Deitu 663 65 78 43 telefonora.

**Debagoiena.** Emakumea gertu etxeko lanak egiteko, etxean bertan bizi izaten. 650 70 98 76

**Debagoiena.** Mutil gaztea edozein lan egiteko gertu. Gidabaimena daukat. Jhony. 943 75 22 30 edo 636 17 27 65

**Debagoiena.** Mutil euskalduna gertu asteburuetan edozein lan egiteko: zerbitzari, garbiketak, konponketak eta abar. Merke. 686 99 23 94

**Debagoiena.** Lau urteko esperientziadun neska nagusiak zaintzeko gertu. Etxean bizi izaten ere bai. 626 78 22 95

**Debagoiena.** Emakumea gertu edozein tokitan lan egiteko, baita baserriko lanak egiteko ere. 639 88 64 13

**Debagoiena.** Emakumea edozein lanetarako gertu. Ana Luis de los Santos. Deitu 671 27 78 36 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Emakumea edozein lan egiteko prest. Socorro Mora Soria. Deitu 627 14 63 79 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Edozein lan egiteko gertu mutil gaztea. Manuel. Deitu 943 75 22 30 edo 636 17 27 65 telefono zenbakietara.

**Debagoiena.** Emakume gaztea gertu nagusi zein umeak zaindu edo garbiketa lanak egiteko: etxeak, atariak, tabernak edo bestelakoak. Sukaldean ere ariko nintzateke. Deitu 676 28 87 84 telefono zenbakira

**Debagoiena.** Mutila gertu edozein garbiketa egiteko: atariak, bulegoak... Arrasate, Aretxabaleta edo Eskoriatza. 650 14 69 10

**Debagoiena.** Neska gertu garbiketa lanetarako (10 euro orduko) edo nagusi zein umeak zaintzeko (9 euro orduko). Arrasate, Aretxabaleta edo Eskoriatza. Deitu 618 00 08 28 edo 943 79 82 43 telefono zenbakietara.

**Debagoiena.** Emakumea garbitasun lanak egin eta pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Eguneko edozein ordutan egin dezake lan. Bergara eta Arrasate. 650 62 12 94

**Debagoiena.** Emakumea gertu edozein lan egiteko, 09:00etatik 14:00etara. Pertsona nagusiak gustura zainduko nituzke. Bergara-Arrasate. 669 98 46 47

**Debagoiena.** Garbiketarako lanak egin eta pertsona edadetuak zainduko nituzke. 649 83 08 82 edo 943 76 44 27

**Debagoiena.** 27 urteko mutila gertu arotz edo soldatzaile lanetarako. Baita publizitatea banatzeko ere. Autoa daukat. Deitu 691 79 53 34 zenbakira.

**Debagoiena.** Antzeko lanetan esperientzia duen emakumezko batek lan egingo luke helduak zein umeak zaintzen. Ordutegi malgua eta lanerako prestutasuna. 669 02 91 30

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zainduko nituzke. Arratsaldez eta baita aste bukaeretan ere. 697 93 73 32

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zaindu edo garbitasun lanak egingo nituzke. 943 75 22 30 edo 636 17 27 65

Etxebila higiezinak
9 4 3 - 4 4 6 1 6 6

ALOKAIRUAN
**ERRONDO GAINA.** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Bistak. 850€
**AMARA.** 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Berritua. 900€
**ZENTROA.** 3 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela. Oso polita. 1.200€
**PASAI SAN JUAN.** 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Baloiarekin. 675€
**PASAI SAN JUAN.** Oso apartamentu polita. Balkoiarekin. 600€
SALMENTAN
**ASTIGARRAGA.** 2 logela, egongela, sukaldea, Bainugela. Kanpora begira. 30.300.000
**BIDEBIETA.** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Balkoia. Igogailua. 30.900.000
**AMARA**. Madril etorb. 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. 21.800.000
**AMARA** Santxo Jakituna. Azkena 50m2 terraza. 2 logela. Eguzkitsua. 57.000.000
**AMARA** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Kanpora begira. 38.625.000
**AMARA** Apartamentu polita. Logela, egongela, sukaldea, bainugela. Argitsua. 39.900.000
**AMARA** 100m2. 4 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela. Terraza. 58.000.000
**AMARA** 2 logela, egongela bikoitza, sukaldea, bainugela. Berritua. 41.500.000
**AMARA** Atikoa. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Terraza. 39.950.000
**EGIA** Ametzagaña. Hasieran. 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Terraza. Igogailua. 36.950.000
**ALTZA** Oso polita. 2 logela, egongela bikoitza, sukaldea, bainugela. Kanpora begira. 36.990.000
**ALTZA** 3 logela, suakaldea, bainugela. Balkoia. Igogailua. 28.950.000
**LEZO** 75m2. 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Balkoia. Eguzkitsua. 32.000.000
**ERRENTERIA** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Oso polita. 36.900.000
**HERNANI** 2 atiko herri erdian. Igogailua. Berritzeko. 21.000.000 bakoitza.

www.etxebila.net
www.etxebizitza.iragarkilaburrak.com
Felipe IV etorb. 4 - DONOSTIA

**Debagoiena.** Neska gertu garbiketan, ume edo nagusiak zaintzen zein zerbitzari lanetan aritzeko. Deitu 660 56 65 58 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Mutil gaztea gertu zerbitzari edo garbiketa lanak egiteko. Deitu 610 95 79 79 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Mutila gertu zerbitzari, sukalde laguntzaile edo furgoneta gidari lanetarako. Legezko paperak dauzkat. Deitu 628 48 05 41 edo 943 71 21 15 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Mutila lanerako gertu. 638 10 29 63

**Debagoiena.** Mutila lanerako gertu: tabernan, garbiketak lanetan, baserriko lanetan... 671 45 96 26

**Debagoiena.** Nagusiak edo umeak zainduko nituzke, orduka edo etxean bertan bizi izaten. 680 30 24 64

**Debagoiena.** Neska arduratsu esperientziaduna gertu garbiketa, dendari, azafata edo bestelako lanetarako. 639 86 96 76

**Debagoiena.** Neska boliviarra gertu edozein motatako lanetarako. Egunez zein gauez. Esperientziaduna. Legezko paperak dauzkat. 618 14 71 34

**Debagoiena.** Neska esperientziaduna gertu nagusiak zaintzeko orduka edo etxean bertan bizi izaten. Gauez ere bai. Baserrietara joateko arazo barik. 660 37 20 47

**Debagoiena.** Neska gaztea zerbitzari lanak egiteko, garbiketa lanak orokorrean egiteko edota pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Deitu 671 71 90 03 tekefibi zebbajura,

**Donostia.** Nikaraguako mutil bat naiz eta Donostian bizi naiz, bertan edo inguruko herrietan lanen bat egiteko prest nago. Adineko pertsonak zaintzen edota beste edozertan. Interesatuek deitu: 943 65 40 57

**Donostia.** Neska euskalduna, haur hezitzailea, haurrak zaintzeko prest.Donostia eta inguruko herrietan, edozein ordutegitan. Edozein gauzatarako deitu inongo konpromisorik gabe. 616 38 31 64

**Donostialdea.** Haurrak zaindu edo klase partikularrak emango nituzke Donostian bertan edo inguruan. Umeekin esperientzia dut begirale bezala baita partikularrak ematen ere. Biologian lizentziatua eta EGA titulua duen neska bat naiz. Telefonoa:679 28 08 28

**Eibar.** Mutila eskaintzen da autonomo moduan edo kontratuarekin orduka lan egiteko: garbiketak edo banaketak egiteko autoarekin. Deitu 605 80 05 82 telefono zenbakira eta Alexengatik galdetu.

**Eibar.** Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Telefonoa: 626 32 99 79. Lourdes.

**Eibar.** Neska eskaintzen da 15.00etatik aurrera edozein lanetarako. Telefonoa: 691 53 28 93. Lizett.

**Eibar.** Neska eskaintzen arratsaldez umeak zaindu edo kamarera lanetarako. Telefonoa: 697 93 90 85.

**Eibar.** Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Deitu 171583 edo 608 474923 telefono zenbaietara.

**Eibar.** Emakumea eskaintzen da goizez garbiketa lanetarako. Deitu 625 04 80 37 edo 680 22 33 78 telefono zenbaietara.

**Eibar.** Neska eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Telefonoa: 662 27 32 95.

**Eibar.** Neska eskaintzen da arratsaldez edo asteburuetan edozein lanetarako. Telefonoa:646 82 16 78.

**Eibar.** Neska eskaintzen da astero bi egunetan orduka lan egiteko: nagusiak zaindu edo garbiketa lanak. Deitu 679 87 86 76 zenbakira

**Gernika-Busturialdea.** Neska euskalduna umeak zaintzeko prest. Edozein gauzatarako deitu inolako konpromiso barik zenbaki honetara: 680 53 84 42

**Gernika-Lumo.** Erizain laguntzailea geriatrian lan bila dabil Gernika-Lumoaldean. Eskarmentu handia zaintze lanetan. Orduka zein egun osorako. Telefonoa: 645 70 40 20 (Marisa)

**Gernika-Lumo.** Txapista naiz baina edozein lanetarako prest nago. Deitu telefono hauetara: 94 625 70 80 edo676 60 75 68.

**Goierri.** 55 urteko emakume esperientziaduna eta urte askoan ohitua,arratsalde eta gauetan pertsona helduekin edozein lan egiteko eskaintzen da. 663 95 73 89

**Goierri.** Eraikuntzan lan egingo nuke primerako ofizial bezala. Mutil gaztea eta arduratsua naiz. Deitu 637 12 19 96 telefono zenbaira.

**Tolosaldea.** Emakume euskalduna,arduratsua eta esperientzia handikoa eskaintzen da egunez zein gauez adineko pertsonak edo gaixo daudenak zaintzeko. Gida baimena eta autoabaditut. Interesaturik egonez gero deitu lasai eguneko edozein ordutan telefono zenbaki hauetara: 943 57 74 09 edo 680 24 42 81. Erreferentziak ere baditut. *mariapilargarmendia@gmail.com*.

**Tolosaldea.** Neska senegaldarra, adinekoak zaintzen lan egingo nuke, eragozpenik ez interna sartzeko. Haurrak zaintzeko edota etxeko lanak egiteko ere prest nago. Interesatuek deitu 943 65 40 57 telefono zenbakira.

**Zarautz.** Andre arduratsu esperientziaduna gertu garbiketa, plantxa edo bestelako lanetarako.Azteazkena eta ostiraletan goizez lan egiteko prest. Harremanetan jartzeko, deitu 634 45 91 59.

**Zarautz.** Gizon euskalduna gertu lanerako,asteburuetan ere lan egiteko prest edozein lan: jardinero, baserriko lanak, mahastietan eta abar. Deitu 658 73 08 08 telefono zenbakira.

## 403. BESTELAKOAK

**Zugatik egiten dut.** Denborarik ez badaukazu posta, banketxe eta abarretara joateko, nik egingo dut zugatik. Errekaduak ere bai. Deitu 605 74 52 19 telefono zenbakira.

# 5/ IRAKASKUNTZA

## 501. JASO

**Arrasate.** Mutiko bati 6. mailako eskola partikularrak emango dizkion neska behar dugu. Eskola laguntza, etxeko lanak egin eta abar. Deitu 617 36 67 96 telefono zenbakira eta Kristinarengatik galdetu.

**Bergara.** Eskola partikularrak jasoko nituzke. DBHko 4. maila. 18:00etatik aurrera deitu 943 76 16 42 telefono zenbakira eta Pilarrengatik galdetu.

**Bergara.** Batxilergoko bigarren mailako eskolak jasoko nituzke. Deitu 686 51 07 86 telefono zenbaira.

**Debagoiena.** EHUko Psikopedagogia ikaslea naiz eta Ikerketa Diseinua ikasgairako eskola partikularrak jaso gura nituzke. Deitu 686 20 31 35 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Baxu elektrikoko eskola partikularrak hartuko nituzke. Bergara, Arrasate edo Eibarren. Ordubete edo pare bat ordu astean. Nerea. Deitu 652 71 74 96 telefonora.

## 502. EMAN

**Arrasate.** Neska euskalduna Lehen Hezkuntzako eskola partikularrak emateko prest. Eguerdietan deitu. 663 04 53 99

**Arrasate.** Ingeniaritza ikasi duen gazte batek DBH eta batxilergoko eskolak emango lituzke. Deitu 634 84 41 96 telefonora eta Mikelengatik galdetu

**Arrasate.** Ingeniari industriala naiz. LH, DBH edo batxilergoko eskola partikularrak emango nituzke: matematika, marrazketa teknikoa, fisika, ingelesa eta abar. 667 32 35 00

**Bergara.** Ingeleseko eskola partikularrak ematen dira. Maila guztiak. Elkarrizketa lantzeko ere bai. 637 52 89 83

**Bergara.** Mintza praktika. Ingeleseko elkarrizketa saioak eskaintzen ditut Bergaran. 654 94 87 26

**Bergara.** Lehen Hezkuntza, DBH, batxilergo eta ingeleseko eskolak emango nituzke. Telefonopa: 675 00 59 48

**Bergara.** Umeendako ingeles eskolak ematen ditut. Aitor. 671 76 22 28 edo 943 76 01 99

**Debagoiena.** Musika eskolak. Gitarra elektriko zein akustiko eta harmonia eskolak ematen ditut. Maila eta estilo guztiak. Jon. 679 22 86 07

**Debagoiena.** Neska euskalduna LHko nahiz DBHko eskola partikularrak emateko gertu. Natur Zientzien batxilergoa eta EGA tituluak ditut eta Erizaintzako ikasketak egiten ari naiz. Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza, Bergara nahiz Oñatirjoateko arazorik ez. 690 66 19 80 edo 943 03 7831

**Debagoiena.** Diseinu Industrialeko ikaslea naiz eta DBHko ikasle bati eskola partikularrak emateko prest nago. Arrasaten bizi naiz eta berdin zait nire etxera etortzea edo ni ikaslearen etxera joatea. 645 73 53 95

**Durango.** 4. mailako Telekomunikazio Ingenieritzako ikasle euskalduna Batxilergo eta DBHko klaseak Durangon emateko prest. Espezialitatea, Matematikako klaseetan. Deitu 635 74 61 76 telefono zenbakira edo idatzi mezu bat *maialen.urien@hotmail.com* e-postara.

**Eibar.** LH, DBH eta Batxillergoko partikularrak emateko mutila prest.Telefonoa: 630 81 77 87.

**Gasteiz.** Biologian lizentziatuak batxilergo arteko natur zientzia eta euskarazko eskolak ematen ditu Gasteizen eta inguruetan. Interesa izanez gero deitu 945 56 43 83 telefono zenbakira.

**Gernika.** Esperientziadun irakasleak talde txikitako klase partikularrak eskaintzen ditu Gernikan lehen hezkuntza eta DBHko ikasleentzako. Edozein gauzatarako deitu inolako konpromiso barik zenbaki honetara: 656 77 20 12. (Nahia)

**Gernika-Busturialdea.** Klase partilularrak emango nituzte Gernika zein inguruko herrietan, oro har, Busturialdean. Edozein gauzatarako deitu inolako konpromiso barik zenbaki honetara: Edozein gauzatarako deitu inolako konpromiso barik zenbaki honetara 680 53 84 82 telefonora.

# 6/ MOTORRA

## 601. SALDU

**Honda Varadero** XL 1000v motorra salgai. 2006koa. Egoera oso onean. 23.000 km. Estra askorekin: hiru maleta, eskuberogailua eta Givi defentsak. Beti garajean. Edozein gauzatarako deitu inolako konpromiso barik zenbaki honetara 605 71 24 73 telefonora.

**Kawasaki Z750 salgai.** 2007koa. Kolore beltza. Oso egoera onean. 12.000 kilometro, azterketadenak etxe ofizialean eginak. 5.500 euro. Harremanetan jartzeko, deitu: 660 33 77 16 telefono zenbakira.

**VW California coach 2.5 tdi 102cv 2003 urtekoa salgai.** 105.000km, 2003 urtekoa. 6 bidaiatzeko, 4 lotarako. Haize egokitua, berogailu estatikoa. Hozkailua, 2 su, konketa, armairuak, kanporako dutxa, mahaia barrurako; 2 aulki eta mahaia kanporako. Bizikletak eramatekoa, fiama f45 toldoa, 4 gurpil negurako eta beste 4 udarako. Beti garajean gordeta, egoera onean. 688 63 53 60.

# 7/ ANIMALIAK

## 701. SALDU

**Ahuntz nanoak salgai.** Ahuntza nanoak salgai, ernai. Harremanetarako telefono zenbakia: 650 86 56 26.

**Ardiak** salgai. Hamar, hogei... kopuru desberdinak aukeran. Harremanetarako telefono zenbakia: 620 13 83 86.

**Anilatutako kanarioak** salgai. Galdetu Mikelengatik. Harremanetarako telefono zenbakia: 635 75 54 53.

**Pit bulla**. American Pit Bull terrier txakurkumeak salgai. ADBA pedigriarekin oso prezio onean, 400 euro. Aita AEBetatik ekarria. Chinaman/Eli. Harremanetarako telefono zenbakia: 628 84 00 22.

**Pottokak salgai.** Pottoka arrazako bi behor salgai. Pottoka arrazako zaldiarekin estalita daude. Telefono zenbakia: 605 74 37 96

**Txakurrak salgai.** Sabueso edo untxari txakurrak salgai. 100 euro. Deitu 615 74 34 90 telefonora.

## 703. EMAN

**Katakume** eme bat ematen da opari. Deitu 685 79 07 61 telefono zenbakira.

## 704. BESTELAKOAK

**Katua.** Urriaren 10ean katu ilegorria galdu genuen Bergarako Labegaraietan, Santa Katalina auzoan. Aiki izena du. Mesedez, norbaitek ikusi edo aurkitu badu dei dezala 943 76 33 78 zenbakira.

**Setter gordon** zuri-beltza galdu zen asteartean, azaroaren 17an, Makatzenan. Galdu zenean katea zeraman arrastaka. Mesedez, norbaitek ikusi edo aurkitu badu dei dezala 699 18 13 34 telefono zenbakira.

**Txakur txiki bat aurkitu da Lizarragan.** Txuria da eta 3 hilabete ingurukoa. Lepoko polit bat dauka. Galdu duenak deitu dezala 686 92 51 95era.

**Zakurra.** Belauntzan zakur bat galdu zen igandean. Labrador arrazakoa, ile horiduna eta lepoko beltzarekin. Deitu mesedez 645 71 35 20 telefono zenbakira (arratsaldez)

# 8/ DENETARIK

## 801. SALDU

**Autorako ume-aulkia.** Autorako umeen aulki bi salgai. Maxi-Cosi, 18 kilora arte. 60 euro bakoitza. Deitu telefono honetara: 629 94 64 67.

**Bikiendako** "EasyWalker" markako karroa salgai. Harremanetarako telefono zenbakia: 943 03 66 80

**Bikiendako karro-kapazoa salgai.** Bikiendako Arrue etxeko karro-kapazoa salgai. 2008koa. Oso praktikoa eta egoera bikainean. Lasai deitu. 649 00 53 42

**Dendarako altzariak.** Dendarako altzariak saltzen ditut: mostradorea, erdiko mahai handia, bitrinak eta esekitzekoak. Harremanetarako telefono zenbakia: 627 96 19 22

**Ebanozko klarinetea salgai.** Oso aproposa hasten direnendako. 360 euro. Telefonoa: 948 15 05 47 edo 646 16 74 74.

**Egurra.** Moztutako egurra salgai Aramaion. 945 44 51 11 edo 617 27 74 64.

**Gasolio-galdara.** Gasolio-galdara. Osagarri guztiekin. Roca modeloa. 20.000 kcal. 12 berogailurentzat. Baserrirako egokia. Prezio negoziagarria. Deitu 943 79 34 74 edo 616 23 81 74 telefono zenbakira.

**Lur hiztegi entziklopedikoa** salgai. 350 euro. Ondo zainduta, ia ia erabili barik. Harremanetarako telefono zenbakia: 625 83 84 13

**Pedalera salgai.** Gitarra akustikorako pedalera salgai. Erdi prezioan. Harremanetarako telefono zenbakia: 943 77 19 20

**Routerra salgai.** Haririk gabeko routerra salgai. Telefonicako Amper Zyxelarekin batera. Harremanetarako telefono zenbakia: 608 36 26 07

**Ibiltzeko zinta elektrikoa salgai.** Domyos etxekoa. Lau programa ezberdinekin. Berria. 270 euro. Harremanetarako telefono zenbakia: 652 76 25 41

**Liburuak salgai.** Liburuak salgai. Liburu sortak salgai, denetarikoak. Oso oso merke. Harremanetarako telefono zenbakia: 665 73 59 83

**Marmolezko mahaia.** Marmolezko mahai borobil txikia, edarientzako karritoa eta eskritorioa (0í82x0í60) salgai. Harremanetarako telefono zenbakia: 647 84 00 27.

**Monozikloa saltzen dut.** Monty etxekoa. Pare bat aldiz bakarrik erabilia, berria. 100 euro. Harremanetarako telefono zenbakia: 605 73 07 77

**Nokia 6124 telefonoa salgai.** Vodafone etxekoa. 30 euro. Harremanetarako telefono zenbakia: 617 13 17 51

**PlayStation 2 saltzen dut**: 50 joko, memoria-txartela eta urrutiko-kontrolarekin. 150 euro. Harremanetarako telefono zenbakia: 659 68 06 06

**Bideokamera salgai.** Sanyo etxeko Xacti HD1A bideokamera salgai. Argazkiak 5mp egiteko aukeran eta bideoa HD formatuan. Txikia, oso erraza erabiltzen, egoera ederrean eta osagarri guztiekin. Bi bateria oparitzen ditut. 200 euro. Harremanetarako telefono zenbakia: 636 43 85 40.

**Sofa-ohea salgai.** Kanpoko neurriak 1,97x91x92 eta oheak 1,40x1,90. Mugimendu bakarrean irekitzekoa. Urdina eta oso gutxi erabilia. 500 euro. Harremanetarako telefono zenbakia: 616 09 46 34

**Su egurra salgai.** 20,3 0 eta 40 zentimetrora moztua. Etxera eramaten dugu. Harremanetarako telefono zenbakia:615 75 57 62

**Umeen karrorako patinete unibertsala salgai.** Harremanetarako telefono zenbakia: 650 96 23 08

**Urbanizatutako lursaila salgai Etxarri Aranatzen.** Interesatuek deitu 676 22 38 02 telefonora.

## 802. EROSI

**Eskopeta paralela bat.** Baztertuta dagoen eskopeta paralela bat erosiko nuke, *rayatua* ahal bada. Harremanetarako telefono zenbakia: 679 16 66 65

**Klarinetea.** Bigarren eskuko klarinetea erosiko nuke. Zuriñe. Harremanetarako telefono zenbakia: 627 22 45 79.

**Lursaila** erosiko nuke Bergara inguruan. Sarrera onekin ahal bada. Harremanetarako telefono zenbakia: 669 17 09 51.

**Baratzarako lur saila Getaria inguruan.** Getaria inguruan baratzarako lur sail bat erosi edo alokatuko genuke. Harremanetan jartzeko, deitutelefono honetara:: 652 70 28 28 .

**Lursaila erosiko nuke Goierri inguruan.** Lursaila erosiko nuke Goierri inguruan. Eraikigarria edo ez eraikigarria izan daiteke. Harremanetarako jartzeko deitu 634 46 41 69 zenbakira.

**Oñatin lursaila** erosi edo alokatuko nuke. Harremanetarako deitu 609 11 72 96 telefono zenbakira.

**Zilarra erosiko nuke.** Saltzeko badaukazu, deitu 656 75 76 98 telfonora.

## 806. GALDU

**Bi giltza galdu dira.** Bi giltza galdu dira Etxarri Aranatzen, biak uztai batean bildurik zeuden. Aurkitu badituzu deitu, mesedez, 699 75 04 50 telefono zenbakira.

**Bizikleta lapurtu.** Etxarrin bizikleta lapurtu dute, laranja, txuria eta beltza. Amortiguadorea ere badu saltoka ibiltzeko. Norbaitek aurkitu badu dei dezala 699 75 04 50 telefono zenbakira.

**Jertsea.** Neskatilaren jertsea galdu nuen urriaren 9an Arrasaten, Iturriotz eta Erdiko kale inguruan. Grisa da eta 3 Pommes etxekoa. Norbaitek aurkitu badu dei dezala 649 05 39 68 telefonora.

**Poltsikoko telefonoa.** Poltsikoko telefonoa galdu dut, Bergaran edo Elorrion, azaroaren 12an. Gorria eta beltza da eta Nokia etxekoa. Aurkitu baduzu, deitu, mesedez 639 64 23 36 telefono zenbakira.

**Txanodun txupa.** Ryder-en txanodun txupa marroia (poltsikoan giltzak zituena) galdu nuen. Norbaitek aurkitu badu dei dezala 663 51 27 49 telefonora.

**Umearen jertsea.** Umearen jertsea galdu genuen azaroaren 1ean, Arientzan. Marraduna da, urdina eta marroia. Urtebete inguruko neurrikoa. Norbaitek aurkitu badu dei dezala 943 53 34 59 telefonora.

**Eraztuna.** Urriaren 31n eraztuna galdu nuen Oñatiko Ugarkalde eta Euskadi etorbidea artean. Aurkitu baduzu, deitu, mesedez. Deitu 943 78 06 34 edo 656 74 53 90 telefonora.

## 807. AURKITU

**Arrasate** Ikasle Egunean Arrasateko Basati tabernan trango markako txamarra beltza trukatu nuen, poltsikoan MP3a zuen beste batengatik. Txamarra zein MP3a errekuperatu nahi baduzu deitu nire mugikorrera 626 32 04 72.

**Bergara.** Gabonetako loteria txartel bat aurkitu dut. Galdu duenak dei diezadala 943 76 26 57 telefono zenbakira.

**Bizikletarako kaskoa** aurkitu nuen Oñatiko plazan, azaroaren 15ean, domekan, iturri ondoan. Galdu duenak dei diezadala 658 75 64 65 telefonora.

**Sudadera.** Irailaren 27ko bolo txapelketa bukatu ondoren sudadera bat aurkitu nuen, norbaitek ahaztuta. Jabeak Kurtze Baltz elkartean berreskura dezake, astegunetan 20:00 aldera. Deitu 943 78 14 21 edo 943 53 42 13 telefono zenbakietara.

# 9/ HARREMANAK

## 902. HARREMANAK

**Harremana eta bertsolaritza.** 35-40 urte inguruko neska erakargarri bat ezagutzea gustatuko litzaidake, ahal dela seme-alabarik gabe, eta bertsozalea bada askoz hobe, Donostiako finalerdira eta BECeko finalera joateko asmoa badaukat eta ez daukat norekin, neska hori izan dadilaDonostia, Hernani edo inguruko herrietakoa. Zerbait gehiago nahi izanez gero, idatzi.Eskerrik asko. 628 55 37 35. *bizitzabezala@terra.es.*

**Mutil bila.** 40 urteko mutil bat naiz eta beste mutil batekin harremanak izan nahiko nituzke. Ahal balitz, gazteagoarekin. Asmo bera baduzu, bidali sms mezu bat hona. Nire aldetik, diskrezio osoa. 665 75 58 74

**Neska bila.** Donostiako 32 urteko mutil ezkondua naiz eta egoera berdinean dagoen emakume bila nabil konplizitaterako. Interesatuek idatzi *mgpelmaz@gmail.com* helbidera

**Oñati-Gasteiz.** Egunero Oñatitik Gasteizera joaten naiz. Lakuan lan egiten dut. Norbaiti autoa konpartitzea interesatuz gero, deitu 635 20 33 14 telefono zenbakira.

**Donostia Alde Zaharreko Joaldunak.** Zuk ere joaldun izan nahi duzu? Etorri gure entseguetara eta proba egin! Edo zure herriko jai edo ikuskizunetan gu han egotea nahi baduzu ere bai.Idatzi mezu bat *aldezaharrekojoaldunak@gmail.com* helbidera.

## gazte zerbitzua

**BEKAK**

**> Hizkuntzak.** Eusko Jaurlaritza. Alemanian, Frantzian, Erresuma Batuan, Irlandan eta Kanadan egonaldiak eta ikastaroak egiteko 750 plaza. Epea: azaroaren 30a.

**LANA**

**> Mendi eta lorategietako peoia.** Bergarako Udala. Epea: azaroaren 26a.

**> Begiraleak gabonetako parkerako.** Eskoriatzako Udala. Gabonetako parkean, abenduaren 28an eta 29an lan egiteko begiraleak behar dira. Epea: azaroaren 24a. *gazteria@eskoriatza.net*

**> Emakumeen berdintasunerako teknikaria.** Usurbilgo Udala. Epea: azaroaren 25a.

**> Egoitzako laguntzaileak.** Irungo Udala. Irungo Udalean egoitzako laguntzaileen lan-poltsa osatzeko deialdia. Epea: azaroaren 26a.

**> Kirol-teknikaria.** Majori Kiroldegia. S.M. Majori Kiroldegiak kirol-teknikari lanpostua bete nahi du urtebeterako. Epea: azaroaren 30a.

**> Lanbide.** Debagoieneko eskaintzak. Denda saltzailea, irakaslea (gaztelania), irakaslea (italiera), haur eta gazteen dinamizatzailea, administrari-saltzailea.

**> Ingeleserako begiraleak.** Kells taldea. Ingelesa dakiten begiraleak behar dituzte Kantabrian egingo den kanpamentu batean berehala lanean hasteko. Epea: azaroa amaiera bitartean.

**LEHIAKETAK**

**> Komikiak.** Tolosako Udala. Tolosako Udaleko Berdintasun eta Tolosaldea Garatzeneko Inmigrazio departamentuen artean gazteei zuzendutako komiki lehiaketa antolatu dute. Gizon-emakumeen estereotipo tradizionalak gainditzea du helburu. Epea: abenduaren 30a.

**ARRASATEKO GAZTE BULEGOA:**
Biteri etorbidea 3 • 943 77 00 65
gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net

**BERGARAKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:**
Kultura etxea • 943 77 91 57
gzerbitzua@euskalnet.net

**OÑATIKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:**
Foruen plaza 4 • 943 71 82 57
gazteinformazioa@oinati.net

## astea GOITBn

**Astelehena, 23**



**> Asteburuko kirol emaitzak 'Harmailatik'**
**22:15**

Asteburuak eman dituen ibarreko kirol emaitzak eta jardunaldien errepasoa egingo du Xabi Urtzelaik *Harmailatik* saioan.

**Martitzena, 24**



**> Txus Jaio auto gidaria 'Ilunpean' programan**
**22:15**

Txus Jaio auto gidari bizkaitarra gonbidatuko du martitzenean Jon Berezibar kazetariak *Ilunpean* programara.

**Eguaztena, 25**



**> Eskolanien kontzertua Arantzazun**
**22:15**

Hiru eskolaniak Arantzazun egindako kontzertua eta Mintzola fundazioaren aurkezpena *Gipuzkoa Kultura*-n .

**Eguena, 26**



**> Pedro Iturbe Antzuolako alkatea zuzenean**
**19:45**

Pedro Iturbe Antzuolako alkateak kazetari eta herritarren galderak erantzungo ditu, *Alkateak zuzenean* atalean.

**Egubakoitza, 27**



**> 'Alex eta Alexis' marrazki bizidunak**
**13:15**

*Alex eta Alexis*-en istorio eta abenturak ikusi ahal izango dituzte etxeko txikienek eguerdian, arratsaldean eta iluntzean.

| Astelehena, 23 | Martitzena, 24 | Eguaztena, 25 | Eguena, 26 | Egubakoitza, 27 |
|---|---|---|---|---|
| **13:15** Marrazki bizidunak. | **13:15** Marrazki bizidunak. | **13:15** Marrazki bizidunak. | **13:15** Marrazki bizidunak. | **13:15** Marrazki bizidunak . |
| **13:45** Kantari. | **13:45** Kantari. | **13:45** Kantari. | **13:45** Kantari. | **13:45** Kantari. |
| **14:15** Eltze beroa. | **14:15** On Ein. | **14:15** Udazken loreak. | **14:15** Eltze beroa. | **14:15** On ein. |
| **14:45** Berriak. | **14:45** Berriak. | **14:45** Berriak. | **14:45** Berriak. | **14:45** Berriak. |
| **15:15** Sakonduz. | **15:10** Harmailatik. | **15:10** Ilunpean. | **15:15** Gipuzkoa kultura. | **15:15** Ur eta Lur. |
| **15:45** Ikusmira. | **15:50** Ikusten. | **15:50** Sakonduz. | **15:45** Kalekantoi. | **15:45** Itsasoari begira. |
| **16:15** 28 Klip. | **16:20** Itsasoari begira. | **16:20** 28 Klip. | **16:15** Ikusmira. | **16:15** Ikusten. |
| **16:45** Berriak. | **16:45** Berriak. | **16:45** Berriak. | **16:45** Berriak. | **16:45** Berriak. |
| **17:15** Marrazki bizidunak. | **17:10** Marrazki bizidunak. | **17:15** Marrazki bizidunak. | **17:15** Marrazki bizidunak. | **17:15** Marrazki bizidunak. |
| **17:45** Kalekantoi. | **17:35** Wazemank. | **17:35** Harmailatik. | **18:00** Sakonduz. | **18:00** Ilunpean. |
| **18:15** Ilunpean. | **18:15** Gipuzkoakultura. | **18:15** Ur eta lur. | **18:45** Berriak. | **18:45** Berriak. |
| **18:45** Berriak. | **18:45** Berriak. | **18:45** Berriak. | **19:15** Marrazki bizidunak. | **19:15** Marrazki bizidunak. |
| **19:15** Marrazki bizidunak. | **19:15** Marrazki bizidunak. | **19:15** Marrazki bizidunak. | **19:45** Goiena Magazinea. | **19:45** Goiena Magazinea. |
| **19:45** Goiena Magazinea. | **19:45** Goiena Magazinea. | **19:45** Goiena Magazinea. | **20:45** Kantari. | **20:45** Kantari. |
| **20:45** Kantari. | **20:45** Kantari. | **20:45** Kantari. | **21:15** Goiena Magazinea. | **21:15** Goiena Magazinea. |
| **21:15** Goiena Magazinea. | **21:15** Goiena Magazinea. | **21:15** Goiena Magazinea. | **22:15** Puntuz Puntu. | **22:15** Sakonduz. |
| **22:15** Harmailatik. | **22:15** Ilunpean. | **22:15** Gipuzkoa Kultura. | **22:45** Erreportajea. | **22:45** Udazken loreak. |
| **23:00** Gipuzkoakultura. | **23:00** Wazemank. | **23:00** Kalekantoi. | **23:20** Itsasoari begira | **23:15** Kale kantoi. |
| **23:30** Goiena Magazinea. | **23:30** Goiena Magazinea. | **23:45** Goiena Magazinea. | **23:45** Goiena Magazinea. | **23:45** Magazinea |
| **00:30** Emisio amaiera. | **00:30** Emisio amaiera. | **00:45** Emisio amaiera. | **00:45** Emisio amaiera. | **00:45** Emisio amaiera. |

## arrasate irratia

**FM 107.7**

**> Emakumeen aurkako tratu txarrei buruz abokatuarekin**
**10:30**

Emakumeen aurkako tratu txarrei buruz hitz egingo dute martitzenean Arrasate Irratiko *Igo autobusera* saioan. Horretarako, Maider Morrás abokatua gonbidatuko dute. Eguaztenean, berriz, Zuberoako ikastolen alde atera dituzten Gabonetako otarreen inguruan hitz egingo dute esatariek.

**Astelehenetik egubakoitzera**

**10:00-12:00** Uda Giroan
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Astelehenetan Kirolak
Ilunpean (elkarrizketa, Euskal Herriko pertsona ezagun batekin)
Sozioekonomia gaiak, Iñaki Azkoaga komunikazio arduradunarekin
Udal Gazte Bulegoa
Sexologia Zerbitzua
Azkeneko Geltokia: hileta oharrak; zorion agurrak; eguneko oharrak...
Astearen errepasoa (Goienkariarekin)
Eguneko eta asteko protagonistekin, elkarrizketak
Zozketak (egubakoitzean)
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 (*irratia@goiena.com* )
**12:05** Euskadi Irratiko albistegia
**12:10** Izarren ordua: abesti ezagunak
**13:00** Euskadi Irratiko albistegia.
**14:00** Uda Giroan
**17:00, 19:00, 21:00, 23:00** albistegi laburra.

**Zapatua**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Domeka**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

## telealbisteak

> EITB

### Hedabideen euskararen erabilera egokia sustatzeko hitzarmena egin du EITBk Euskaltzaindiarekin

EITBk eta Euskaltzaindiak lankidetza-hitzarmena sinatu dute. Hitzarmen horren bidez, EITBko hedabideetan euskararen erabilera egokia sustatuko da, euskal gizartean euskara normalizatzeko eta bultzatzeko helburuarekin. Alberto Surio Euskal Irrati Telebistako zuzendari nagusiak eta Andres Urrutia euskaltzainburuak sinatu dute alde bien arteko lankidetza-hitzarmen hori.

Bi erakundeen arteko lankidetza esparru horretan gauzatuko da: lexikoa, batez ere onomastikaren alorrean eta bereziki EITBn erabiltzen diren toponimo, exotoponimo eta antroponimoei lotuta; hizkuntzaren gramatika eta ahoskerari buruzko arauak eta jarraibideak, besteak beste.

> TELEBISTA

### Zenbat eta telebista gehiago ikusi ume batek, orduan eta bortitzagoa izango dela dio AEBko azterketa batek

Telebistak umearen oldarkotasuna hazten duela esan du AEBn egindako ikerketa batek. Hiru urteko haur batek zenbat eta telebista gehiago ikusi, orduan eta bortitzago jokatzeko aukera izango duela dio AEBko Albanyko Unibertsitateak egindako azterlanak. Hori ikusita, AEBko pediatria akademiak gomendatu du 2 urte arteko umeek ez dezatela telebistarik ikusi, eta gainerako neska-mutilek ez dezatela pasatu egunean bi ordu baino gehiago telebistaren aurrean. Gainera, telebistari begira pasatzen dituzten orduek denbora kentzen diete positiboki garatzen laguntzen duten jolasengatik.


## ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA

**ERAKUSKETA IRAUNKORRA:** 172 modulu interaktibo ezberdin dauzka, bi solairu eta 9 geletan banatuta. Komunikatzeko modu berri bat, esperimentu eta objektuen manipulazioa erabiliz.

**PLANETARIUM**

**Kupula osoan proiektatzen diren erresoluzio handiko irudi ikusgarriak.**

**Eboluzioa**
Izakion historiako gertaera eta unerik garrantzitsuenek azaltzen dizkigu
Azaroak 24, 17:30ean euskaraz

**Biziaren Jatorria**
Lurraren eta Eguzki Sistemaren jatorria erakusten digun saioa
Azaroak 24, 18:15ean gaztelaniaz eta azaroak 25, 17:30ean eukaraz

**Infinity Express**
Unibertsoa eta Eguzki Sisteman zehar bidaia
Azaroak 25, 18:15ean gaztelaniaz

**Kartoizko Suziriaren Jatorria**
Haurrei zuzendutako saioa
Azaroak 26, 18:15ean gaztelaniaz eta azaroak 27, 17:30ean euskaraz

**Donostiatik zerura begira**
Zuzeneko saioa. Ikas ezazu gurekin zeruko objektuak ezagutzen eta disfruta ezazu Astronomiaz. Azaroak 26, 17:30ean euskaraz.

**Itsua izar begiekin**
Ipuin animatu bat, non itsu batek eta tirano batek, unibertsoaren ezagupenera hurbilduko gaituzte. Azaroak 27, 18:15ean gaztelaniaz.

**ASTEBURU ETA JAI-EGUNETAN**

Erakustaldiak, Zientzia ikuskizunak, Planetarium Txikia, animazioak, etab.

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA
KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA

Miramon-Donostia Tel.: 943 01 24 78
www.miramon.org

**Ordutegia**
Astelehenetan itxita.
Asteartetik ostiralera: 10:00-19:00
Asteburu eta jai-egunetan: 11:00-19:00

kutxa | www.kutxasocial.net

## zorion agurrak



BERGARA
**Manex Balentziaga Galfarsoro**
Azaroaren 16an, 3 urte. Zorionak, potxolo! Muxu handi-handi bat ama, aita, Sara, amama, aitaita, tia Arro, tio Diego, Lur, Mitxela eta Kalista, ama eta aitaren partetik. Pastel handia egin, e?



ARRASATE
**Ane Sologaistoa**
Azaroaren 16an, 5 urte. Zorionak printsesa! Ia 5 urte eh! Oso ondo pasau zure eguna eta patxo potolo bat familixako danon partez. Jarraitxu beti moduko potxola.



OÑATI
**Martin Arza**
Azaroaren 17an, 6 urte. Zorionak Artzatxiki! Muxu handi bat Antzuolatik! Merendola noiz? Ondo pasau eta Aupa Real!!



OÑATI
**Amaia Arriaran**
Azaroaren 19an, 30 urte. Zorionak, Amai! Ondo-ondo pasatu eguna eta muxu pila koadrilakuen partetik. Mua!



ARRASATE
**Haritz Ezpeleta**
Azaroaren 20an, 13 urte. Etxekoen partetik, zorionak eta ondo pasatu eguna.



ARRASATE
**Aimar Calvo Altuna**
Azaroaren 20an, 4 urte. Aitajaunaren eta amandrearen partetik zorionak eta pa handi eta luze bat.



ARRASATE
**Eugenio Garcia**
Azaroaren 21ean urtebetetzea. Zorionak aitaita!!! Mila muxu zure urtebetetzean etxeko guztien partetik, bereziki Allison, Julene, Irati eta Unax.



partetik.
ESKORIATZA
**Xabier Martin Roitegi**
Azaroaren 21ean, 7 urte. Zorionak zuri, zorionak beti, zorionak xabiertxooooooo, zorionak betiiiiiii! Oso pasau zure egunian, Maddi, Jokin eta Itziar.



BERGARA
**Ainhoa Zenitagoia**
Azaroaren 21ean, 5 urte. Zorionak, printzesa. Ondo-ondo pasatu zure eguna eta musu handi bat, zure familia osoaren eta bereziki gurasoen partetik.



OÑATI
**Mar Posada**
Azaroaren 22an, 7 urte. Zorionak, sorgintxo! Ondo-ondo pasatu eta opari asko jaso. Ramón, Marilú, Ane, Xabi, Susana eta Javier. Muxu handi-handi bat.



ARRASATE
**Alaitz Rodríguez**
Azaroaren 22an, 3 urte. Zorionak guapissima! Ondo-ondo pasa zure urtebetetxean, patxotxo handi bat etxekoen partetik.



ARRASATE
**Xabat Otxandiano**
Azaroaren 22an, 6 urte. Sei belarri tirakada eta sei patxo handi etxekoen izenean. Zorionak Xabat!



ARRASATE
**Maren Uribarren Arkauz**
Azaroaren 24an, 5 urte. Zorionak, sorgintxo! Patxo handi bat etxeko guztion partetik eta bereziki zure ahizpa Izarok.



ARETXABALETA
**Danel Seijo Fernandez**
Azaroaren 25ean, 9 urte. Zorionak! Jaso itzazu muxu mordo bat etxekoon partetik eta ondo-ondo pasatu eguna.



OÑATI
**Jon Legazpia Larrea**
Azaroaren 25ean, 5 urte. Zorionak eta ondo-ondo pasatu zure urtebetetzean. Patxo handi bat etxekoen partetik eta bereziki Naroaren partetik.



BERGARA
**Aimar Gabilondo Iturriaga**
Azaroaren 25ean, 8 urte. Zorionak etxekoen partetik!



ARAMAIO
**Mirari Zubizarreta Agiriano**
Azaroaren 25ean, 38 urte. Zorionak, guapa! Oso ondo pasatu eguna, txokomarrubizko muxu pila-pila patata tortila. Mi, noiz ospatuko gau? Arrasateko Zarugalde kaleko laguntxoen partetik. Muaka.



ARRASATE
**Elene Garai Kintana**
Azaroaren 25ean, 5 urte. Zorionak eta muxu haundi bat etxekoen partez!



OÑATI
**Eider Irizar Arregi**
Azaroaren 26an, 7 urte. Zorionak eta patxo handi bat etxekoen partetik!



ARRASATE
**Ane Lozano Moyano**
Azaroaren 26an, 2 urte. Zorionak eta bi muxu handi etxekoen partetik, bereziki zure ahizpa Ainarak.



ARRASATE
**Josemari**
Azaroaren 27an, 71 urte. Zorionak, aittita, belarritik tira asko. Noizko txokolatea? Muxu handi bat zure familiaren partetik; bereziki, Unax, Gorka, Haizea eta Aratzen partetik. Muxuak.



BERGARA
**Hodei Zanguitu**
Azaroaren 28an, urtebete. Zorionak, Hodei. Unax eta gurasoak.



BERGARA
**Pepe**
Azaroaren 29an, 61 urte. Zorionak, tio. Bigotetik tira asko. Ea noiz egiten dizkiguzun txokalatadia eta pastela. Muxu asko zure familiaren partetik, bereziki June, Gorka, Aratz eta Irati.



ARAMAIO
**Izar Isazelaia**
Azaroaren 21an 3 urte. zorionak, Izar. Alaitz eta etxekoen



ARRASATE
**Ane Zubizarreta**
Azaroaren 26an, 13 urte. Zorionak eta musu bat familiaren partetik.



ARETXABALETA
**Anne Gómez**
Azaroaren 24an, 5 urte. Zorionak, printzesa! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetzean. Patxo handi bat etxekoen partetik eta bereziki Oihanen partetik.



ARRASATE
**Maren Garai Kintana**
Azaroaren 27an, 2 urte. Zorionak eta muxu haundi bat etxekoen partez!



ESKORIATZA
**Itziar Uribetxebarria**
10 urte. Zorionak, Itzi, Eskoriatzako zure lagun egiptoarren partetik.



BERGARA
**Mila Madariaga**
Azaroaren 20an urtebetetzea. Familixian partetik zorionak. Batez be Unaxen partetik.



OÑATI
**Markel Barrena**
Azaroaren 23an, 4 urte. Zorionak txapeldun! Patxo haundixa etxekoen partez, bereziki Juneren, Eiderren eta Leireren partez.

## kuxkuxeroa



**Jon Berezibar**

# Kantatzen duen herria, zarzuelan

Esku artean duzuen ale honetarako lan egin beharrak zarzuelara eraman nau asteburu honetan. Ikaragarria da zarzuelaren fenomenoa Arrasaten, eta are gehiago genero horri mutur okerrez eta distantziaz begiratu izan dion ni moduko batentzat, ohi moduan, prejudizioen mende. Ez noa esatera zapatuko emanaldia eta gero zarzuelak konkistatu nauenik. Aurreiritzi neuzkanak, orain oste-iritzi ditut, hots, berdin pentsatzen jarraitzen dudala, baina txalotzen dut eta miretsi, parte-hartzaileen lana. Hiru alargunen papera zeukaten emakumeek txunditu ninduten, **Las Virtudes** baino hobeto ibili ziren, euren saltsan. Ekitaldian bertan harritu ninduen ETBko kamerak ikustea; antza albistegian agertu zen zarzuela. Zorionak. Horren harira, eta kuxkuxeroaren planta egitea egokitu zaidanez, txoritxo batek kontatu digu aurki **Arrasatekoparrokia**n izango ditugula Euskal Telebistako kamerak *meza santua* erretransmititzen. Noiz den jakin beharko, aurrez ileapaindegian txanda hartzeko. Parrokia aipatuta, gogora datorkit egubakoitzean bertan izan nintzela Goikobaluren urteurren ekitaldian, han ere jendetza eta makina bat belaunaldi elkarrekin kantuan. Txalo haiei ere eta zorionak.

**"Berdin pentsatzen jarraitu arren txalotzen dut eta miretsi zarzuelakoen lana"**

HARTU PARTE!

Kintadak, aste bukaerako ezkontzak, txutxu-mutxuak...

**Tarte hau zure txokoa da, irakurle**.

Ekar ezazu argazkia eta azalpena edo bidali honako helbidera: *astelehena@goiena.com*

**Goienkaria**
astelehenean, aste bukaera osoa

## ast4buruko albuma



**66koen afaria Bergaran.** 1966aren bueltan jaiotakoek afaria egin zuten zapatuan Bergaran. 31 lagun elkartu ziren eta Zumelaga jatetxean bapo afaldu eta gero, festarekin Bergaran bertan jarraitu zuten. Kaleetan ez zitzaien girorik falta izan zapatu gauean Bergaran. "Sekulako giroa" zegoela diote eta 67an jaiotakoek egindako afarikoekin ere topo egin zutela. Talde handiagoa zen hauena, 60 bat lagunekoa. Lagun-afarien gaua izan zen antza zapatukoa, batekin baino gehiagorekin egin zuten-eta topo.



**Historiako kantaririk txarrena.** Horixe zioen behintzat, egubakoitzean Oñatin egin zuten antzezlanaren izenburuak: *Souvenir historiako abeslaririk txarrena*. Euskarazko bertsioaren estreinaldia izan zen Oñatikoa. Maskarada taldearen azken antzezlana da eta Florence Foster Jenkinsen bizitza da kontatzen duena. Komedia eta musika, bat eginik, ikusleen gozamenerako. Eneritz Artetxe eta Mitxel Santamaria dira antzezlanaren protagonistak eta biak ala biak ageri dira irudian Oñatiko saioan.

ESKELA

# Paule Konde Isasi-Isasmendi

Irati Agirreazaldegi Goienako langilearen amama

2009ko azaroaren 21ean hil zen, 88 urte zituela.

GOIENAk bat egiten du senideen saminarekin.

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

Elgoibarren, 2009ko azaroaren 23an.


## ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu,
deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:

**943 25 05 05**

Edo zatoz ordezkaritza batera.

**Eskelaren prezioa: 110 euro.**
Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **150** euro.

**Goienkaria: astero, 39.000 irakurle (CIES).**




## jaiotakoak



**Uxue Urtzelai Ugarte**
Oñati > 2,860 kilo. Azaroaren 18an. Gurasoak: Igone (Oñati) eta Agustin (Oñati). Argazkian, Uxue jaioberria, sehaskan lo.



**Ariane Ribeiro Costa**
Eskoriatza > 3,530 kilo. Azaroaren 18an. Ama: Emi (Eskoriatza). Argazkian, Ariane jaioberria, amaren besoetan.



**Paula Guillen Berrio**
Arrasate > 3,780 kilo. Azaroaren 19an. Gurasoak: Ana (Arrasate) eta Dabid (Arrasate). Argazkian, Paula jaioberria, Isabel birramonarekin.



**Iraia Ortiz Jimenez**
Antzuola > 3,180 kilo. Azaroaren 19an. Gurasoak: Josune (Bergara) eta Maikel (Bergara). Argazkian, Iraia jaioberria, amarekin.



**Luken Ballesteros Uribarren**
Aramaio > 4,160 kilo. Azaroaren 19an. Gurasoak: Nerea (Aramaio) eta Joxean (Bergara). Argazkian, Luken jaioberria, June arrebarekin.



**Markel Cueva Garcia**
Oñati > 2,200 kilo. Azaroaren 16an. Gurasoak: Yolanda (Oñati) eta Javier (Oñati). Argazkian, Markel jaioberria, amarekin.



**Unax Agirre Osa**
Elgeta > 3,750 kilo. Azaroaren 13an. Gurasoak: Maider (Arrasate) eta Anartz (Bergara). Argazkian, Unax jaioberria, sehaskan.




ASTELEHENEKO **Goienkaria**

**EGOITZA NAGUSIA**
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
**Harpidetza:** 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

2009-11-23

**Txus Jaio** > Auto gidaria

# "Txiki eginda amaitu zuten lehenengo autoek"

**JON BEREZIBAR** > ARRASATE

**Bere hitzekin azaltzen duen moduan, "gasolina zainetan" dutenak ezin dira errepidetik oso urrun bizi eta talde barik, bere poltsikotik ordainduta eta profesional sasoia atzean utzita, gure bideetako bihurgunean ziztu bizian hartzen ikus dezakegu atzera ere Txus Jaio. BMW eboluzionatu bat darama orain, "zaharra baina potentzia handikoa" berak dioen moduan.**

**Atzera ere, beste maila baten, hor zaitugu errepideetan.**

Euskal Herriko errepideetan nabil azken hiru urteotan eta ondo pasatzeko helburu bakarrarekin, lagunekin. Horretaz gain, Markinan badugu pilotu gazte oso azkar bat, Gorka Antxustegi, eta harekin ere bagabiltza esku bat bota guran.

**Hala ere, urte batzuk egin zenituen hor zaletasunaren eta profesional izatearen mugan.**

Gogorren nenbilenean ere beti egin izan dut lan. Gainera, familia enpresa txikia dugu eta horri eutsi izan diot beti. Beti argi izan dut autoekin gaur ondo egon zaitezkela ere, baina handik gutxira auto edota talde barik utz zaitzakete erraz.

**Ilusio berdinarekin gidatzen dituzu gaurko BMWa eta hasi zineneko Ford Escorta?**

Eusten diot. Grafiko bat eginez gero, puntak egin eta ostera ere beherako unean nago. Kaleko autoekin World Rally Caretan hasi nintzen gaztetan eta orain oso bestelako maila da, baina ilusioa beti izaten duzu. Hau ez da kirol bat ilusio barik egin daitekeena, ze rally bat ondo egin arren, hurrengo hiruretan huts egiten duzu edo matxura ala istripua duzu... Balantzea eginez gero normalean disgustu gehiago izaten dira, garaipenak baino. Hamar lasterketatik eragozpen barik hiru egingo dituzu, beste lau arazoekin eta gainontzekoak ez dituzu amaituko. Garbi izan behar da hori norberaren autoarekin lehiatzerakoan.

**Eta zuk hasieratik izan duzu hori argi?**

Banekien iritsiko zela agurraren unea. Autoen munduan zenbat gidari daude goian egon eta bat-batean amaitu dutenak eta nik hori betidanik jakinda, ez dut egurrik jaso. Urtebete egin nuen pixka bat erreta, hainbeste ahalegin eta gero amaitu zelako, baina gasolina zainetan daramagunok ezin diogu eutsi. Itzuli egin nintzen nire lehen kopilotu izandakoak eta orain emazte dudanak animatuta. Kasualitatez, lagun batek autoa utzi zidan proba baterako eta atzera harrapatu ninduen; eta ostera ere bueltatu gara lehengo planera lagun koadrila hartu eta zaletasunera.

**TEST-A**

**Herria:** Markina. **Adina:** 34 urte. **Bizilekua:** Berriz. **Ogibidea:** Igeltseroa. **Kirolzalea?:** Oso. Lagun koadrila bizikletan hasi ginen oso gaztetan eta orain berreskuratu egin dugu. Korrika ere egiten dut. **Azkar gidatzen duzu?:** Gazteagotan bai, ez dizut ezer esango baina adinarekin oina azeleragailutik urruntzen joaten da. **Gogoan duzu nola amaitu zuen zure lehenengo autoak?:** Txiki-txiki eginda, hasierako guztiak bezala.



**GASOLINA** Zainetan daramala dio Jaiok. OIHANE ISASI

## ai, ene!



### Gitarra beti alboan

Gitarra pasiotzat dutenek ezin izaten dira instrumentu hori gainean ibili barik bizi; inspirazioa edo une berezi hori, noiz etorri eta badaezpada alboan izan behar. Bada, itsasoratu ezazu zure pasioa eta gitarra ere bai!

http://www.tipete.com

## biharamuna

**Juan Kruz Mendizabal**

### Egurra

Egurra ematera omen dator Gipuzkoara urtarrilaren bederatzitik aurrera gure gotzain izango den Jose Inazio Munilla. Batzuk diote, Espainiako beste eliztarrekin alderatuta, haize eta askatasun gehiegi hartu omen dugula. Ordena jartzera omen dator guregana ardi galduaren bila joaten den artzainaren moduan. Ordena jartzea eta gainbehera moral eta nazionalistaren inguru honetan egurra ematea. Elkarrekin Elizbarruti berean hamabi urtez lanean ibili ginanez eta gutxitik aurrera nire gotzain izango den Jose Inaziori esan nahi nioke Batikano II.aren ondoren sortutako askatasun haize hura ez dugula galdu behar, Gipuzkoako Eliza honek egin dituen mesede handien artean beren arteko eliztarrak heldutasun bidean jartzea izan dela, eliza honetan ardiak daudela ez arkumeak. Ez dira garai errazak hauek Eliza-lanean ibiltzeko: bertatik bertara lanean gabiltzanok badakigu honen berri. Baina Eliza barneko komunioak bi norabide izaten ditu beti: ez du ardiak bere artzaina itsu-itsuan maitatu behar, kritikotasunik gabe, askatasuna itota. Artzainak gune hau maitatu behar du; une hauetan Espirituaren eragina hemen besteetan bezala lanean dabilela jakin eta sinistuz. Eta hortik lan egin. Utzi egurra beste batzuentzat, mesedez.



## eguraldia



| MAXIMOA | MINIMOA |
|---|---|
| +18 | +08 |

Zerua hodei gutxirekin egongo da eta eguzkiaz gozatzeko egun aproposa izango da. Haizeak hego ukitua izango du.

www.euskalmet.net




Euskal soinu eta irudiak zure eskura!

SOINUAK: Bidali, SOINUE hutsunea KODEA
ABESTIAK: Bidali, SOINUP hutsunea KODEA
LOGOAK: Bidali, SOINUL hutsunea KODEA
JOKOAK: Bidali, SOINUJ hutsunea KODEA

5767 zenbakira

SMS bakoitzeko: 1,2 € + BEZa

smsoinu
Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

ABESTIAK POLIFONIKOAK (SMS 1)
Abestiaren izena (Abeslaria) I KODEA

Pop-Rock
Aitormena (Hertzainak) I AITORMENA
Aizkolari (Kortatu) I AIZKO
Amore amore (Karidadeko benta) I AMORE
Askatasun egarriz (Lin Ton Taun) I ASKATA
Begiak okertuta (Lin Ton Taun) I BEGIAK
Bi Minutuero (Hertzainak) I BIMINU
Dub manifest (Fermin Muguruza) I DUB
Egunero (Hertzainak) I EGUNERO
EH Sukarra (EH Sukarra) I SUKAR
Ellos dicen mierda, nosotros amen (La Polla) I ELLOS
Enamorado de la muerte (RIP) I ENAMO
Entzuidazu (Aterking's) I ENTZU
Etorkizuna (Etsaiak) I ETORKI
Ezer ez da betiko (Ken7) I EZER
Gora Herria (Negu Gorriak) I GORA
Hator Bel-Air (Bide Ertzean) I BELAIR
Haizea (Ken7) I HAIZEA
Hegal egiten (Itoiz) I HEGAL
Ikusi (Delirium Tremens) I IKUSI
Ilargia (Ken 7) I KEN
Inpernuen ate joka (Gatibu) I INPER
Jokin Uraini Hitzak (Bide Ertzean) I JOKIN
Kaixo (Urtz) I KAIXO
Lau Teilatu (Itoiz) I ITOIZLAU
Laztana (Latzen) I LAZTA
Lotuta egon arren (Kokein) I LOTUTA
Loretxoa (EXKIXU) I LORE
Marea Gora (Itoiz) I MAREA
Musturrek sartunde (Gatibu) I MUSTURREK
Nicaragua (Kortatu) I NICA
No time for love(Hertzainak) I NOTIME
Salve (La Polla) I SALVE
Sarri Sarri (Kortatu) I SARRI
Sorginen leizean (Exkixu) I SORGIN
Txatxo (Zarama) I TXATX01
Txus (La Polla) I TXUS

Trikitixa
Bexamela ta pastela (Maixa ta Ixiar) I BEXAMELA
Bokespok (Kepa Junkera) I BOKESPOK
Hik lan eta nik jai (Tapia) I HIK
Itsas ontzi baten (Kaxiano) I ITSAS
Kupela (Epelde eta Larrañaga) I KUPELA
Mila galdera (Alaitz / Maider) I MILAI
Nirekin (Gozategi) I GOZATEGI
Ny Hirahira (Kepa Junkera) I HIRA
Txanpon baten truke (Alaitz / Maider) I TXANPON

SOCIEDAD GENERAL DE AUTORES Y EDITORES

LOGOAK (SMS 1)
KODEA




OHARRAK
1.BATERAGARRITASUNA: Begiratu zure poltsikoko telefonoa bateragarria den eskaintzen ditugun produktuekin, helbide honetan: www.smsoinu.com/bateragarri
Bertan jasoko duzu beharrezko duzun informazio guztia.
2. BALDINTZAK: Edukiak eskuratzeko, beharrezkoa da GPRS sistema aktibatuta izatea. GPRS sistema aktibatzeko, jar zaitez zure hornitzailearekin harremanetan. Alta ematea doan da eta Kb jaitsiera bakarrik ordaindu beharko duzu. Kasu guztietan deia eta GPRS sisteman alta ematea doan dira.
* Euskaltel: deitu 900 84 02 00 telefonora./ * Vodafone: deitu 123-ra./ * Movistar: deitu 609-ra.
3. ZALANTZAK: Edozein zalantza duzula, jarri gurekin kontaktuan: smsoinu@smsoinu.com / edo deitu 902 01 21 48 telefonora.
4. PERTSONALIZAZIOAK: Zure neurrira egin ditzakegu abesti eta logoak. Webgune honetan kaleratu eta erabiltzaileek eskura dezatela nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan eta deitu 902 01 21 48 telefonora.